



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

GIZARTE-ZERBITZUEN ETA GIZARTE-EKINTZAREN ESTATISTIKA GIZARTE-ZERBITZUEN GASTU PUBLIKOA 2016

Emitza nagusiak
2018ko urriaren 18a

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren
Estatistika Organo Espezifikoa



AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Zerbitzuen eskaintza	9
2.1. Egoitza-plazak	9
2.2. Egoitzakoak ez diren plazak	13
3. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastua	19
3.1. Gastu osoa	19
3.2. Gizarte-zerbitzuetako erdiguneko gastua	21
3.2.1. Arloa eta zentro/zerbitzu mota	21
3.2.2. Gastuaren aldeak, lurralde historikoaren eta udalerrri multzoen arabera	27
3.3. Gizarte-prestazioetako gastua	29
3.3.1. Prestazio motak	29
3.3.2. Gastuaren aldeak, lurralde historikoaren eta udalerrri multzoen arabera	32
4. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuaren finantzaketa	35
4.1. Finantzaketaren alderdi orokorrak	35
4.2. Gizarte-zerbitzuen erdigunearen finantzaketa	36
4.2.1. Arloa eta zentro/zerbitzu mota	36
Erabiltzaileen ekarpenaren pisu espezifikoak	43
4.3. Gizarte-prestazioen finantzaketa	45
4.4. Foru-aldundien parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera	47
4.5. Udal-erakundeen parte-hartzearen alderaketa, lurralde historikoen arabera	54
5. Gizarte-zerbitzuetako langileak	69
5.1. Alderdi orokorrak	69
5.2. Enpleguaren sektorekako banaketa	70
5.3. Enpleguaren banaketa profesionala	75
5.4. Enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera	81
6. Kudeaketa-adierazle nagusiak, zentro eta zerbitzuen arabera	85
6.1. Egoitza-zentroak	85
6.2. Egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuak	92

KONTZEPTUEN ETA DEFINIZIOEN ERANSKINA	101
ALDERDI OROKORRAK.....	101
Gizarte-zerbitzuak eta prestazio sozialak	101
Zentroa edo zerbitzua	102
Artatutako biztanleria mota. Hurbilketa orokorra.....	102
Artatutako biztanleria mota. Mendekotasuna babestea	103
Artatutako biztanleria mota. Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babestea	104
Egoitza-zentro eta -zerbitzuak.....	104
Eguneko arretarako zentro eta zerbitzuak (egoitzakoak ez direnak)	106
Erabiltzaileak.....	108
SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN PLAZEI BURUZKO ALDERDIAK.....	109
Plazak	109
Plazen titulartasuna.....	109
GASTUARI BURUZKO ALDERDIAK.....	110
Gastu arrunta	110
FINANTZAKETARI BURUZKO ALDERDIAK.....	111
Finantzaketa: administrazio-jatorria.....	111
Finantzaketa: izaera.....	112
Finantzaketa-adierazleak	112
LANGILEEI BURUZKO ALDERDIAK.....	113
Langile motak, zentroarekin duten loturaren arabera	113
Langileak, kualifikazioaren arabera	113
Langileei buruzko datuak: orokorrak eta LOB.....	114
KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK.....	115
Zentro edo zerbitzuen okupazio-adierazlea.....	115
Gastu arrunta erabiltzaileko	115
Erabiltzaileko batez besteko kuota	115
LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko	115
Langileko (LOB) batez besteko soldata.....	115
LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK	116
Udalerrri motak.....	116



1. Sarrera

Txosten honek garatzen du **Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren, Erakundeen eta Zentroen Estatistikaren** (GZEZE) emaitza nagusien deskribapenaren urteko agiria aurkezteko proiektua. Proiektu hori 2017an taxutu eta zehaztu zen, 2012-2015 aldirako lehen datuak argitaratzearekin batera. Horrela, bada, 2016. ekitaldiari buruzko emaitza berriak aurkeztean, sendotu egin da joan den hamarkadaren erdialdera arte Eustatek gauzatzen zuen hedapen-lanari berriro ekiteko helburua; izan ere, EAEko administrazio publikoen finantza-krisialdian ezin izan baitzitzaion egiteko hari guztiz eutsi.

GZEZEren helburu nagusia da gizarte-zerbitzuekin, gizarteratzeko politikekin eta, oro har, gizarte-ekintzarekin lotutako eskaintza ezagutzea. Norabide horretan, GZEZEek gizarte-zerbitzu- eta prestazioekin lotutako hainbat aldagai ekonomiko biltzen ditu eta sistemaren erabiltzaile eta onuradunen zenbaketa orokorrera gerturatzen da. Eragiketa estatistikoak aintzat hartzen ditu, batetik, eskumenen banaketa berezitik eta, bestetik, gizarte-zerbitzuen zein gizarteratze-politiken munduan aktiboki parte hartzen duten eragileen dibertsitateak sortzen diren askotariko jarioak. Horrekin, sistema osoaren (egoitzak, finantzaketa-jarioak, etab.) ikuspegi bat eman nahi da.

Gizarte-zerbitzuen sektorea beste arlo orokor batzuek estaltzen ez zituzten gizarte-premiei erantzuteko baliabide eta jarduera multzo gisa sortu zen hein handian, eta sektore horren helburua zehazten joan da termino juridikoetan; horri esker, esparru horren azalpen estatistikoa zehaztu da.

Hastapenetan, eta estatistika-termino haietan, gizarte-zerbitzuak sistema ireki gisa zehaztu ziren, pixkanaka mugatzen joateko. 1988. urtean hasi zen estatistika, eta orduz geroztik, hainbat zerbitzu, hala nola haurtzaindegi eta adingabekoen erreforma-zentroenak, sistematik kanpo geratu dira, beste erakunde batzuek hartu baitituzte euren gain.

Enplegu-zentro bereziak autonomo bihurtzea eta lan-sistemarekin lotzea izan da beste funtsezko elementu bat, bai eta diru-sarrerak bermatzeko prestazio batzuk Lanbidera igarotzea ere. Aintzat hartutako zentro eta prestazio askok, aldiz, GZEZEren estatistika-jarraipenaren xede izaten jarraitzen dute. Horren arrazoia da informazioari jarraipena ematea bermatzea, GZEZErik gabe ez baitzen euskal estatistika-ekintzaren testuinguruan jasoko.

Nolanahi ere, gizarte-zerbitzuen sistema finkatzeari esker, sektore honi buruzko azterketak gehiago zehaztu ahal izan dira. Hurbilketa estatistikoa, egonkorra izateko bokazioagatik, egungo muga juridikoetan osorik murgildu ezin bada ere (duten aldakortasun-ahalmenagatik), uneotan, gizarte-zerbitzuen sektorearen eta lotutako jardueren (diru-sarrerak bermatzeko eta familia babesteko politikekin zerikusia dutenak) definizio estatistikoa eta juridiko-administratiboa oinarritzko justaposizioan daudela esan daiteke. Hori dela eta, erabilgarria da gizarte-zerbitzuen egungo konfigurazioaren azterlan zehatz bat, euskal administrazio publikoek eta gainerako eragileek, eta, bereziki, hirugarren sektorearekin lotutakoak, aintzat hartzen duten moduan.

Azken urteotan gizarte-zerbitzuen arloko edukiak lortu duen zehaztasun ia-ia behin betikoa aintzat hartuta, txostenean aipatzen diren informazioa tratatzeko bi arlo handiak gizarte-ekintzaren bi alderdi nagusiei lotzen zaizkie: lehena gizarte-zerbitzuen erdiguneari, eta bigarrena prestazioen sistema osagarriari. Bigarren esparru hori lotzen da, batik bat, 1980ko hamarkadaren amaiera aldera ezarritako diru-sarrerak bermatzeko politikarekin, baina baita familiak babesteko ekintzekin ere. Zerbitzu horiek gizarte-zerbitzuen eta familia-politiken sail eskumendunak bultzatuko zituela adostu zen mendearen hasieratik (une honetan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).

Prestazio horien zati bat, GLLak kasurako, gizarte-zerbitzuen egitura sistematikoaren partetzat hartzen dira. Gainerakoek esparru berezia eta autonomia dute, baina sistemarekin lotuta egoten jarraitzen dute, antzeko eraketa-funtsa dutelako, Gizarte Zerbitzuen eraketa- eta estatutu-eskumenaren garapenarekin lotzen den heinean.

Azpimarratu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da txosten honek GZEZE eta **Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoa** batera ustiatzen dituela. Estatistika osagarri horren helburua da zehaztasunez jasotzea administrazio publikoek gizarte-zerbitzuei, gizarte-prestazioei eta gizarteratzeko prozesuekin lotutako zerbitzuei eustera bideratzen duten gastu publiko arrunta.

Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoa aintzat hartzean, asmoa da hedapenean, dokumentu bakar koordinatu baten bitartez, estatistika-eragiketa honen edukia GZEZEkoarenean sartzeari, paraleloki eta gehienbat subsidiarioki (erakunde eta zentroi hurbiltzeko mekanismoei dagokienez). Erabaki hori garrantzitsua da; izan ere, datuen ustiapen-diseinuan ahalegin osagarri bat egitea ekarri du, tradizionalki Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoen estatistiketan jasotako informazioa antolatzeari dagokienez.

GZEZEren eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoaren 2016ko txostenak, funtsean, 2012-2015 aldian egindako lanean (2017an hedatu zena) zehaztutako lan-ildoarekin jarraitu nahi du. Lan-ildo horren joera da gizarte-zerbitzuak aztertzearekin lotutako estatistika-eragiketen emaitza nagusiak elkarrekin aurkeztea.

Edukiari dagokionez, agiriak alderdi hauek hartzen ditu ardatz gisa:

- a) Gizarte-zerbitzuen sektoreko zentro, zerbitzu eta programen sistemaren aurkezpen orokorra, bereziki aipatuz egungo plazen egitura (egoitza-plazak direnena eta ez direnena).
- b) Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuari lotutako emaitza nagusien deskribapena. Ikuspegiaren ardatza soilik gastu arruntaren analisisa da.
- c) Gastu arruntaren finantzaketa-egituraren analisisa; erreferentzia berezia eginez administrazio publikoen eta erabiltzaileen zereginari.
- d) Gizarte-zerbitzuen erdiguneko langileen egituraren xehetasunak, aintzat hartuta sektorearen alderdiak nahiz langile horien ezaugarri diren alderdi hertsiki profesionalak.

Hurbilketan, langile azpikontratatuak eta boluntarioen zereginari buruzko alderdiak ere txertatu dira.

- e) Azkenik, gizarte-zerbitzuen sektorea osatzen duten zentro eta zerbitzuen arabera kudeaketaren adierazle handietako batzuen aurkezpena egingo da. Adierazle horiei esker, errazagoa da egungo zentro eta zerbitzu batzuen profil espezifikoa ulertzea.



Datuen aurkezpenarekin batera, adierazitako atal gehienetan, atxikitako lurralde-datu nagusiak adierazten dira, bai lurralde historikoaren ikuspegitik, bai txostenean baliatutako udalerrien multzokatze-sistemaren eta hiriburuen ikuspegitik ere. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde desberdinetan eta udalerrietan ikus daitezkeen aldeak zehaztu nahi dira.



2. Zerbitzuen eskaintza

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuek lurralde osoan eskaintzen dituzte zerbitzuak eta zentroak. Gizarte-prestazioen sistemak bermatzen duen babesaz gain, eskaintza hori bi motatako plazen bolumen jakin batean zehazten da: batetik, egoitza-plazak, eta, bestetik, egoitzakoak ez direnak.

2.1. Egoitza-plazak

2016an, 1. taulan ikus daitekeen bezala, EAeko gizarte-zerbitzuen sistemak 27.668 egoitza-plaza eskaini zituen guztira. Hortaz, % 2,6 igo ziren 2015ean zeuden 26.970 plazekin alderatuta. Gorako joera argia erakusten du horrek, 2014-2015 aldian izandako % 1,0ko igoeraren ondoan. Horrela, bada, 2012-2013 aldian izandako beheko joeraren ostean, eta 2014ko egonkortzearen ondoren, 2014-2015 urteen bitartean hasitako berreskuratze-joera egonkortu eta azkartu egin da.

Egoitza-plazen % 73,7 adinekoren arretaren arlokoak dira (2016an 20.400 plaza ziren). Plaza mota horren hazkuntza % 1,6koa izan da, 2015-2016 aldiari dagokion batez bestekoa baino puntu bat gutxiagokoa. Zenbateko absolututan, 314 plaza berri sortu ziren 2015-2016 urteen artean, 2014-2015 aldian sortutako 165 plazen bikoitza ia.

Bigarren arreta arloa gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako zentroena da: 3.044 plaza eskaintzen dira, guztizkoaren % 11. Horietatik, 2.465 (guztizkoaren % 8,9) etxebizitzak edo egoitza-zentroak dira, eta 579 (guztizkoaren % 2,1) gaueko harrera-zentroak. 2015. eta 2016. urteen artean, nabarmena da bazterketaren arloan izandako plazen areagotzea: % 11,4koa, 2015ean zeuden 2.733 plazekin alderatuta. Igoera are handiagoa da etxebizitzetako edo egoitza-zentrotako dagokienez, % 12,5koa, hain zuzen ere (harrera-zentroen kasuan % 7koa izan zen).

Bazterketaren arloan, 311 plaza berri sortu dira guztira 2015-2016ko aldian (2013-2014 aldian 33 sortu ziren). Dinamika horrek 2012tik 2015era bizi izandako eskaintzaren jaitsiera eta ondorengo egonkortzearen dinamika hautsi du. Gaueko harrerako zentroetan plazak areagotzen jarraitzen duten arren (joera hori 2013 eta 2014 urteen artean dagoeneko bistakoa zen), aldaketa nagusia egoitza-zentroetan izan da, 2015eko zenbatekoa 2012koa baino baxuagoa baitzen (2.192 eta 2.261, hurrenez hurren). 2015 eta 2016 artean, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako zentroetan 273 plaza sortu dira (harrera-zentroetan, berriz, 38 toki).

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonen arretaren arloan ere gora egin du plaza-kopuruak, eta arlo horrek hirugarren tokian eusten dio 2016an plaza-kopuruari dagokionez. 2015-2016 aldiko igoera % 3,5koa izan da: 2015ean 2.652 plaza zeuden eta 2016an 2.744, urte horretan gizarte-zerbitzu guztietan zeuden plaza guztien % 9,9. Eskaintzak 2013 eta 2014 urteetako kopuruaren gainetik eutsi dio argi eta garbi (orduan 2.600 plaza eta koska ziren), bai eta 2012ko zenbatekoaren (2.566) gainetik ere. Zenbateko absolututan, 92 plaza berri sortu ziren 2015-2016 urteen artean, 2014-2015 aldian sortutako 35 plazen bikoitza ia.

Adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroek, bestalde, plazen % 3,8 hartzen dute. Eskuragarri dauden 1.047 plazek -% 2,2ko jaitsiera erakusten dute 2015. eta 2016. urteen artean. Jaitsiera horrekin 2012tik 2015era hautemandako eskaintzaren beherakadari eusten zaio: 2012an 1.144 plazako murrizketa izan zen, eta 2015ean 1.071 plazakoa (-% 6,4).

1. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-plazak, zentro/zerbitzu motaren arabera. 2013-2016
(Datu absolutuak, % bertikalak eta urtetik urterako aldaketa ehunekotan)

	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak
Zentro/zerbitzu mota	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%
Egoitza-zentroak	19.841	19.903	20.068	20.382	74,4	74,5	74,4	73,7	1,6
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	18	18	18	18	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0
ADINEKOAK, GUZTIRA	19.859	19.921	20.086	20.400	74,5	74,6	74,5	73,7	1,6
Egoitza-zentroak	2.567	2.567	2.608	2.700	9,6	9,6	9,7	9,8	3,5
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	67	50	44	44	0,3	0,2	0,2	0,2	0,0
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	2.634	2.617	2.652	2.744	9,9	9,8	9,8	9,9	3,5
Egoitza-zentroak	1.113	1.046	1.071	1.047	4,2	3,9	4,0	3,8	-2,2
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	1.113	1.046	1.071	1.047	4,2	3,9	4,0	3,8	-2,2
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentzat)	157	166	178	183	0,6	0,6	0,7	0,7	2,8
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentzat)	246	249	250	250	0,9	0,9	0,9	0,9	0,0
EMAKUMEAK, GUZTIRA	403	415	428	433	1,5	1,6	1,6	1,6	1,2
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	2.146	2.152	2.192	2.465	8,0	8,1	8,1	8,9	12,5
Gaueko harrera-zentroak	515	548	541	579	1,9	2,1	2,0	2,1	7,0
BAZTERTUAK, GUZTIRA	2.661	2.700	2.733	3.044	10,0	10,1	10,1	11,0	11,4
GUZTIRA	26.670	26.699	26.970	27.668	100,0	100,0	100,0	100,0	2,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
OHARRA: ikusi atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.



2. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-plazak (publikoak, itunpekoak eta pribatuak), zentro/zerbitzu motaren arabera 2013-2016 (plaza guztiekiko %)

Zentro/Zerbitzu mota	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Itunpekoak	Itunpekoak	Itunpekoak	Itunpekoak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak
	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %
ADINEKOAK, GUZTIRA	37,6	36,9	36,6	36,9	32,5	32,5	33,3	31,2	29,9	30,6	30,1	31,9
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	31,8	32,9	32,2	31,8	60,9	58,5	61,8	62,8	7,3	8,5	6,0	5,4
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	87,9	87,1	86,1	86,5	10,9	11,8	12,9	11,8	1,3	1,1	1,0	1,6
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentsat)	28,0	32,5	35,4	32,8	34,4	32,5	33,7	29,0	37,6	34,9	30,9	38,3
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentsat)	97,6	95,6	95,6	95,6	1,6	2,0	2,0	3,2	0,8	2,4	2,4	1,2
EMAKUMEAK, GUZTIRA	70,5	70,4	70,6	69,1	14,4	14,2	15,2	14,1	15,1	15,4	14,3	16,9
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	28,4	30,3	30,0	29,6	29,7	26,1	24,8	23,9	41,9	43,7	45,2	46,5
Gaueko harrera-zentroak	75,5	75,5	76,5	76,3	9,1	5,8	5,9	9,0	15,3	18,6	17,6	14,7
BAZTERTUAK, GUZTIRA	37,5	39,4	39,2	38,5	25,7	22,0	21,1	21,1	36,8	38,6	39,7	40,4
GUZTIRA	39,6	39,2	38,9	39,0	33,5	32,9	33,7	32,2	26,9	27,9	27,3	28,8

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

2012 eta 2015 bitartean emakumeentzako plaza-kopurua 433tik 428ra murriztu ondoren (-% 1,2), 2016an % 1,2 hazi da eta berriro iritsi gara 2012ko zenbatekora. Plaza horiek EAEko gizarte-zerbitzuetako egoitza-eskari osoaren % 1,6 besterik ez dira.

Berreskuratze hori, arreta-arlo honetan, tratu txarren biktima ez diren emakumeentzako plazekin lotuta dago, 2016an 183 baitziren (2015ean baino % 2,8 gehiago); hala ere, kopuru hori 2012an zeuden 187 plazen azpitik dago. Bestalde, eta 2012-2015 urteen artean hein handi batean gertatzen zen bezala, egonkortasuna da genero-indarkeria edo tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeentzako eskaintzaren ezaugarri nagusia. 2016an 250 plaza zeuden, 2015. urteko maila berean, eta 2012an baino zertxobait gainera (246 zeuden).

2. taulan ikus daitekeen bezala, gizarte-zerbitzu guztiei erreparatuta, egoitza-plazen banaketa titulartasunaren arabera aztertuz gero, plaza publikoek eta itunpeko plaza pribatuek pisu nabarmena dute. 2016an, % 39 eta % 32,2 ziren, hurrenez hurren, titulartasun publikokoak eta itunpekoak, eta % 28,8 araubide guztiz pribatukoak. Sektore pribatuaren pisu erlatiboa areagotu egin da, ordea, 2015eko % 27,3rekin alderatuta.

Plaza publikoen eragin erlatibo handiena, berriz, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetan ikusten da (% 95,6), bai eta adingabe, gazte edo familientzako zentroetan ere (% 86,5). Proporzio hori oso altua da gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroen kasuan ere (% 76,3).

Beste muturrean daude bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak, proportziorik txikienarekin (% 29,6). Zenbateko horietatik gertu daude desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroak (% 31,8), nahiz eta % 30aren mugarrira gainditzen duten, bai eta genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktimak ez diren emakumeentzako egoitza-zentroak ere (% 32,8). Proporzioa zertxobait altuagoa da adinekoentzako egoitza-zentroi dagokienez (% 36,9).

2015 eta 2016 urteen artean egonkortze-joera nagusi bat ikus daiteke plaza publikoen pisu erlatiboan, edo jaitsiera arineko joera bat, ehuneko 0,3 edo 0,4ko aurrerapenak izan baitira, soilik, adinekoentzako eta adingabe edo familientzako egoitza-zentroetan. Murrizketarik nabarmenena genero-indarkeriaren biktimak ez diren emakumeentzako zentroetan izan da (% 35,4tik % 32,8ra).

Genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktimak ez diren emakumeentzako zentroetan, ordea, badago aipatu beharreko ñabardura garrantzitsu bat, hau da, 2015eko eskaintza publikoak aurreko urteetan baino zenbateko askoz handiagoak zituela. Horregatik, 2016an, plaza publikoen pisua nahiko gerturatzen da 2014ko zenbatekoetara (% 32,8 eta % 32,5).

Itunpeko plazei erreparatuz, horien pisu erlatiboa bereziki altua da desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan. Zehazki, eskaintzen diren plaza guztien % 62,8 dira, berreskuratze-joera argian, bai 2014ko % 58,5arekin alderatuz, eta bai 2013ko % 60,9tik zein 2015eko % 61,8tik gora.

Maila horiek EAEko batez besteko orokorretik zertxobait beherago daude adinekoentzako eta genero-indarkeriako arazoak ez dituzten emakumeentzako egoitza-zentroi dagokienez (% 31,2 eta % 29, hurrenez hurren), batzuk zein besteak inoizko mailarik baxuenean baitaude 2012tik. Askoz beherago dago, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroen multzoan, itunpeko plazen pisua (% 23,9); kasu horretan ere, maila hori inoizko baxuena da 2012tik.

Itunpeko plazen proporzioa askoz txikiagoa da arreta-zentroen gainerako arloetan: % 11,8 adingabe, gazte edo familientzako egoitza-zentroetan, % 9,0 gaueko arretako zentroetan, eta % 3,2 indarkeriaren edo tratu txarren biktimak diren emakumeentzako egoitza-zentroetan.



Azkenik, nabarmentzekoa da plaza pribatuek bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroei dagokienez duten pisua (% 46,5)¹. EAEko batez bestekotik gora daude, orobat, adinekoentzako eta indarkeriaren biktimak ez diren emakumeentzako egoitza-zentroei dagokienez (% 31,9 eta % 38,3 hurrenez hurren). Proporzioa askoz txikiagoa da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan (% 14,7). Plaza pribatuen ehunekoa % 1,2 eta % 5,4 bitartean dago desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako, adingabe, gazte eta familientzako zein genero-indarkeriaren edo tratatu txarren biktimak diren emakumeentzako egoitza-zentroetan.

2015 eta 2016 urteen artean, plaza pribatuen kopuruak gora egin du mota horretako plazek garrantzi handieneko hiru zentro motetan. Dinamika hori are bistakoagoa da indarkeria-arazorik ez duten emakumeentzako etxebizitza eta egoitza-zentroetan, izan ere, plaza pribatuak % 30,9tik % 38,3ra igo dira aldi horretan, hau da, ehuneko 7,4 puntuko igoera izan da. Igoera hori 1,2 eta 1,7 puntu bitartekoa izan da adinekoentzako eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroyen multzoan.

Aipatutako hiru egoitza-zentro mota horietan, 2016an plaza pribatuen pisua 2013tik hona erregistratutako gehienekoetara iristen da, 2012an zeuden zenbatekoetatik oso gertu: % 31,9 2016an eta % 33,1 2012an adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan; % 38,3 eta % 40,1 indarkeria-arazorik ez duten emakumeentzako zentroetan; eta % 46,5 eta % 46,3 bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentroetan.

Gainerako egoitza-zentro motetan, plaza pribatuek pisu erlatibo txikiagoa izan ohi dute; 2015 eta 2016 urteen bitartean, aldiz, eskaintza osoan murriztu da plaza pribatuen pisua.

2.2. Egoitzakoak ez diren plazak

3. taulan jasota dago gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren eskaintza egoitzakoak ez diren plazetan. Ikus daitekeen bezala, sistema horrek 2016an egoitzakoak ez diren 14.237 plaza zituen guztira; horrenbestez, % 7,2ko igoera izan da 2015ean zeuden 13.282 plazekin alderatuta. 2012 eta 2013 urteen artean hautemandako igoeraren (12.683 tokitik 13.151 tokira) ondoren, eta 2013 eta 2015 urteen bitartean zenbatekoak egonkortu ondoren, 2015-2016 aldiak gizarte-zerbitzuen eskaintzaren susperraldia ekarri du egoitzakoa ez den arretan².

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen sektoreak ditu mota honetako plaza gehien: 6.548, guztizkoaren % 46. Hori % 5,9ko gehikuntza da 2015eko 6.185 plazekin alderatuta.

¹ Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arreta-zerbitzuen kasuan, ñabardura batzuk aintzat hartu behar dira aintzat itunpeko plazek duten rolari dagokionez. Zehazki, kontuan hartzekoak dira Kontzeptuen eta Definizioen eranskinean arreta-sektore horren barruko itunpeko plazei buruz egiten diren zehaztapenak.

² Analisisian, egoitza-zentroetan eskuragarri dauden egoitzakoak ez diren plazak sartzen dira.

3. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plazak, zentro/zerbitzu motaren arabera 2013-2016
(Datu absolutuak, % bertikalak eta urterik urterako aldaketa ehunekotan)

	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015/2016
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	aldiko bariazioa
Zentro/zerbitzu mota									
Egoitza-zentroak	77	89	92	208	0,6	0,7	0,7	1,5	126,1
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	103	127	122	122	0,8	1,0	0,9	0,9	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	4.155	4.255	4.330	4.414	31,6	32,4	32,6	31,0	1,9
Jantokiak	508	528	528	558	3,9	4,0	4,0	3,9	5,7
Egoitzakoak ez diren zentroak	142	141	141	138	1,1	1,1	1,1	1,0	-2,1
ADINEKOAK, GUZTIRA	4.985	5.140	5.213	5.440	37,9	39,1	39,2	38,2	4,4
Egoitza-zentroak	21	36	8	19	0,2	0,3	0,1	0,1	137,5
Atsedeen- eta babes-zerbitzua	0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	0,0	
Eguneko laguntza-zentroak	2.097	2.123	2.098	2.150	15,9	16,1	15,8	15,1	2,5
Suspertze- eta arreta-zentroak	767	790	809	821	5,8	6,0	6,1	5,8	1,5
Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	2.769	2.674	2.787	2.755	21,1	20,3	21,0	19,4	-1,1
Laneratze-zentroak	407	296	483	803	3,1	2,3	3,6	5,6	66,4
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	6.061	5.919	6.185	6.548	46,1	45,0	46,6	46,0	5,9
Agingabe/familien egoitza-zentroak	4	4	4		0,0	0,0	0,0	0,0	-100,0
Agingabeentzako/familientzako eguneko arreta	359	354	320	324	2,7	2,7	2,4	2,3	1,2
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	363	358	324	324	2,8	2,7	2,4	2,3	0,0
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	22	72	22	25	0,2	0,5	0,2	0,2	13,6
Eguneko zentroak	1.262	1.204	1.080	1.427	9,6	9,2	8,1	10,0	32,1
Jantoki sozialak	458	458	458	473	3,5	3,5	3,4	3,3	3,3
BAZTERTUAK, GUZTIRA	1.742	1.734	1.560	1.925	13,2	13,2	11,7	13,5	23,4
GUZTIRA	13.151	13.151	13.282	14.237	100,0	100,0	100,0	100,0	7,2

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika
OHARRA: ikusi atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.



**4. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plazak (publikoak, itunpekoak eta pribatuak), zentro/zerbitzu motaren arabera 2013-2016
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Itunpekoak	Itunpekoak	Itunpekoak	Itunpekoak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak
	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %
Zentro/Zerbitzu mota												
Egoitza-zentroak	24,7	24,7	6,5	8,7	31,2	15,7	15,2	8,7	44,2	59,6	78,3	82,7
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	71,8	71,0	70,6	70,0	18,0	18,8	18,8	18,7	10,2	10,2	10,6	11,3
Jantokiak	100,0	96,2	96,2	96,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	3,8	3,8	3,6
Egoitzakoak ez diren zentroak	10,6	9,2	9,2	7,2	0,0	56,7	56,7	50,7	89,4	34,0	34,0	42,0
ADINEKOAK, GUZTIRA	72,8	71,8	71,1	69,5	15,5	17,4	17,4	16,8	11,8	10,8	11,5	13,8
Egoitza-zentroak	33,3	0,0	0,0	31,6	38,1	77,8	25,0	36,8	28,6	22,2	75,0	31,6
Atsedeen- eta babes-zerbitzua												
Eguneko laguntza-zentroak	19,2	19,5	19,4	19,0	74,9	73,9	78,0	76,7	5,9	6,6	2,6	4,3
Suspertze- eta arreta-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0	7,0	14,1	16,9	11,6	93,0	85,9	83,1	88,4
Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	20,2	21,3	21,2	21,2	6,0	3,3	2,5	2,5	73,8	75,4	76,3	76,2
Laneratze-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	100,0	100,0	100,0
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	16,0	16,6	16,1	15,3	29,7	30,4	29,8	27,8	54,3	53,0	54,0	56,9
Agingabe/familien egoitza-zentroak	100,0	100,0	100,0		0,0	0,0	0,0		0,0	0,0	0,0	
Agingabeentzako/familientzako eguneko arreta	37,9	38,4	46,3	45,7	12,8	13,0	0,0	38,3	49,3	48,6	53,8	16,0
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	38,6	39,1	46,9	45,7	12,7	12,8	0,0	38,3	48,8	48,0	53,1	16,0
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	72,7	26,4	100,0	88,0	0,0	0,0	0,0	0,0	27,3	73,6	0,0	12,0
Eguneko zentroak	9,3	9,6	12,5	9,5	46,8	26,2	31,2	33,6	44,0	64,3	56,3	56,9
Jantoki sozialak	0,0	0,0	0,0	3,2	26,2	0,0	0,0	0,0	73,8	100,0	100,0	96,8
BAZTERTUAK, GUZTIRA	7,6	7,7	10,1	8,9	40,8	18,2	21,6	24,9	51,6	74,1	68,3	66,1
GUZTIRA	37,0	37,6	37,7	35,8	25,3	23,2	23,3	23,4	37,7	39,2	39,0	40,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
OHARRA: ikusi atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitzakoa ez den arretan, eskuragarri dauden plaza gehienak eguneko arreta-zentroetan daude (2.150, 2015ean baino % 2,5 gehiago), bai eta eguneko zentroetan ere; azken horiek aldagai okupazionala eransten diote (mota horretako 2.755 plaza daude, eta kopuruak arinki egin du behera, 2015ean 2.787 baitzeuden). Suspertze-eta arreta-zentroek 821 plaza dituzte, eta laneratzeko zentroek 803; azken datu hori nabarmen areagotu da 2015etik (483 zeuden).

Adineko pertsonen arretaren arloan, egoitzakoak ez diren 5.440 plaza zeuden 2016an, guztizkoaren % 38,2. Eskaintza horrek % 4,4ko gehikuntza dakar 2015eko 5.213 plazekin alderatuta. Eguneko laguntza-zentroak eskaintza honen funtsezko zatia dira, 4.414 plaza biltzen baitituzte, eta zifra hori % 1,9 areagotu da, gainera, 2015eko 4.330 plazekin alderatuta. Adineko pertsonentzako jantokietan 558 toki daude (% 5,7ko gehikuntza 2015etik), eta beste 138 toki adineko pertsonentzako beste zentro mota batzuetan.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko zerbitzuetan egoitzakoak ez diren 1.925 plaza zenbatu dira, guztizkoaren % 13,5. 2014. eta 2015. urteetan ikusitako beherakadaren ondoren (kopurua 1.734tik 1.560ra jaitsi zen), sektore honek gora egin du; zehazki, % 23,4ko gehikuntza izan da 2015-2016ko aldian.

Eskaintzaren gorakada-joera argia da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroen kasuan: 1.427 plaza eskaintzen zituzten 2016an, 2015ean zituzten 1.080 plazak baino % 32,1 gehiago, bai eta 2013ko 1.262 plazak baino gehiago ere. Beste zerbitzu aipagarrien artean daude jantoki sozialak, 473 plazarekin, 2015ean zeuden 458 plazak baino % 3,3 gehiago. Eskaintza 2012ko ko zenbatekotik behera dago, hala ere (483 zeuden).

Azkenik, egoitzakoak ez diren plazen % 2,3 adingabe, gazte eta familientzako arlokoak dira (324 plaza, 2015ean bezala, baina 2013ko 363 edo 2014ko 358 plazen azpitik, nabarmen).

4. taulari erreparatuz, egoitzakoak ez diren plaza eskuragarriak aztertzen badira, nabarmena da plaza hertsiki publikoek inpaktu handia dutela eguneko laguntza-zentroetan eta adinekoentzako jantokietan (% 70 eta % 96,4, hurrenez hurren). Guztira, adinekoen arretaren arloan, egoitzakoak ez diren plazen % 69,5 dira publikoak. Hala eta guztiz ere, azken urteotako beherako joerari eusten zaio. Hartara, 2012. eta 2013. urteen artean % 71,3tik % 72,8ra igo ondoren, proportzioa mailaka-mailaka jaitsi da: 2015ean % 71,1 zen eta 2016an % 69,5.

Plaza publikoen presentzia garrantzitsua da, halaber, adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretan: % 45,7. Kasu honetan gorazko joera argia dago, 2012an plazen % 30,9 baitziren publikoak, eta 2015ean % 46,3; horrek esan nahi du 2016ko adierazleak eskaintza publikoaren jaitsiera txiki bat erakusten duela.

Plaza publikoen proportzioa askoz xumeagoa da desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako arretan, jarduera okupazionalekin konbinatuta zein ez (% 19,0 eta % 21,2, hurrenez hurren). Gauza bera gertatzen da bazterketa-egoeran dauden eguneko zentroetan ere (% 9,5). Horietan guztietan, alabaina, 2012tik 2014-2015 aldira bitartean ildo nolabait gorakoa bazen ere, 2016ko zenbatekoek egonkortze prozesu bat erakusten dute, oro har, bazterketaren arloko eguneko zentroetan ez ezik, non adierazlea 2013-2014ko mailara iristen den, 2015ean % 12,5era iritsi ondoren.



Itunpeko plazen pisua oso altua da desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, guztiaren % 76,7. Proportzio hori 2015eko % 78tik beherago badago ere, 2012-2014 arteko erregistroetatik gora dago, aldi hartako gehienekoa % 76,2 izan baitzen.

Plazen % 33,6 itunpekoak dira bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan. Zenbateko horrek gorako joerari eusten dio, 2014ko % 26,2tik. Nolanahi ere, 2012ko eta 2013ko % 40tik gorako zenbatekoen azpitik dago argi eta garbi.

Itunpeko plazek nolabaiteko presentzia dute, baita ere, adinekoen eguneko laguntza-zentroetan (% 18,7) eta desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako suspertze- eta arreta-zentroetan (% 11,6). Azken multzo horretan, 2015ean % 16,9ra iritsi ondoren, 2016ko datuek beherakada argia erakusten dute.

Hertsiki pribatuak diren plazei dagokienez, zerbitzu askotan gehiengoa dira. % 56,9ko eragina dute bazterkeria-egoera dauden pertsonentzako eguneko zentroetan, 2015eko datuekin parekatuta (% 56,3). Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako arretaren arloan, % 75etik gora daude eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan, bai eta desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako suspertze- eta arreta-zentroetan ere (% 76,2 eta % 88,4 hurrenez hurren). Azken mota horretako zentroetan, 2013an erregistratutako % 93tik 2015eko % 83,1era proportzioa beherakoa izan ondoren, hauteman da 2016an nabarmen suspertu dela arreta hertsiki pribatua.

Bestalde, arreta pribatuak hartzen du desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako laneratze-zentroen % 100, edo maila horretara gerturatzen da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako jantoki sozialetan (2016an % 96,8 zen).

Nolanahi ere, adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretan ikusi da aldaketa nagusia arreta pribatuaren arloan (itunpekoa zein ez) 2015 eta 2016 urteen bitartean. Izan ere, itunpeko eskaintza 2016ko eskaintza osoaren % 38,3 izatera igaro da, babes hertsiki pribatuak izandako beherakadaren ondorioz. Azken hori guztizkoaren % 53,8tik (2015ean) % 16ra jaitsi da 2016an.



3. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastua

Atal honetan, gizarte-zerbitzuetako eta prestazio ekonomikoetako gastu arrunt osoa aztertzen da, zentro/zerbitzu eta prestazio mota aintzat hartuta.

3.1. Gastu osoa

Gastuari buruzko datu garrantzitsuenak 5. eta 6. tauletan aurkezten dira. Gizarte-zerbitzuen erdigunean eta prestazioen sisteman eginiko gastua 2.073,39 milioi eurokoa izan zen 2016an. Gizarte-zerbitzuen erdiguneak aintzat hartutako gastu osoaren % 67,6 hartzen du, guztira 1.401,25 milioi euro 2016an. Prestazioen sistemak gainerako % 32,4 hartzen du, guztira 672,14 milioi euroko gastua. Ia-ia guztia sektore publikoko prestazioei dagokie (669,86 milioi, gobernuz kanpoko erakundeek kudeatutako 2,28 milioiren aldean).

Oro har, biztanleko gastua 954,65 eurokoa da pertsonako 2016an. 645,18 euro gizarte-zerbitzuen erdiguneari dagokie eta gainerako 309,47 euroak prestazioen sistemari.

2016ko gastuak % 12,27an gainditzen ditu 2013ko 1.856,83 milioi euroak, eta azeleraziorako joera erakusten du gizarte-zerbitzuen gastuan. Horrela, bada, gastuaren hazkundea % 3,6ra iritsi da 2015 eta 2016 urteen artean, 2014-2015 aldiko % 1,1eko hazkundea hirukoiztuz. Hala ere, 2013 eta 2014 urteen artean erregistratutako % 7,19ko hazkundearen azpitik dago.

Gastuaren barne-dinamikaren azterketa xehatua egiteko zenbait ñabardura aipatu behar dira. Batetik, ikusi da termino konstanteetan hazkunde txikiagoa izan dela 2015 eta 2016 urteen artean (% 2,05, % 3,60ren aldean, termino arruntetan; hala eta guztiz ere, hazkundea argia da 2014-2015 aldian balio konstanteetan erregistratutako % 0,79aren aldean). Bestetik, dinamika aldekoagoa da biztanleko gastu konstantearen bilakaerari erreparatuz gero, 2015 eta 2016 artean % 2,11 areagotu baita, 2014-2015 aldiko % 0,78 baino gehiago.

Gastuaren hazkundea, funtsean, gizarte-zerbitzuen erdiguneko dinamikara lotzen zaiola da, ordea, 2015 eta 2016 bitarteko datu deigarriena. Aldi horretan, gastua % 5,11 areagotu zen termino arruntetan, % 3,53 termino konstanteetan eta % 3,60 biztanleko gastu konstantean. Horrek 2014 eta 2015 artean gizarte-zerbitzuen erdigune horretan ikusten zen gastuaren beherako dinamika hausten du: -% 0,68ko jaitsiera gastu arruntetan eta -% 0,99 zifra konstanteetan. 2015-2016 aldiko hazkundearen (+% 5,11) zenbateko nominalak 2013-2014 aldiko mailetara hurbiltzen dira, gainera; aintzat hartuta aldi hartan gastua % 5,79 igo zela. Distantzia handiagoa da 2016ko prezio konstanteetan: % 3,53 2015 eta 2016 artean, eta % 6,49 2013 eta 2014 artean.

2012 eta 2015 urteen bitartean gizarte prestazio publikoen gastuen hazkundeak izandako garrantziaren aldean, zenbateko hori % 0,95 baizik ez da hazi termino arruntetan 2015-2016ko aldian; horrela, aurreko urteetan hautematen ari den gastuaren desazelerazio-ildoan egonkortu da. Hain zuzen ere, 2013tik 2014ra % 10,41 hazi ondoren, hazkundea % 4,80ra jaitsi zen 2014tik 2015era. Gastu konstanteari dagokionez, beherako bilakaera argiagoa da: % 11,13ko gehikuntza izan zen 2013 eta 2014 bitartean, % 4,48koa 2014 eta 2015 bitartean, eta -% 0,56ko jaitsiera izan da 2015 eta 2016 bitartean. Hala eta guztiz ere, termino konstanteetan, gizarte-prestazio publikoetan egindako gastuak % 15,47an gainditzen du 2013an egiten zena (eta gizarte-zerbitzuen erdiguneko gastuak % 9,16an).

**5. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta. 2013-2016
(Gastu nominala milioi eurotan, % bertikalak, BPGd %, gastua biztanleko eta urte arteko aldaketan %)**

	2013				2014				2015				2016				Urte arteko bariazioa %kotan			
	Abs.	%	BPGd %	Gastua/ biz.	Abs.	%	BPGd %	Gastua/ biz.	Abs.	%	BPGd %	Gastua/ biz.	Abs.	%	BPGd %	Gastua/ biz.	2013/ 2014	2014/ 2015	2015/ 2016	2013/ 2016
Gastu mota																				
Gastu arrunta, guztira	1.846,83	100	2,84	847,58	1.979,54	100	2,98	911,02	2.001,34	100	2,92	920,92	2.073,39	100	2,93	954,65	7,19	1,10	3,60	12,27
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1.268,85	68,7	1,95	582,32	1.342,29	67,8	2,02	617,75	1.333,14	66,6	1,95	613,44	1.401,25	67,6	1,98	645,18	5,79	-0,68	5,11	10,43
Gizarte-prestazio publikoak	573,45	31,1	0,88	263,18	633,12	32,0	0,95	291,37	663,53	33,2	0,97	305,32	669,86	32,3	0,95	308,42	10,41	4,80	0,95	16,81
Gizarte-prestazio pribatuak	4,53	0,2	0,01	2,08	4,13	0,2	0,01	1,90	4,67	0,2	0,01	2,15	2,28	0,1	0,00	1,05	-8,82	12,95	-51,08	-49,62

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

**6. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta. 2013-2016
(Gastua 2016ko prezioetan, milioi eurotan eta urte arteko bariazioen %)**

	2013	2014	2015	2016	Urte arteko bariazioa %kotan			
	Milioi euro	Milioi euro	Milioi euro	Milioi euro	2013/ 2014	2014/ 2015	2015/ 2016	2013/ 2016
Gastu mota								
Gastu arrunta, guztira	1.868,36	2.015,84	2.031,78	2.073,39	7,89	0,79	2,05	10,97
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1.283,64	1.366,90	1.353,42	1.401,25	6,49	-0,99	3,53	9,16
Gizarte-prestazio publikoak	580,13	644,73	673,62	669,86	11,13	4,48	-0,56	15,47
Gizarte-prestazio pribatuak	4,59	4,21	4,74	2,28	-8,21	12,61	-51,82	-50,20

(Gastua 2016ko prezioetan, eurotan biztanleko eta urte arteko bariazioen %)

	2013	2014	2015	2016	Urte arteko bariazioa %kotan			
	Gastua/ biz.	Gastua/ biz.	Gastua/ biz.	Gastua/ biz.	2013/ 2014	2014/ 2015	2015/ 2016	2013/ 2016
Gastu mota								
Gastu arrunta, guztira	857,46	927,73	934,92	954,65	8,20	0,78	2,11	11,33
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	589,11	629,08	622,77	645,18	6,78	-1,00	3,60	9,52
Gizarte-prestazio publikoak	266,24	296,72	309,97	308,42	11,45	4,47	-0,50	15,84
Gizarte-prestazio pribatuak	2,10	1,94	2,18	1,05	-7,96	12,59	-51,79	-50,04

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika



Prestazioen gastuan izandako jaitsiera askoz agerikoagoa da sektore pribatuan. Kasu honetan, gastu arrunt nominala -% 51,08 jaitsi da 2015-2016ko aldian.

Aipatutako aldaketek eragina dute gastu arrunt osoaren banaketan, eta gizarte-zerbitzuen erdiguneak pisu erlatibo gorakorra izan du. Sektore pribatuak guztizko gastuari egindako ekarpena % 68,7 zen 2013an, % 66,6ra jaitsi zen 2015ean, eta % 67,6ra igo zen 2016an. Datu horiekin dagoeneko 2014ko mailetatik gertu badago ere (% 67,8), proportzioa 2013an erregistratu zena baino baxuagoa da oraindik.

Gizarte-zerbitzuen eta prestazioen gastuak BPGd-an duen pisuak egonkor jarraitu du 2016an: % 2,93, 2015eko % 2,92tik gertu. 2013ko % 2,84 baino gehiago bada ere, 2014an lortutako % 2,98tik behera dago. 2014ko datuekin alderatuta, gizarte-zerbitzuen gastuak BPGd-an duen eragin urriagoa gizarte-zerbitzuen erdigunearekin lotuta dago. 2013ko gastua BPGdren % 1,95 izatetik 2014an % 2,02 izatera igaro ondoren, proportzio hori % 1,95era jaitsi zen berriro 2015ean. 2016ko % 1,98 horrek, ordea, 2014ko datuetara hurbiltzea esan nahi du.

Lehen aldiz, 2012tik, 2015-2016ko aldian BPGdren partaidetzak behera egin du gizarte-prestazio publikoetan: % 0,97tik % 0,95era. Gastuaren maila hori 2014an zegoenaren antzekoa da, ordea, eta 2013ko % 0,88koa baino altuagoa, argi eta garbi.

3.2. Gizarte-zerbitzuetako erdiguneko gastua

3.2.1. Arloa eta zentro/zerbitzu mota

7. eta 8. taulek erakusten dute zer gastu arrunt izan den gizarte-zerbitzuen erdigunean, gastuaren sektorearen eta zentro edo zerbitzu motaren arabera.

7. taulan ikus daitekeen bezala, 2016an gizarte-zerbitzuen erdigunearen ezaugarri diren 1.401,25 milioi euroetatik gehien-gehiena mendekotasuna duten biztanleen arretara bideratzen da oro har, bai eta adinekoen edo desgaitasun edo gaixotasunen arloko arazoak dituzten pertsonen arretara ere. 2016an, gastuaren % 74,8 kolektibo horretara bideratu zen; guztira, 1.047,46 milioi euro.

Gastu-lerro horren barruan, adinekoentzako zentro eta zerbitzuei dagokiena da nagusi, gizarte-zerbitzuen erdigunean gastu osoaren % 45 hartzen baitu (630,95 milioi). Desgaitasun edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuetarako partida gastu osoaren % 14,3 da (200,39 milioi), eta, ondoren, mendekotasunak dituzten pertsonentzako prestazioek % 8,9 hartzen dute (125,14 milioi). Etxeko laguntzako, telelaguntzako eta zaintzaileak babesteko programek aztertutako gastuaren % 6,5 hartzen dute (90,97 milioi).

Mendekotasunak dituzten pertsonen, adinekoei eta desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonen bideratutako gastu-lerroak handitzen jarraitu du 2015-2016ko aldian, hain zuzen, % 4,11 (% 2,55 termino konstanteetan 2016an). 2015era arte ikusten zenaren aurka, ordea, gehikuntza batez bestekoaren azpitik dago gizarte-zerbitzuen erdigunean; horrek esan nahi du gastu-lerro horren pisu erlatiboak behera egin duela gizarte-zerbitzuen erdigunean. Horrela, bada, 2015ean % 75,5 zena (2013ko % 76k soilik gaintitua), 2016an % 74,8 izatera igaro da. Hala ere, zifra hori 2012. eta 2014. urteetan erregistratutako % 74tik beherako zifren gaintetik gelditu da.

Aintzat hartutako programen barruan (mendekotasuna, adinekoak eta desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonak), oso dinamika desberdinak hauteman daitezke 2015 eta 2016 artean izandako gastuaren bariazioan, zentro, zerbitzu edo programa motaren arabera. Adibidez,

mendekotasunen arloko prestazioetan ikusi da urtetik urterako hazkunde mailarik handienetakoa: % 12,21 (% 10,53 termino konstanteetan). Dinamika hori bestelakoa da prestazio horien arloko gastuak 2014ra arte izandako hazkuntza mugatuarekin alderatuta; hain zuzen ere, urte hartatik aurrera hasi zen gastua lehengoratzten.

Beste muturrean dago etxeko laguntzako, telelaguntzako eta zaintzaileak babesteko programen gastuan izandako hazkundera, 2015-2016ko aldian % 1,01ekoa izan baita soilik; termino konstanteetan, berriz, gastua murriztu egin da egiazki (-% 0,50).

Programa mota horietan, 8. taulan ikus daitekeen bezala, gastua gehien murriztu duen arloa etxeko laguntza da. 2015-2016ko aldian, azken urteotan lehen aldiz gastuak termino arruntetan gora egin badu ere (+% 0,24), termino konstanteetan aurreko aldietan hautemandako joera beherakorrari eusten zaio, -% 1,26ko murrizketarekin. Telelaguntzako gastuak, berriz, zaintzaileak babesteko programekin batera aintzat hartuz, areagotzeko joera bizkortu du eta % 8,19ko gehikuntza izan du 2015 eta 2016 bitartean (+% 6,57 termino konstanteetan).

7. taulara itzuliz, bitarteko postuetan daude, aztertutako aldian, adinekoentzako zentro eta zerbitzuen gastuan izandako hazkundera, % 3,13ko gehikuntzarekin, eta desgaitasuna duten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen gastuan izandakoa, % 3,98ko gehikuntzarekin (+% 1,58 eta +% 2,43 prezio konstanteetan). Gastuaren hazkunderaren maila gizarte-zerbitzuen erdigunearen batez bestekotik behera badago ere, datu horiek finkatu egiten dute zentro mota horietarako gastuak 2012-2016 aldi osoan izandako joera hedakorra.

Haur, gazte eta familien arretara bideratutako zentro, zerbitzu eta programetan egindako gastua, aldiz, horren barruan sartuz genero-indarkeriaren eta tratu txarren aurkako prebentziora eta borrokara bideratutako ekintzak ere, 121,98 milioi eurora iritsi zen 2016an, gizarte-zerbitzuen erdigunera lotutako gastu osoaren % 8,7.

Gastu horren muina hau, gazte eta familiantzako zentro eta zerbitzuei dagokio, gastu osoaren % 5,6 hartzen baitute (78,83 milioi euro). Tratu txarren, harreraren eta adopzioaren arloko arretarako programek eta familiako esku-hartzearen arloko gainerako programek gastuaren % 3 hartzen dute (42,26 milioi). Gainerako % 0,1a genero-indarkeriaren eta tratu txarren biktime direnentzako prestazio ekonomikoena da (% 0,1).

Arreta arlo horretan, 2012-2015 denbora tartean ikusi zenaren antzera, 2015-2016ko aldian ere gastuaren goranzko joera gizarte-zerbitzuen erdigune osokoa baino handiagoa da: % 5,21eko igoera nominala izan zuen (% 3,63 termino konstanteetan).

Kasu honetan ere, ordea, alde handiak daude barnean; 2015-2016 aldiko hazkunderik handiena, % 6,42 (% 4,83 termino konstanteetan), tratu txarren, harreraren eta adopzioaren arloko arretarako programek eta familiako esku-hartzearen arloko gainerako programei dagokie. Horrela, bada, sendotu egin da 2012tik aurrera programa horietan hauteman izan den gastuaren hazkunde indartsurako joera.



7. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta (erdigunea) gastu-sektorearen arabera. 2013-2016
(Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta 2015-2016 aldiko bariazioa, prezio nominaletan eta 2016ko prezioetan)

	Gastua				% bertikalak				2015-2016 aldiko bariazioa	
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	Nominala	2016ko prezioak
	Euro	Euro	Euro	Euro	%	%	%	%	%-tan	%-tan
GASTU MOTA										
GIZARTE ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	1.268.848.885	1.342.285.860	1.333.143.130	1.401.251.572	100	100	100	100	5,11	3,53
Egitura orokorra (defizita/superabita)	59.201.799	97.008.906	67.421.180	81.941.791	4,7	7,2	5,1	5,8	21,54	19,72
Oinarritzko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	88.524.820	97.939.091	100.032.383	103.902.703	7,0	7,3	7,5	7,4	3,87	2,31
EGITURAREN GASTUA	147.726.619	194.947.997	167.453.563	185.844.494	11,6	14,5	12,6	13,3	10,98	9,32
Adinekoentzako zentro eta zerbitzuak	578.035.901	595.989.493	611.830.963	630.951.935	45,6	44,4	45,9	45,0	3,13	1,58
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak	189.316.059	198.896.556	192.715.394	200.394.544	14,9	14,8	14,5	14,3	3,98	2,43
Etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesa	91.816.499	90.206.046	90.064.125	90.974.870	7,2	6,7	6,8	6,5	1,01	-0,50
Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak	105.781.543	106.393.390	111.520.144	125.136.069	8,3	7,9	8,4	8,9	12,21	10,53
MENDEKOTASUNAREN, ADINEKOEN ETA DESGAITASUNEN ARLOKO GASTUA	964.950.002	991.485.485	1.006.130.626	1.047.457.418	76,0	73,9	75,5	74,8	4,11	2,55
Haur, gazte eta familientzako eta emakumeentzako zentro eta zerbitzuak	74.802.455	73.739.818	75.316.250	78.829.668	5,9	5,5	5,6	5,6	4,66	3,10
Tratu txarren, harreraren, adopzioaren arloko arretarako programak eta familiako esku-hartzearen arloko programak	38.718.969	38.668.082	39.708.398	42.258.054	3,1	2,9	3,0	3,0	6,42	4,83
Tratu txarren biktima direnentzako prestazio ekonomikoak	956.881	876.708	922.866	897.156	0,1	0,1	0,1	0,1	-2,79	-4,24
HAUR, GAZTE ETA FAMILIEN ETA EMAKUMEEN (tratu txarrenak barne) ARLOKO GASTUA	114.478.305	113.284.608	115.947.514	121.984.878	9,0	8,4	8,7	8,7	5,21	3,63
BAZTERKERIAREN ARLOKO GASTUA	41.693.959	42.567.770	43.611.427	45.964.782	3,3	3,2	3,3	3,3	5,40	3,82

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzen Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

**8. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta (erdigunea), zentro/zerbitzu motaren arabera. 2013-2016
(Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta 2015-2016 aldiko bariazioa, prezio nominaletan eta 2016ko prezioetan)**

	Gastua				% bertikalak				2015-2016 aldiko bariazioa	
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	Nominala	2016ko prezioak
	%	%	%	%	%	%	%	%	%-tan	%-tan
Zentro/zerbitzu mota										
GIZARTE ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	1.268.848.885	1.342.285.860	1.333.143.130	1.401.251.572	100	100	100	100	5,11	3,53
Egitura orokorra (defizita/superabita)	59.201.799	97.008.906	67.421.180	81.941.791	4,7	7,2	5,1	5,8	21,54	19,72
Oinarriko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	88.524.820	97.939.091	100.032.383	103.902.703	7,0	7,3	7,5	7,4	3,87	2,31
EGITURA	147.726.619	194.947.997	167.453.563	185.844.494	11,6	14,5	12,6	13,3	10,98	9,32
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedenerakoak barne)	521.639.609	538.849.118	552.158.949	569.669.073	41,1	40,1	41,4	40,7	3,17	1,63
Desgaitasunak/gaixotasunak dituztenentzako egoitza-zentroak (atsedenerakoak barne)	104.415.112	110.029.366	113.053.812	117.307.554	8,2	8,2	8,5	8,4	3,76	2,21
Adingabeentzako/familientzako egoitza-zentroak	65.443.863	64.328.161	64.574.190	66.793.735	5,2	4,8	4,8	4,8	3,44	1,89
Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak	5.121.132	5.086.089	5.852.371	6.477.572	0,4	0,4	0,4	0,5	10,68	9,02
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitzak, harrera eta egoitza-zentroak	31.977.917	32.286.265	33.630.796	35.346.655	2,5	2,4	2,5	2,5	5,10	3,53
EGOITZA-ZENTROAK	728.597.633	750.578.999	769.270.118	795.594.589	57,4	55,9	57,7	56,8	3,42	1,87
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak	55.357.409	56.103.109	58.472.319	60.096.117	4,4	4,2	4,4	4,3	2,78	1,24
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	32.914.653	33.319.409	34.899.592	35.334.280	2,6	2,5	2,6	2,5	1,25	-0,27
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako beste eguneko zentro batzuk	45.016.109	47.649.312	36.049.470	38.391.707	3,5	3,5	2,7	2,7	6,50	4,90
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	2.089.770	2.068.144	2.590.978	2.948.756	0,2	0,2	0,2	0,2	13,81	12,10
Gizareratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	7.460.343	8.142.314	8.004.870	8.867.857	0,6	0,6	0,6	0,6	10,78	9,12
EGUNEKO ZENTROAK	142.838.284	147.282.288	140.017.229	145.638.717	11,3	11,0	10,5	10,4	4,01	2,46
ETXEKO LAGUNTZA	84.337.034	82.192.108	81.337.202	81.533.374	6,6	6,1	6,1	5,8	0,24	-1,26
TELELAGUNTZA ETA ZAINZAILLEENTZAKO BABESA	7.479.465	8.013.938	8.726.923	9.441.496	0,6	0,6	0,7	0,7	8,19	6,57
FAMILIAN ESKU HARTZEKO ETA EKITEKO PROGRAMAK	40.866.659	40.925.506	42.007.109	44.867.659	3,2	3,0	3,2	3,2	6,81	5,21
MENDEKOTASUNEN ARLOKO PRESTAZIOAK ETA BESTE BATZUK	106.738.424	107.270.098	112.443.010	126.033.225	8,4	8,0	8,4	9,0	12,09	10,41
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	10.264.767	11.074.926	11.887.976	12.298.018	0,8	0,8	0,9	0,9	3,45	1,90

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizareratze Gastearen Estatistika



Gizarte-zerbitzuen erdiguneko batez bestekoa baino pixka bat baxuagoa izan bada ere, 2015-2016 aldiko hazkundera ere adierazgarria izan da haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuen arloan (+% 4,66koa, +% 3,10ekoa termino konstanteetan). Zentro eta zerbitzu mota horietan ikusitako areagotzeak 2014-2015 aldirian hautemandako joera aldaketa egonkortzen du, 2013-2014 aldirian izandako murrizketa handiaren ondoren. Joera-aldaketa hark 2012-2015 aldirian gastu maila ia guztiz egonkortu izana adierazten zuen, joera gorakor oso arin batekin.

8. taulan ikus daitekeen bezala, bi faktorek azaltzen dute aipatutako dinamika. Batetik, aipagarria da gastuaren hazkundera, 2015 eta 2016 bitartean % 10 nominala gainditzen duena emakumeentzako (genero-indarkeriaren biktimak izan zein ez) zentro eta etxebizitzetan eta emakume, adingabe eta familien kolektiboarentzako eguneko arreta-programetan. Bestetik, aipagarria da, orobat, 2012 eta 2014 urteen artean izandako beherakaden ondoren, gastuaren suspertze-joera finkatu egin dela 2015 eta 2016 urteen artean adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroei dagokienez. 2015-2016ko aldirian, % 3,44 areagotu da mota horretako egoitza-zentroei dagokien gastua (% 1,89 termino konstanteetan).

Hein batean biktimak gehiago bideratu direlako zerbitzu-sistemaren bitartez arreta jasotzera, 2014-2015 aldirian ikusitako hazkundera ez da finkatu 2015-2016ko aldirian, tratatu txarren biktimentzako prestazio ekonomikoetan egiten den gastuari dagokionez. 7. taulak adierazten duen bezala, gastu hori % 2,79 jaitsi da denbora tarte horretan (-% 4,24 termino konstanteetan).

2015ean bezala, 2016an haur, gazte eta familien sektorean egindako gastua gizarte-zerbitzuen erdigunearen gastuak % 8,7 izaten eutsi dio. 2014an % 8,4 berreskuratu ondoren, azken datua 2013ko % 9tik behera dago.

Bazterkeriaren aurkako zentro, zerbitzu eta programen arloko gastua 45,96 milioi eurokoa izan da guztira, gizarte-zerbitzuen erdiguneko guztizko gastuaren % 3,3 besterik ez; gainera ia-ia ez da aldaketarik izan 2013tik, eta 2012ko % 3,1etik pixka bat igo dela besterik ezin da nabarmendu. Sektore horretan gastuaren hazkunde-erritmoa 2015-2016ko aldirian gizarte-zerbitzuen batez bestekoa baino zertxobait altuagoa da, hala ere: % 5,40 (+% 3,82 termino konstanteetan).

Gizarte-zerbitzuetako egituraren gastua guztizkoaren % 13,3 izan da 2016an, 185,44 milioi eurokoa, zehazki. Horietatik, 103,90 milioi, hau da, guztizko gastuaren % 7,4, oinarritzko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta zerbitzu espezializatu orokorrei dagozkie. Gastuaren % 5,8, berriz, egitura orokorrari dagokio, 81,94 milioi, eta partida horren barruan dago urteko emaitza (defizita edo superabita).

2015 eta 2016 artean, gizarte-zerbitzuen egitura egindako gastua nabarmen igo da, % 10,98, hain justu ere (+% 9,32 termino konstanteetan). Hala ere, hazkundera askoz handiagoa da egitura orokorrean (+% 21,54 nominala) oinarritzko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta espezializatutako zerbitzuetan baino (+% 3,87 nominala, +% 2,31 termino konstanteetan). Hala eta guztiz ere, eta 2015-2016ko aldirian batez bestekoa baino gutxiago igo bada ere, 2012-2013 urteetan izandako jaitsiera handiaren ondoren, gastua berreskuratzeko joerari eutsi zaio, 2013an hasi zenetik, oinarritzko zerbitzuetan eta espezializatuetan. 2015eko gastu nominalak (103,90 milioi) 2012ko 105,01 milioien azpitik jarraitzen du oraindik.

Aintzat hartutako zerbitzuen barruan, eta 7. eta 8. tauletan egindako bereizketa alde batera utzita, komeni da aipatzea oinarritzko gizarte-zerbitzuen bilakaera, zentzu hertsian, hobea dela. Oinarritzko egiturako gainerako zerbitzuetan ikusitakoa ez bezala, oinarritzko gizarte-zerbitzuen gastuak

goraka egin zuen etengabe 2012-2015 aldian, eta % 15,2ko hazkundera izan zuen guztira (40,29 milioi 2012an eta 46,43 2015ean). 2014-2015 urteen artean ikusitako gorakada argiaren ostean (+% 7,4), 2015-2016 aldiko dinamikak hazkunde-eritmoaren murrizketa arin bat erakusten du, baina gorako joera argiarekin, oraindik ere, gastua % 4,5 areagotu baita. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen guztizko gastua 48,52 milioi eurora iritsi zen 2016an. Gizarte-zerbitzuen erdigunearen guztizko gastuan, arlo horren pisu erlatiboa 2015ean iritsitako % 3,5ean gelditu da.

Zentro, zerbitzu edo programa motaren ikuspegiari erreparatuta, eta 8. taulan jasotako datuei berriro helduz, gastuaren xede nagusia egoitza-zentroak direla egiazta daiteke. Zentroen gastua 795,59 milioi eurokoa izan zen 2016an, gizarte-zerbitzuen erdigunearen gastu osoaren % 56,8. Zati nagusia adinekoentzako egoitzei dagokie, horiek gastu osoaren % 40,7 hartzen baitute (569,67 milioi). Ehuneko hori 2015eko % 41,4 edo 2013ko % 41,1 baino pixka bat baxuagoa bada ere, 2012ko % 39,6 edo 2014ko % 40,1 baino altuagoa da, argi eta garbi.

Adinekoen egoitzetako gastuaren pisu erlatiboa askoz ere handiagoa da desgaitasunak dituzten pertsonen dagokiena (% 8,4, hau da, 117,31 milioi) eta adingabeei dagokiena (% 4,8, hau da, 66,79 milioi) baino. Beste % 2,5 bazterketa-egoera dauden pertsonentzako etxebizitza, harrera eta egoitzara bideratzen da (35,35 milioi), eta beste % 0,5 emakumeentzako etxebizitza eta egoitzara bideratzen da, genero-indarkeriaren eta tratu txarren arloko arazoekin eta gabe (6,48 milioi).

2014-2015 aldian ez bezala, orduan adingabe, gazte eta familientzako zentroen gastua murriztu egin baitzen, 2015-2016 urteetan egoitza-zentroetarako gastuaren hazkundera arlo guztietan gertatu da. Gorakada nagusia emakumeentzako –genero-indarkeriaren eta tratu txarren arloko arazoekin eta gabe– etxebizitza eta egoitzara bideratutako gastuan izan da, % 10,68ko hazkunderarekin (+% 9,02ko konstantea); horrek zerbitzu mota honek 2012tik izandako ezaugarrietako bat berresten du, hots, batez bestekotik gorako hazkunde-dinamika duela. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroen gastuan, berriz, hazkundera batez bestekora gerturatu da: % 5,10 nominala (+% 3,53 termino konstanteetan).

Adinekoentzako, desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako eta adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroi dagokienez, hazkundera gizarte-zerbitzuen erdiguneari dagokion batez bestekoa baino txikiagoa bada ere, 2015-2016 aldiko areagotzea, termino nominaletan, % 3,17 eta % 3,76 bitartekoa izan da. Adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroen arloan, 2014tik aurrera hasitako lehengoratzeko joera finkatu da; beste egoitza-zentro motetan, berriz, egungo gorako joera geldoagoak 2012-2014 aldian gizarte-zerbitzuen sektorean zegoen batez bestekoa baino altuagoa den hazkunde bati eusten dio.

Orotara, 2015-2016ko aldian egoitza-zentroetan egindako gastua % 3,42 hazi da (+% 1,87 termino konstanteetan), gizarte-zerbitzuen erdigunearen gastuan izandako hazkunde orokorretik behera. Hazkundera txikiagoa izan denez, zerbitzuen arlo horretako gastuaren pisua 2015eko % 57,7tik % 56,8ra jaitsi da, 2016ko % 57,4tik behera. 2012 eta 2014an % 56tik behera zeuden zifren gainetik dago, hala ere.

Zentro, zerbitzu edo programen araberrako gastua aztertuz gero, gastuaren bigarren arlo aipagarria eguneko zentroena da: gastua, guztira, 145,64 milioi eurokoa izan da, hau da, 2015eko gastu osoaren % 10,4. Kasu horretan, desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonen arretarako zentro mota desberdinek biltzen dute gastuaren zatirik handiena, 73,73 milioi, zehazki (guztizkoaren % 5,3). Adinekoentzako eguneko zentroetara bideratutako partida dago bigarren tokian 60,10 milioi eurorekin (guztizkoaren % 4,3). Gainerako % 0,8 adingabe, gazte, familia eta gizarteratze-premiak dituzten pertsonentzako eguneko arretarako zentroi dagokie, 11,82 milioi euro, hain justu ere.



Eguneko zentro guztietan ikusi ahal izan da gastu nominala areagotu dela 2015-2016ko aldian. 2012-2015 urteetan gertatu bezala, hazkunde handiena adingabe, gazte eta familientzako zentroi, eta gizarteratze-premiak dituzten pertsonentzako zentroi dagokie, urte batetik besterako gastuaren areagotze-tasa % 10etik gorakoa baita mota horretako zentroen gastua (+% 13,81 eta +% 10,78, hurrenez hurren).

Gaixotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko beste zentroetan ere (hertsiki laguntza-zentroak ez direnak) batez besteko orokorra gainditu da (+% 6,50); talde horretan daude eguneko zentro okupazionalak³.

2015-2016ko aldian, areagotzea urriagoa da adinekoentzako eguneko laguntza-zentroi dagokienez, % 2,78 nominalarekin (+% 1,24 termino konstanteetan); hala ere, gastuaren gorako joera argiari eusten zaio, zentro mota horietan 2012tik gertatu ohi izan den bezala. Zenbateko nominalai begira desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan gauza bera gertatzen bada ere, kasu horretan % 1,25eko hazkunde nominalak gastua egonkortzeko joera argi bat ezkututzen du, aurreko urteetan izandako areagotzeen ondoren. Horrela, bada, zifra konstanteei erreparatuz gero, 2015-2016ko aldian eguneko zentro horien gastua -% 0,27 jaitsi zela ikusiko dugu.

Espezializatutako zentro, zerbitzu edo programa nagusien artean, hirugarren mota garrantzitsua etxeko laguntza da. 2016an 81,53 milioiko partida jaso zuen, 2015eko 81,34 milioi euroak baino % 0,24 gehiago. Aurrez esan den bezala, termino konstanteetan gastuaren beherako joerari eutsi zaio (2012an hasi zen) etxeko laguntzaren arloan, eta -% 1,26 murriztu da 2015-2016ko aldian. Etxeko laguntzako gastuaren pisua % 6,9tik % 6,1era jaitsi zen gizarte-zerbitzuen erdiguneari dagokion guztizkoarekiko 2012 eta 2015 urteen artean, eta 2016an ere behera egin zuen. Zehazki, guztizkoaren % 5,8 hartu zuen.

3.2.2. Gastuaren aldeak, lurralde historikoaren eta udalerrri multzoen arabera

2016an, gizarte-zerbitzuetako erdigunera bideratutako gastu arrunteko zenbait alderi eutsi zitzaizen lurralde historikoaren arabera; alderdi hori beha daiteke 9. taulan jasotako biztanleko gastuen aldeetan. Gastu handiena Arabako lurralde historikoari dagokio berriz ere: 758,86 euro biztanleko. Ondoren, Gipuzkoari (664,75 euro) eta, azkenik, Bizkaiari (600,79 euro).

Aldeen azalpenaren zati bat 2012-2015 artean gizarte-zerbitzuen erdigunean biztanleko gastua gutxien hazi zen lurralde historikoa Bizkaia izateari zor zaio. Askoz leunago bada ere, joera horri eutsi zaio 2015-2016ko aldian, izan ere, Bizkaian gastuaren hazkundera % 4,84koa izan zen termino nominaletan, Arabako % 5,05 eta Gipuzkoako % 5,53 baino pixka bat txikiagoa. Bistanenez, azken hori izan zen azken urtean gizarte-zerbitzuen arloko gastu arrunta gehien areagotu zuena.

Bizkaiak pisua galtzen jarraitzen du, hortaz, Euskadiko gizarte-zerbitzuen erdigunearen gastu arruntean: 2012an gastuaren % 49,5 zuen eta 2016an, berriz, % 48,8; 2014ko % 48,9 eta 2015eko % 49 baino are gutxiago.

³ Zehaztu behar da kasu honetan, zentro okupazionalen eta enplegu-zentroen arteko jardueraren alboratze-/konbinazio-dinamikak baldintzatzen duela bilakaera; horren ondorioz, benetako egitura-dinamikak irudikatzen ez dituzten aldaketa handiak gerta daitezke (zentro bat enplegu-zentro bereziko plazak soilik eskaintzen hastea, adibidez).

9. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta (erdigunea), lurralde historikoen arabera. 2013-2016
(Gastu nominala milioi eurotan, % bertikalak, BPGdren %, gastua eurotan biztanleko eta gastuaren urte arteko aldaketen %)

Lurralde historikoa	2013				2014				2015				2016				Urte arteko bariazioa %kotan			
	Abs.	%	BPGd %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd %	Gastua/biz.	2013/2014	2014/2015	2015/2016	2013/2016
EAE	1.268,85	100	1,95	582,32	1.342,29	100	2,02	617,75	1.333,14	100	1,95	613,44	1.401,25	100	1,98	645,18	5,79	-0,68	5,11	10,43
Araba	217,57	17,1	2,06	679,33	225,79	16,8	2,09	705,54	232,85	17,5	2,08	723,63	244,61	17,5	2,12	758,86	3,78	3,12	5,05	12,43
Gipuzkoa	427,28	33,7	1,99	603,59	460,06	34,3	2,10	649,23	447,69	33,6	1,98	630,56	472,44	33,7	2,02	664,75	7,67	-2,69	5,53	10,57
Bizkaia	624,01	49,2	1,90	542,24	656,43	48,9	1,95	573,70	652,60	49,0	1,88	571,74	684,21	48,8	1,90	600,79	5,20	-0,58	4,84	9,65

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

10. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta, gastu motaren eta lurralde historikoen arabera. 2016
(2016ko BPGdren % eta 2015-2016 aldiko aldaketen %)

Gastu mota	2016ko BPGd %				2015/2016 aldiko bariazioen %			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
GIZARTE ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	2,12	2,02	1,90	1,98	5,05	5,53	4,84	5,11
Egitura orokorra	0,10	0,09	0,14	0,12	34,83	15,33	21,68	21,54
Egitura espezifikoak	0,21	0,13	0,13	0,15	9,51	1,91	2,41	3,87
EGITURAREN GASTUA, GUZTIRA	0,31	0,23	0,27	0,26	16,39	7,10	11,25	10,98
Adinekoentzako zentro/zerbitzuak	1,00	0,89	0,85	0,89	4,23	2,45	3,17	3,13
Desgaitasunak/gaixotasunak dituztenentzako zentro/zerbitzuak	0,28	0,28	0,29	0,28	3,55	8,08	1,70	3,98
Haur/Gazte/Familia/Emakumeentzako zentro/zerbitzuak	0,14	0,12	0,10	0,11	1,99	3,38	7,02	4,66
Bazterkeria-egoeran daudenentzako zentro/zerbitzuak	0,06	0,07	0,06	0,06	-7,57	3,92	11,28	5,40
ZENTRO ETA ZERBITZUETAKO GASTUA, GUZTIRA	1,48	1,36	1,30	1,35	3,36	3,71	3,49	3,54
Mendekotasunaren arloko programak	0,15	0,12	0,13	0,13	1,23	1,87	0,44	1,01
Familien arloko programak eta beste programa batzuk	0,05	0,07	0,06	0,06	14,40	8,93	2,47	6,42
PROGRAMEN GASTUAK, GUZTIRA	0,20	0,18	0,19	0,19	4,36	4,36	1,05	2,67
Mendekotasunen arloko prestazioak	0,12	0,25	0,15	0,18	1,16	15,95	11,51	12,21
Tratu txarren biktima direnentzako prestazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	-10,68	28,00	-10,96	-2,79
PRESTAZIOEN GASTUAK, GUZTIRA	0,13	0,25	0,15	0,18	0,94	15,99	11,29	12,09

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.



10. taulan ikusten den bezala, Bizkaian xahutzen den BPGdren ehunekoa beste bi lurraldeetako baino baxuagoa da oraindik, 2016an: % 1,90, Gipuzkoan, berriz, % 2,02 eta Araban % 2,12. Gainera, datuek islatzen dute korrelazioa dagoela gastu-mailaren eta biztanleko BPGdren artean (Arabian Gipuzkoan baino handiagoa da, eta Bizkaia hirugarren tokian dago). Horrela, bada, BPGd handiagoarekin, txikiagoa izango da gizarte-zerbitzuen erdigunera bideratutako gastuaren pisu erlatiboa.

Lurraldeen arteko gastu-alde handienak zer zentro, zerbitzu edo programetan hautematen diren aztertzen badira, eta BPGdren aldagaiarekin erlazionatzen badira, hainbat datu osagarri gelditzen dira agerian, 2016an adierazgarriak izaten jarraitzen dutenak. Datu esanguratsuena da Arabako gizarte-zerbitzuetako gastu handiena hiru jarduera-ildo hauekin lotzen dela: zerbitzuon egitura espezifikoak (oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta zerbitzu espezializatuak); adinekoentzako zentro eta zerbitzuak; eta, neurri txikiagoan, haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuak. Arlo horietan, gastuaren eta lurraldeko BPGdren arteko erlazioa % 1,35ekoa da Araban, Gipuzkoakoa (% 1,15) baino 0,20 puntu handiagoa eta Bizkaikoa (% 1,08) baino 0,27 puntu handiagoa.

Alde horiek erakusten dute, hein batean, 2012-2015 artean Araban adinekoentzako eta haur, gazte eta familientzako zentroetako gastuak izandako igoera nabarmena, nahiz eta konpentsatu egiten dituen lurralde horretan, 2012-2013 aldian egitura espezifikoari dagokion zatian gastuaren murrizketa oso esanguratsuak. Horri erantsi behar zaio Araban 2015-2016ko aldian gastua askoz gehiago igo dela oinarrizko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta zerbitzu espezializatuak dagokien arloan (igoera % 9,51koa izan da, Gipuzkoako % 1,91 eta Bizkaiko % 2,41ekin alderatuta), bai eta adinekoentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez ere, nahiz eta alde txikiagoekin (% 4,23 Araban, % 2,45 Gipuzkoan eta % 3,17 Bizkaian). Haur, gazte, familia eta emakumeentzako zerbitzuetan, berriz, aldeak murriztu dira: Araban % 1,99ko igoera izan da, Gipuzkoako % 3,38 eta Bizkaiko % 7,02ko igoeraren azpitik

Arabarekin alderatuta, Gipuzkoak eta Bizkaiak gastuaren alde orokorrak murriztu dituzte mendekotasunen arloko prestazioei dagokienez. Gipuzkoak, 2016an, BPGdren % 0,25 bideratu du, eta partida horrek argi eta garbi gaintzen ditu Araba eta Bizkaiko % 0,12ko eta % 0,15eko zenbatekoak, hurrenez hurren. Horrez gainera, prestazio horietan egindako gastua % 1,16 besterik ez da areagotu barnealdeko lurraldean 2015-2016ko aldian; Bizkaian, ordea, % 11,51 igo da, eta Gipuzkoan % 15,95.

Bizkaiak, bestalde, eutsi egin dio gainerako lurraldeekiko distantziari egitura orokorraren zatian (BPGdren % 0,14; gainerakoek % 0,09 eta % 0,10)⁴.

Gainerako zentro, zerbitzu eta programetan (desgaitasuna/gaixotasuna, bazterkeria, mendekotasunaren, familiaren eta bestelako arloetako programa espezifikoak edo tratatu txarren biktimentzako prestazioak) gastua/BPGd erlazioa oso hurbilekoa da EAEko hiru lurralde historikoetan: % 0,55 Araban, % 0,54 Bizkaian, eta % 0,53 Gipuzkoan.

3.3. Gizarte-prestazioetako gastua

3.3.1. Prestazio motak

Gizarte-prestazioek, oro har, pertsoneri eta familiei eginiko transferentziek, 672,14 milioi euro jaso zituzten guztira 2016an; transferentzia publikoak (669,86 milioi euro) nahiz hirugarren sektoreko erakundeetan eginikoak (2,28 milioi) barne, besteak beste.

⁴ Hein batean, egitura orokorraren barruan dauden lurraldeko erakunde publiko edo pribatuen defizit/superabit faktoreari zor zaio.

Aztertutako gastua diru-sarrerak bermatzeko sistemara bideratu da nagusiki, honako hauetara, hain zuzen: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL). DSBE/EGPO/GLL sistemak 522,10 milioi euroko gastua izan zuen 2016an, autonomia-erkidegoan garatzen diren pertsona eta familientzako transferentzietako gastu osoaren % 77,7 (2015eko % 77,2 baino gehiago).

Gastuaren erdigunea DSBEri dagokio, 401,37 milioi bideratu baitziren 2016an, hau da, guztizko gastuaren % 59,7 (2015eko % 59,6aren antzera). EGPOk 2016an hartutako % 13,5eko zenbatekoak (90,96 milioiko gastua) esan nahi du areagotzea izan dela 2015eko % 13,2tik. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen pisua ere igo egin zen, 2014ko % 4,4ra iritsi baitzen berriro 2016an. Kasu honetan, guztizko gastua 29,76 milioi eurokoa izan zen 2016an.

Prestazio horietan gastu osoaren goranzko joerari eutsi zaio 2015-2016ko aldian termino nominaletan, % 1,20ko igoera izan baita. Termino konstanteetan, ordea, -% 0,31ko jaitsiera gertatu da. Beherakada hori, besteak beste, ekonomia eta enplegua hobetzearen ondorio da, eta DSBEri dagokio soilik, % 0,75eko igoera nominala izan badu ere, termino konstanteetan -% 0,76 jaitsi baita.

EGPO eta GLL prestazioetako gastuak gora egin du, ordea, 2015-2016 urteetan, bai termino nominaletan eta bai prezio konstanteetan ere. Igoera handiena EGPOri dagokio, % 2,77ko areagotze nominalarekin (% 1,23 termino konstanteetan). GLL prestazioaren igoera antzekoa da, % 2,57 termino nominaletan, eta % 1,04 prezio konstanteetan. 2015 eta 2016 artean, hazkunde-eritmo horiek txikiagoak dira, hala ere, gizarte-zerbitzuen erdigunekoak baino.

Diru-sarrerak bermatzeko sisteman izandako gastu-dinamikak aldaketa adierazgarria islatzen du 2016 eta 2015 urteen artean gastu mota horretan hautemandako aldaketen barne-egituran. Hartara, barne-banaketa aintzat hartuta, aldi horretan DSBE/EGPO/GLL sisteman hauteman den igoera nominal handiena EGPO eta GLL prestazioei egotz dakieke; 2012-2015 aldian ez bezala, orduko hartan gastuaren areagotze absolutuaren % 66,2 DSBE prestazioari baitzegokion, eta % 33,8 EGPO eta GLL prestazioei; hala, 2015 eta 2016 arteko aldiko igoera bi prestazio hauei dagokie. Zehazki, EGPO eta GLL prestazioek biltzen dute 2015-2016 aldiko igoera nominalaren % 51,6, zenbatekotan 6,2 milioi euro (% 39,6 bildu du EGPOk eta % 12,1 GLLk). DSBE prestazioari dagokio aipatutako igoeraren gainerako % 48,4.

LISMI, GOF eta, funtsean, kotizatu gabeko pentsioen (KGP) gastua bigarren tokian agertzen da, distantzia handira badago ere. 2016an, pertsona eta familientzako transferentzietara bideratutako guztizko gastuaren % 9,2 hartu zuten (61,90 milioi euro), 2015eko % 9ren gainetik, baina 2013an iritsitako gehieneko % 9,7tik urruti. Gastua % 2,77 areagotu da 2015-2016ko aldian (% 1,23 termino nominaletan), baina multzoaren barruko alde nabarmenekin. Horrela, LISMI prestazioetako gastua -% 10,97 murriztu den bitartean (-% 12,30 termino konstanteetan), GOF/KGP partida % 2,92 areagotu da (% 1,38 prezio konstanteetan).

Hirugarren gastu-arloa familientzako prestazioena da. 2016an, gastu hori 55,82 milioi eurokoa izan zen, transferentzietako gastuaren % 8,3, 2015eko % 8,8ren azpitik. Bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzeko gastua 29,32 milioikoa izan zen (guztiaren % 4,4), eta 26,50 bideratu ziren familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoetara (guztiaren % 3,9).



11. taula. Gizarte-prestazioak (familientzako transferentziak) 2013-2016
(Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta 2015-2016 aldiko bariazioa, prezio nominala eta 2016ko prezioetan)

	Datu absolutuak				% bertikalak				2015-2016 aldiko bariazioa	
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	Nominala	2016ko prezioak
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%-tan	%-tan
Prestazio mota										
GIZARTE-PRESTAZIOAK, GUZTIRA	577.980.157	637.253.306	668.198.661	672.142.270	100	100	100	100	0,59	-0,92
LISMI	783.322	700.864	641.401	571.052	0,1	0,1	0,1	0,1	-10,97	-12,30
KGP/GOF	55.492.302	57.627.448	59.587.446	61.327.170	9,6	9,0	8,9	9,1	2,92	1,38
LISMI/KGP/GOF, GUZTIRA	56.275.624	58.328.312	60.228.847	61.898.222	9,7	9,2	9,0	9,2	2,77	1,23
Diru-sarrerak bermatzeko errenta:										
EPO	359.329.986	388.123.359	398.372.575	401.369.381	62,2	60,9	59,6	59,7	0,75	-0,76
GLL	75.876.124	84.277.514	88.510.073	90.964.126	13,1	13,2	13,2	13,5	2,77	1,23
DSBE/EGPO/GLL, GUZTIRA	459.391.453	500.520.544	515.895.522	522.093.457	79,5	78,5	77,2	77,7	1,20	-0,31
Familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak										
Familia eta lana bateragarri egitea	20.365.805	29.649.024	27.713.936	26.502.437	3,5	4,7	4,1	3,9	-4,37	-5,80
FAMILIA ARLOKO PRESTAZIOAK, GUZTIRA	37.230.957	46.951.991	59.016.731	55.819.362	6,4	7,4	8,8	8,3	-5,42	-6,83
Gizarte-urgentziako laguntzak										
Beste prestazio ekonomiko batzuk	4.209.546	4.703.561	8.564.361	2.063.577	0,7	0,7	1,3	0,3	-75,91	-76,27
BESTE PRESTAZIO BATZUK, GUZTIRA	20.548.822	27.318.791	28.388.463	30.047.205	3,6	4,3	4,2	4,5	5,84	4,26
PRESTAZIO PUBLIKOEN GASTUAK, GUZTIRA	573.446.856	633.119.638	663.529.563	669.858.246	99,2	99,4	99,3	99,7	0,95	-0,56
Familientzako transferentzia pribatuak										
FAMILIENTZAKO TRANSFERENTZIA PRIBATUETAKO GASTUA, GUZTIRA	4.533.301	4.133.668	4.669.098	2.284.024	0,8	0,6	0,7	0,3	-51,08	-51,82

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

Datu adierazgarria da prestazio horiei dagokien gastuan izandako parte-hartzeak garrantzia galdu duela; beste modu batean esanda, 2012an prestazio horiek transferentzia guztien % 12,5 izatera iritsi ziren, 72,17 milioi euroko gastuarekin. Arrazoi nagusia da prestazio horien gastuak beherakada izan zuela 2012 eta 2013 bitartean eta, beherakada horren ondorioz, partida horiek gastu osoaren % 6,4ko ekarpena jaso zutela soilik. 2013 eta 2015 artean hein batean lehengoratu bazen ere, 2015ean familia-arloko prestazioetako gastuak 2012koa baino % 18,2 txikiagoa izaten jarraitzen zuen. 2015-2016 aldiko dinamika gastua murriztean datza oraindik, prestazio horien partida -% 5,41 jaitsi baita (-% 6,83 termino konstanteetan); horrek azaltzen du gastuan duten pisu erlatiboa ere jaitsi izana (2015eko % 8,8tik 2016ko % 8,3ra).

Gainerako prestazio publikoek, gizarte-larrialdiko laguntzek eta beste prestazio ekonomiko batzuek 30,05 milioi euro hartu zituzten. Kasu horretan, 2015-2016 aldiko joera koherentea da 2012-2015 aldiko ezaugarri nagusia izan zen gastuaren igoera deigarriarekiko. Horrela, % 5,84ko igoera erregistratu da partida horretan 2015 eta 2016 artean (% 4,26 termino konstanteetan). Hain zuzen, gastuan duten partaidetza 2012an % 2,6 izatetik 2015ean % 4,2 izatera igaro zen, eta % 4,5era 2016an.

Dinamika hori bateragarria da partiden jomugan izandako barne-aldaketa garrantzitsu batekin. Izan ere, gizarte-larrialdiko laguntzek 2014 eta 2015 artean igoera nabarena izan ondoren, % 75,9 jaitsi ziren 2015-2016ko aldian; beste prestazio ekonomiko batzuetan, berriz, gastua % 41,16 areagotu zen⁵.

Gobernuz kanpoko erakundek pertsoneri eta familiei eginiko transferentziak 2,28 milioi eurokoak izan ziren guztira, aztertutako gastu osoaren % 0,3; hau da, 2015eko % 0,7ren azpitik, bai eta 2012ko % 0,9ren azpitik ere.

3.3.2. Gastuaren aldeak, lurralde historikoaren eta udalerrri multzoen arabera

Prestazioetako gastuaren datuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero, interes nabarmeneko aldeak jartzen dira agerian. Araudi komunari lotuta egon arren, eta pobrezia-errealitate desberdinek baldintzatu arren, hasteko deigarria da gastuak DSBEn eta EGPOn duten eragin oso desberdina.

Partida horietan, gastu handiena Bizkaian egin zen (lurraldeko BPGdren % 0,82), eta, ondoren, Araban (% 0,72). Gipuzkoa, aldiz, oso urrun geratzen da, BPGdrekiko gastuaren % 0,49 batekin. Hala eta guztiz ere, 2012-2015 aldian gertatu zen bezala, 2015-2016ko aldian ere Gipuzkoan handitu zen gastua gehien, bai DSBEn (% 3,12ko areagotze nominala; Araban % 1,85ekoa eta Bizkaian -% 0,41eko murrizketa), bai eta, modu berezian, EGPOn (% 5,84; Araban % 1,92 eta Bizkaian % 1,79).

Gipuzkoako gastu txikiago hori zuzenean lotuta dago aldi horretan lurralde horretan beste prestazio batzuetan eginiko ahalegin bereizgarriarekin, besteak beste, 2016an oraindik hein batean indarrean dagoen Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzetan (DSBL), prestazio mota horretan gastatu baita BPGdren % 0,09; Araban, berriz, % 0,05 xahutu dute prestazio mota horietan, eta Bizkaian % 0,01. 2012 eta 2015 bitartean izandako areagotze handiaren ostean, aztertutako aldian partida horien areagotze-erritmoa murriztu da Gipuzkoan, 2016an DSBL hein batean kentzearen ondorioz, besteak beste. Hartara, gastua % 2,7 nominala areagotu da 2015-2016ko aldian.

⁵ Partiden definizioan izandako ausazko aldaketak aintzat hartuz, alde horiek kontuz aztertu behar dira. Izatez, hobe da beste prestazio batzuetako gastuaren hurbilketa bateratua egitea.



2015-2016 aldiaren datu aipagarrietako bat da hiru lurralde historikoek GLL prestazioetan egiten duten gastua baliokidea izan zela 2016an, BPGdren % 0,04koa, hain zuzen. 2015-2016ko aldian Araban izandako gastuaren jaitsiera nabarmenak (-% 6) eragin du batik bat berdinketa hori. Aldaketa deigarria da, Araban 2012tik 2015era partida horri dagokion gastuan izandako areagotze-joera bereizgarria hausten duena (urte horietan % 109,8 areagotu zen lurralde historiko horretan; Gipuzkoan % 71 eta Bizkaian % 43,6). Araban beste prestazio batzuetan izandako gorakada handiak konpentsatu egiten du, ordea, baita kuantitatiboki ere, GLL prestazioen gastuak izandako jaitsiera; horrek agerian uzten du aldatu egin dela lurralde honetan larrialdi-egoeretara bideratutako partidekin lotutako gastuaren barne-egitura.

Aldeak askoz ere txikiagoak izaten jarraitzen dute, bestalde, KGPetan eta GOFen, gastua handixeagoa izan arren Bizkaian: % 0,10; aldiz, Gipuzkoan % 0,08 eta Araban % 0,07.

12. taula. Gizarte-prestazioetako gastua (familienzako transferentziak), lurralde historikoaren arabera. 2016 (BPGd % eta 2015-2016 aldiko aldaketen %)

	2016ko BPGd %				2015/2016 aldiko bariazioen %			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
GIZARTE-PRESTAZIOAK, GUZTIRA	0,99	0,77	1,05	0,95	3,15	2,06	-0,83	0,59
LISMI	0,00	0,00	0,00	0,00	-8,17	-16,27	-8,25	-10,97
KGP/GOF	0,07	0,08	0,10	0,09	6,47	4,26	1,50	2,92
LISMI/KGP/GOF, GUZTIRA	0,07	0,08	0,10	0,09	6,29	4,01	1,41	2,77
Diru-sarrerak bermatzeko errenta:	0,59	0,39	0,67	0,57	1,85	3,12	-0,41	0,75
EPO	0,13	0,09	0,15	0,13	1,92	5,84	1,79	2,77
GLL	0,04	0,04	0,04	0,04	-6,00	5,74	3,97	2,57
DSBE/EGPO/GLL, GUZTIRA	0,77	0,52	0,87	0,74	1,36	3,79	0,18	1,20
Familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak	0,04	0,04	0,03	0,04	6,59	-5,19	-7,75	-4,37
Familia eta lana bateragarri egitea	0,05	0,04	0,04	0,04	-3,03	-8,54	-6,24	-6,34
FAMILIA ARLOKO PRESTAZIOAK, GUZTIRA	0,10	0,08	0,07	0,08	1,20	-6,92	-6,95	-5,42
Gizarte-urgentziako laguntzak	0,00	0,00	0,00	0,00	-94,74	-76,24	20,64	-75,91
Beste prestazio ekonomiko batzuk	0,05	0,08	0,01	0,04	702,34	22,05	-11,90	41,16
BESTE PRESTAZIO BATZUK, GUZTIRA	0,05	0,09	0,01	0,04	28,84	2,70	-5,24	5,84
PRESTAZIO PUBLIKOEN GASTUAK, GUZTIRA	0,98	0,77	1,05	0,95	2,81	2,49	-0,30	0,95
Familienzako transferentzia pribatuak	0,01	0,00	0,00	0,00	73,58	-95,89	-60,34	-51,08
FAMILIENTZAKO TRANSFERENTZIA PRIBATUETAKO GASTUA, GUZTIRA	0,01	0,00	0,00	0,00	73,58	-95,89	-60,34	-51,08

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika



4. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuaren finantzaketa

Txostenaren atal honetan, gizarte-zerbitzuetako eta horiekin lotutako gizarte-prestazioetako gastu arrunt osoaren finantzaketa-egitura aztertzen da. Azterketaren ardatza zentro/zerbitzu motak eta prestazio motak dira berriro ere, bai eta lurraldearen alderdi osagarriak ere. Hurbilketak zehatz-mehatz ezartzen du, gainera, erabiltzaileen partaidetza eta foru-aldundiek eta udalek finantzaketan duten eginkizuna.

4.1. Finantzaketaren alderdi orokorrak

Gizarte-zerbitzuen erdigunea eta gizarte-prestazioak elkarrekin aztertuta, 13. taulan egiazta daiteke foru-aldundiak direla sistemaren finantzatzaile nagusiak. 2016an gastu arruntaren % 41,1 finantzatu zuten; zenbateko hori gertu dago 2014an izandako % 41,2ko gehiengotik. Ekarpena % 5,29 areagotu zen 2015 eta 2016 bitartean, batez besteko % 3,60ko gehikuntzaren gainetik.

Eusko Jaurlaritza da bigarren finantzaketa-iturria. 2012tik hona izandako mailarik altuenetan eutsi dio 2016an ere, % 30,9ko gehikuntzarekin, aintzat hartuta aurreko urtean (2015) % 31koa izan zela. Sistemaren finantzaketari egiten dion ekarpena % 3,24 igo da 2015-2016ko aldian, batez bestekoa baino zertxobait gutxiago.

Arlo publikoan udalen ekarpena agertzen da hirugarren postuan (% 8,6) 2012ko % 8,7tik 2015eko % 9,3ra igo ondoren, 2016ko datua aldaketa nabarmena da, udalen ekarpen erlatiboa bere mailarik baxuenera daramana 2012tik hona. Udalen finantzaketa -% 4,04 murriztu da, hain zuzen ere, 2015 eta 2016 urteen artean.

13. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta, finantzaketa-iturriaren arabera. 2013-2016
(Datu absolutuak milioi eurotan, ehuneko bertikalak eta 2015-2016 aldiko bariazioa ehunekotan)

Finantzaketa-iturriak	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015-2016 aldiko bariazioa %-tan
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Finantzaketa-iturriak									
Gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak	1.846,83	1.979,54	2.001,34	2.073,39	100	100	100	100	3,60
Erkidegoz gaidikoa	81,12	53,28	64,17	72,46	4,4	2,7	3,2	3,5	12,91
Autonomia-erkidegokoa	539,23	609,38	620,21	640,29	29,2	30,8	31,0	30,9	3,24
Foru Aldundikoa	749,92	814,93	809,83	852,71	40,6	41,2	40,5	41,1	5,29
Udalekoa	165,48	177,23	185,58	178,07	9,0	9,0	9,3	8,6	-4,04
Pribatua	311,08	324,72	321,55	329,87	16,8	16,4	16,1	15,9	2,59
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1.268,85	1.342,29	1.333,14	1.401,25	100	100	100	100	5,11
Erkidegoz gaidikoa	81,12	53,28	64,17	72,46	6,4	4,0	4,8	5,2	12,91
Autonomia-erkidegokoa	47,46	69,54	52,45	68,77	3,7	5,2	3,9	4,9	31,12
Foru Aldundikoa	681,98	739,66	732,59	774,01	53,7	55,1	55,0	55,2	5,65
Udalekoa	151,75	159,22	167,05	158,43	12,0	11,9	12,5	11,3	-5,16
Pribatua	306,54	320,59	316,89	327,58	24,2	23,9	23,8	23,4	3,38
Gizarte-prestazioak	577,98	637,25	668,20	672,14	100	100	100	100	0,59
Erkidegoz gaidikoa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	
Autonomia-erkidegokoa	491,77	539,84	567,76	571,52	85,1	84,7	85,0	85,0	0,66
Foru Aldundikoa	67,94	75,27	77,24	78,70	11,8	11,8	11,6	11,7	1,88
Udalekoa	13,73	18,01	18,53	19,64	2,4	2,8	2,8	2,9	6,02
Pribatua	4,53	4,13	4,67	2,28	0,8	0,6	0,7	0,3	-51,08

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

Erkidegoz gaindiko finantzaketak, berriz, gorako joerari eusten dio. Partaidetza erlatiboa 2013an % 4,4koa izatetik 2014an % 2,7ra jaitsi ondoren, 2016an eutsi egin zaio 2014. eta 2015. urteetan hasitako berreskuratzeko joerari, sistemari egindako ekarpen erlatiboa % 3,5ekoa izan baita. Termino nominaletan, guztizko gastuaren finantzaketak erkidegoz gaindi izandako ekarpena (mendekotasunaren arloko sistemari dagokiona, batik bat) % 12,91 areagotu da 2015etik 2016ra.

Sektore pribatuari dagokio gastuaren finantzaketaren gainerako % 15,9. 2015 eta 2016 urteetan ere luzatu da 2013an iritsitako gehiengotik (% 16,8) gertatutako beherako dinamika. Izatez, 2016ko ekarpen erlatiboa 2012tik izandako baxuena da. Gastuaren finantzaketa pribatua % 2,59 soilik areagotu da termino nominaletan 2015-2016ko aldian.

4.2. Gizarte-zerbitzuen erdigunearen finantzaketa

Zerbitzu eta prestazio guztiak batera aztertzean ikusitakoarekin alderatuta, 13. taulak erakusten du foru-aldundien finantzaketak pisu handiagoa duela, gizarte-zerbitzuen erdigunean hura nagusitzen delarik, hain zuzen ere. Zehazki, foru-aldundiek % 55,2ko ekarpena egin diote gastuari 2016an. 2014 eta 2015 urteetan izandako zenbatekoen antzekoa bada ere, mailarik altuenera iritsi da, 2012ko % 53,5etik. 2015. urtetik 2016.era, % 5,65 igo da foru erakundeek gizarte-zerbitzuen erdigunearen finantzaketari egiten dioten ekarpen absolutua.

Udalek, berriz, % 11,3ko ekarpena egin diote gizarte-zerbitzuen erdigunearen finantzaketari 2016an. Datu hori 2012tik erregistratutako ehunekorik txikiena da. Aurreko datu minimoa 2014koa zen (% 11,9). Gizarte-zerbitzuen erdiguneari egindako ekarpen absolutua -% 5,16 murriztu da, egiazki, 2015 eta 2016 bitartean.

Gizarte-zerbitzuen erdigunean, erkidegoen ekarpena guztiaren % 4,9 besterik ez da 2016an, eta erkidegoz gaindiko erakundeei dagokien % 5,2ren azpitik dago Hala eta guztiz ere, ehuneko horiek igoera nabarmena erakusten dute 2015eko zifrekin alderatuta (% 3,9 eta % 4,8, hurrenez hurren), eta iraganean lortutako gehiengoetara gerturatzen dira, bereziki Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 2016ko % 4,9 2014ko % 5,2tik gertu baitago (2016ko % 5,2 urrutiago dago, ordea, estatuko eta Europako erakundeei dagokien 2013ko % 6,4tik). Goranzko joera hori diruzko ekarpenaren gorakada garrantzitsuarekin lotuta dago, nolnahi ere, 2015 eta 2016 artean % 31,12 igo baita erkidegoz gaindiko erakundeetan, eta % 12,91 erkidegoko erakundeei dagokien zatian.

Finantzaketa pribatua % 23,4 izan zen, eta beherakada jarraitua izan du 2013ko % 24,2tik; 2016ko proportzioa, hala ere, 2012ko % 23,5 baino baxuagoa da. Zenbateko absolutuei erreparatuz gero, ekarpen pribatuak gorako joera du, 2015 eta 2016 bitartean % 3,38 igo baita. Pisu erlatiboa jaitsi izanaren arrazoia da ekarpenaren hazkuntza urriagoa izan dela foru-aldundiei, Eusko Jaurlaritzari eta erkidegoz gaindiko erakundeei dagokiena baino.

4.2.1. Arloa eta zentro/zerbitzu mota

14. taulan ikusi daitekeen bezala, gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean (sektoreko zerbitzu orokorrak), foru-aldundiek egiten dute oraindik finantzaketa nagusiki (% 47). 2012 eta 2013 artean % 45,5etik % 54,1era igo ondoren, orduz geroztik beherantz egin du, eta 2015-2016ko aldian joera horri eutsi zaio. Hala eta guztiz ere, % 18,64 areagotu da foru-aldundien gastua egitura orokorrean.

Esparru horretan, erkidegoen finantzaketaren pisua nabarmentzekoa da: 2016an % 43,3ra iritsi da, hots, 2012tik izandako ehunekorik altuenera. 2015 eta 2016 artean, egitura orokor horretan



egindako gastua % 48,05 areagotu da autonomia-erkidegoan. Udalen ekarpena, ordea, % 8,1 jaitsi da, eta esparru horretan egitura orokorrean egindako gastua -% 28,35 murriztu da.

Erkidegoz gaindiko finantzaketarik ez da izan ia gizarte-zerbitzuen esparru horretan, eta % 1,7 finantzaketa pribatuari egotz dakioke.

14. taula. Gizarte-zerbitzuen egiturako gastu arrunta, finantzaketa-iturriaren arabera 2013-2016 (Datu absolutuak milioi eurotan, ehuneko bertikalak eta 2015-2016 aldiko bariazioa ehunekotan)

Gastu-sektorea	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015-2016 aldiko bariazioa
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
EGITURA, GUZTIRA	147,73	194,95	167,45	185,84	100	100	100	100	10,98
Erkidegoz gaindikoa	0,24	0,09	0,55	0,04	0,2	0,0	0,3	0,0	-92,01
Autonomia-erkidegokoa	24,17	44,42	27,46	40,27	16,4	22,8	16,4	21,7	46,67
Foru Aldundikoa	74,52	98,09	81,62	89,86	50,4	50,3	48,7	48,4	10,10
Udalekoa	47,48	51,35	56,55	53,43	32,1	26,3	33,8	28,8	-5,52
Pribatua	1,32	0,98	1,27	2,24	0,9	0,5	0,8	1,2	76,14
Egitura orokorra (defizita/superabita)	59,20	97,01	67,42	81,94	100	100	100	100	21,54
Erkidegoz gaindikoa	0,14	0,02	0,55	0,03	0,2	0,0	0,8	0,0	-95,26
Autonomia-erkidegokoa	20,06	40,25	23,94	35,44	33,9	41,5	35,5	43,3	48,05
Foru Aldundikoa	32,03	49,21	32,44	38,49	54,1	50,7	48,1	47,0	18,64
Udalekoa	5,69	6,92	9,22	6,61	9,6	7,1	13,7	8,1	-28,35
Pribatua	1,29	0,60	1,27	1,38	2,2	0,6	1,9	1,7	8,69
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-urgentziak eta espezializatuak	88,52	97,94	100,03	103,90	100	100	100	100	3,87
Erkidegoz gaindikoa	0,11	0,07	0,00	0,02	0,1	0,1	0,0	0,0	
Autonomia-erkidegokoa	4,10	4,17	3,52	4,83	4,6	4,3	3,5	4,6	37,30
Foru Aldundikoa	42,49	48,88	49,18	51,38	48,0	49,9	49,2	49,4	4,46
Udalekoa	41,79	44,43	47,33	46,82	47,2	45,4	47,3	45,1	-1,08
Pribatua	0,03	0,38	0,00	0,86	0,0	0,4	0,0	0,8	

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekinizaren Estatistika eta Gizarte Ekiniza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

Oinarrizko gizarte-zerbitzuei dagokienez, foru-aldundien eta udalen finantzaketa da oraindik nagusi 2016an.

Foru-aldundien kasuan, haien ekarpenak oinarrizko egitura horren gastuaren % 49,4 estaltzen du. Ehuneko hori 2013ko % 48 eta 2014ko % 49,9ren bitartean dago, baina nabarmen urruti 2012ko % 56,1etik. Izatez, 2013tik aurrera foru-aldundiek oinarrizko zerbitzuei eta zerbitzu espezializatuari egindako ekarpen absolutuak gora egin badu ere (2015 eta 2016 bitartean % 4,46ko igoera erantsiarekin), 2016ko ekarpena, zenbateko absolutuetan, 2012koa baino urriagoa da (51,38 milioi, 58,93 milioiren aldean).

Udalen ekarpena, berriz, 2015ean % 47,3ra igo ondoren (2012an % 38koa zen), ehunekoak behera egin du 2016an, % 45,1era. Kopuru hori ez da gehiegi aldentzen 2014ko % 45,4tik, baina gastuaren dinamika desberdina da, argi eta garbi. Izan ere, udalek oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan egiten duten gastuak gorako joera izan zuen 2012 eta 2015 artean (39,90 milioitik 47,33 milioira igo zen); 2015-2016ko aldian, berriz, -% 1,08ko jaitsiera izan da, egungo 46,82 milioiko gastura iritsi arte. Termino nominaletan 2012tik izandako bigarren ekarpenik altuena bada ere, esparru horretan ikus daiteke gizarte-zerbitzuen arloko udal gastuak beherako joera duela. Beherakada hori hein batean orekatzen du erkidegoaren ekarpenak izandako hazkundeak (+% 37,30), baina ez guztiz, azken ekarpen horrek aztertutako gastu motaren % 4,6 soilik estaltzen baitu.

15. taulak adinekoentzako, desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketa-egitura aurkezten du. Taula horrek erakusten du, orotara, foru-aldundiek finantzatzen dutela sektoreko gastuaren % 54,1, 2014 eta 2015 urteetako zifren gainetik (% 53,5 ingurukoak). Hain zuzen ere, 2012ko % 51,2tik aurrera izandako ehunekorik altuena da, eta foru-aldundiek aztertutako zentro, zerbitzu eta programen finantzaketan duten partaidetzaren gorako joera finkatzen du. 2015etik 2016ra, foru-aldundien finantzaketa % 5,29 areagotu da esparru horretan.

Beste muturrean, ordea, eta 2015-2016ko aldian finantzaketan izandako -% 8,63ko jaitsieraren ondorioz, udalen ekarpena % 6,9ra jaitsi zen 2016an. Horren ondorioz, 2012 eta 2015 urteen artean erregistratutako egonkortasun erlatiboko joera hautsi da (parte-hartzea % 7,6 eta % 8,1 bitartean izan zen).

15. taula. Adinekoentzako, desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen gastu arrunta, finantzaketa-iturriaren arabera. 2013-2016 (Datu absolutuak milioi eurotan, ehuneko bertikalak eta 2015-2016 aldiko bariazioa ehunekotan)

Gastu-sektorea	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015-2016 aldiko bariazioa
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
MENDEKOTASUNAREN, ADINEKOEN ETA DESGAITASUNEN ARLOA, GUZTIRA	964,95	991,49	1006,13	1047,46	100	100	100	100	4,11
Erkidegoz gaidikoa	80,75	52,98	63,34	70,77	8,4	5,3	6,3	6,8	11,74
Autonomia-erkidegokoa	14,45	15,47	15,55	19,13	1,5	1,6	1,5	1,8	23,01
Foru Aldundikoa	496,97	532,66	538,27	566,74	51,5	53,7	53,5	54,1	5,29
Udalekoa	73,70	77,37	79,05	72,23	7,6	7,8	7,9	6,9	-8,63
Pribatua	299,09	313,01	309,92	318,59	31,0	31,6	30,8	30,4	2,80
Adinekoentzako zentro eta zerbitzuak	578,04	595,99	611,83	630,95	100	100	100	100	3,13
Erkidegoz gaidikoa	39,63	27,53	36,09	38,52	6,9	4,6	5,9	6,1	6,73
Autonomia-erkidegokoa	0,20	0,34	0,16	3,52	0,0	0,1	0,0	0,6	2155,31
Foru Aldundikoa	244,59	266,26	268,36	275,36	42,3	44,7	43,9	43,6	2,61
Udalekoa	37,88	35,28	36,65	34,25	6,6	5,9	6,0	5,4	-6,55
Pribatua	255,74	266,59	270,57	279,30	44,2	44,7	44,2	44,3	3,22
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak	189,32	198,90	192,72	200,39	100	100	100	100	3,98
Erkidegoz gaidikoa	16,52	12,80	13,90	16,62	8,7	6,4	7,2	8,3	19,53
Autonomia-erkidegokoa	9,46	9,95	9,27	9,00	5,0	5,0	4,8	4,5	-2,99
Foru Aldundikoa	129,43	138,67	140,93	146,45	68,4	69,7	73,1	73,1	3,91
Udalekoa	1,43	2,03	0,58	0,82	0,8	1,0	0,3	0,4	40,60
Pribatua	32,48	35,46	28,02	27,52	17,2	17,8	14,5	13,7	-1,82
Etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesa	91,82	90,21	90,06	90,97	100	100	100	100	1,01
Erkidegoz gaidikoa	9,65	2,94	2,93	3,42	10,5	3,3	3,3	3,8	16,82
Autonomia-erkidegokoa	4,79	5,18	6,12	6,61	5,2	5,7	6,8	7,3	7,96
Foru Aldundikoa	32,12	31,06	27,88	32,05	35,0	34,4	31,0	35,2	14,96
Udalekoa	34,39	40,06	41,82	37,13	37,5	44,4	46,4	40,8	-11,21
Pribatua	10,87	10,97	11,32	11,77	11,8	12,2	12,6	12,9	3,97
Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak	105,78	106,39	111,52	125,14	100	100	100	100	12,21
Erkidegoz gaidikoa	14,94	9,72	10,42	12,22	14,1	9,1	9,3	9,8	17,25
Autonomia-erkidegokoa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	
Foru Aldundikoa	90,84	96,67	101,10	112,89	85,9	90,9	90,7	90,2	11,66
Udalekoa	0,00	0,00	0,00	0,03	0,0	0,0	0,0	0,0	
Pribatua	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika



Erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpenak 2016an aztertutako gastuaren % 6,8 estaltzen du. 2014an erregistratutako gutxienez (% 5,3) igo bada ere, egungo zenbatekoa 2012 eta 2013 urteetakoak baino urriagoa da (% 8,2 eta % 8,4). Hala ere, termino absolutuetan, erkidegoz gaindiko finantzaketak gorako joera du 2015-2016ko aldirian, eta % 11,74 egin du gora. Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa, berriz, 2015 eta 2016 bitartean % 23,01 areagotu bada ere, ekarpenak % 2aren azpitik (% 1,8) eutsi dio 2016an.

Gizarte-zerbitzuen esparru honetan finantzaketa pribatuaren pisua nabarmena da: % 30,4ra iritsi zen 2016an. Behera egin du, ordea, 2012 eta 2014ko datuekin alderatuta (% 31 eta % 31,6). Ekarpene absolutua % 2,80 areagotu zen 2015 eta 2016 bitartean, sektoreko batez besteko % 4,11ren azpitik.

Sektorearen barruan izandako jarduketara mota desberdinak aztertuz gero, ondoriozta daiteke foru-aldundien finantzaketaren pisuak gailurra jotzen duela mendekotasunaren arloko prestazioetan, % 90,2ko ekarpenarekin. Arlo horretan, foru-aldundiek egindako ekarpena % 11,66 areagotu da 2015-2016ko aldirian.

Finantzaketaren gainerako % 9,8 erkidegoz gaindiko erakundeei dagokie, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren ekarpenen bidez, funtsean. Ekarpene hori 2013an lortutako % 14,1 baino askoz ere baxuagoa da. Horrek krisialdirian mendekotasunaren arlorako izandako jaitsiera handia jartzen du ikusgai: 2012an eta 2013an 13,20 eta 14,94 milioi euro izatetik, 2014an 9,72 eta 2015ean 10,42 izatera igaro da. 2016ko 12,22 milioi euroak, ordea, % 17,25eko igoera dakarte 2015eko zenbatekoaren aldean, eta 2014tik aurrera hasitako berreskuratzeko joerari eusten diote.

Foru-aldundiek parte-hartze handia duten beste arlo bat desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen da. Kasu horretan, foru-aldundien finantzaketa % 73,1 izatera iritsi zen 2016an, 2015ean bezala, baina igoera nabarmenarekin 2012 eta 2014 arteko % 68,4tik % 69,7ra bitarteko zenbatekoen aldean. Foru-aldundien ekarpena % 3,91 areagotu da 2015etik 2016ra.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzte pertsonen arretari dagokionez, erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpena % 8,3 izan zen 2016an. Ehuneko horrek gora egin du 2014ko % 6,4tik baina, hala ere, 2012an izandako % 9,7 baino urriagoa da. Zenbateko absolutuetan, gastua 2012ko 17,25 milioi eurotik 2014ko 12,80 milioira jaitsi zen. 2015etik 2016ra gastu hori % 19,53 areagotu ondoren, 2016ko 16,62 milioiak dira 2013tik erregistratutako zenbatekorik altuena, ez hain urruti, dagoeneko, 2012ko zenbatekotik.

2016an, erkidegoko erakundeek ekarpena % 4,5ekoa izan zen. Horrek islatzen du 2015-2016ko aldirian izandako gastuaren beherakada (-% 2,99) eta luzatu egiten du 2012ko % 5,4tik izandako beherako joera. Udalen ekarpena % 0,4koa besterik ez da izan.

Desgaitasunen eta gaixotasunen arretaren arloan, finantzaketa pribatuak beherako joerari eusten dio: 2015-2016ko aldirian -% 1,82 murriztu da gastua. 2012tik 2014ra % 15,2tik % 17,8ra igo ondoren, gastuan duten ekarpenak behera egin du, 2016ko % 13,7ra iritsi arte. Zenbateko absolutuei erreparaturaz gero, ekarpen pribatuaren 2016ko 27,52 milioi euroak 2012ko zenbatekotik (27,04) gertuago daude, 2014an 35,46 milioi eurora iritsi ondoren.

Adinekoentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez, berriz, foru-erakundeek % 43,6ko ekarpena egin diote finantzaketari 2016an, 2015eko % 43,9tik gertu. 2012ko % 40,7tik gora dago baina, hala ere, beheraka egin du 2014an lortutako % 44,7tik. Foru-aldundiek arlo honetan egindako ekarpena da 2015 eta 2016 artean gutxien hazi denetakoa bat (+% 2,61).

Erkidegoz gairidiko erakundeen ekarpena, berriz, % 6,1koa izan da. 2012ko % 7,2 baino baxuagoa bada ere, gora egin du 2014ko % 4,6ri dagokionez. Zenbateko absolutuei begira, ekarpena 27,53 milioi eurotik 38,52 milioi eurora igo da 2014tik 2016ra, baina oraindik ere ez dira iristen 2012 eta 2013 urteetako 40 milioi inguruko zenbatekoetara. Foru-aldundien ekarpenarekin gertatzen den bezala, erkidegoz gairidiko ekarpenak 2015-2016ko aldian izan duen % 6,73ko areagotzea baxuagoa da, beste zentro, zerbitzu edo programa batzuen arloetan erkidegoak egin duen gastuaren igoerarekin alderatuta.

Udalen finantzaketa % 5,4koa izan da. Maila horrek behea jo du 2012tik hona, eta 2012-2013 urteetan izandako ehunekoetatik (% 6,5-6,6) aldentzen da, baita 2014-2015 urteetako mailetatik ere (% 5,9-6,0). Hain zuzen ere, udalek adinekoentzako zentro eta zerbitzuen mantentze-lanetarako egindako ekarpen absolutua -% 6,55 jaistearen ondorio izan da.

Zentro eta zerbitzu mota horietan nabarmena da ekarpen pribatuen pisua: gastuaren % 44,3 estaltzen du. Ehuneko horrek nolabaiteko jarraitutasuna adierazten du aurreko urteekin alderatuta (2013 eta 2015 urteetan % 44,2 eta 2012an % 45,5). 2015 eta 2016 urteen artean % 3,22 igo ondoren, zenbatekoei dagokionez, ekarpena 2012 eta 2013 urteetako 255 milioi euro ingurutik 279,30 milioi eurora areagotu da 2016an.

Aztertutako sektorean, foru-aldundien ekarpen erlatiborik urriena etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesaren arloan gertatu da. Kasu horretan, 2016an foru-aldundiek % 35,2ko ekarpena egin zuten. 2012ko % 37,1etik beherako joera marraztu ondoren, 2015ean ekarpena % 31ko gutxiengora iritsi zen; horrek esan nahi du 2015-2016ko aldian berreskuratze-dinamika bat izan dela. Berreskuratze-dinamika hori bistakoa da zenbatekoei erreparatuz gero, 2015etik 2016ra bitartean gastua % 14,96 areagotu baitzen. 2016ko 32,05 milioi euroek 2014. eta 2015. urteetako zenbatekoak gairiditzen dituzte, eta 2013ko 32,12 milioira gerturatzen dira. Urruti daude oraindik, ordea, 2012ko 35,75 milioiak.

Udalek etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesaren arloko finantzaketari egiten dioten ekarpena 2012 eta 2013 artean % 40,5etik % 37,5era jaitsi ondoren, 2015ean % 46,4 arte igo zen. Udalak dira 2016an ere programa horien finantzaketan ekarpen handiena egiten dutenak, hala ere, ekarpena murriztu egin da. 2015 eta 2016 artean -% 11,21 jaitsi da, eta ekarpena % 40,8koa izan da. Izan ere, 2015ean 41,82 milioi eurora iritsi ondoren, 2016ko 37,13 milioiak 2013ko 34,39 milioiak soilik gairiditzen dituzte, eta ez dira 2012ko 39,03 milioira ere iristen.

Aurkako norabidean egin du erkidegoko finantzaketak, 2012 eta 2013an % 5,2 izan ondoren, 2014an % 5,7ra, 2015ean % 6,8ra eta 2016an % 7,3ra igaro baitzen. Horrela, bada, finantzaketa % 7,96 hazi da 2015 eta 2016 artean eta 6,61 milioi eurora iritsi da, 2012tik hona izandako zifrarik altuena. Bestalde, erkidegoz gairidiko erakundeek programa horietan duten ekarpena finantzaketaren % 10,5era iritsi zen bere garaian, eta 2015-2016ko aldian % 16,82 areagotu bada ere, 2014. urtez geroztik % 4tik behera jarraitzen dute (% 3,8, zehazki, 2014 eta 2015 urteetako % 3,3ren gairidetik).

Erakunde pribatuek % 12,9ko ekarpena egin dute 2015ean aztertutako programetan, eta gorako dinamika jarraitua dutela ikus daiteke, 2012an erregistratutako % 10,7tik. 2015 eta 2016 artean, ekarpen pribatua % 3,97 areagotu da, eta 11,77 milioi eurora iritsi da.

Esan behar da, hala ere, aintzat hartutako jarduketetan finantzaketa asko aldatzen dela programa mota batetik bestera. Telelaguntzari erreparatuta, Eusko Jaurlaritzak hartzen du bere gain finantzaketaren zati handiena 2016an (% 79,8); proportzio horrek beherako joera izan du 2012ko % 88,5etik. Horren paraleloan, ekarpen pribatuen pisua 2012an % 11,5 izatetik 2016an % 20,2 izatera igaro zen.



Etxeko laguntzan, udalen finantzaketak du pisu handiena: % 45,1 hartzen du; hala ere, behera egin du 2014 eta 2015ean lortutako % 48,1 eta % 50,7 aintzat hartuta. Hain zuzen ere, 2015 eta 2016 artean, udalen finantzaketa -% 10,8 jaitsi da: 41,20 milioi eurotik 36,75 milioi eurora. Guztiz alderantziz gertatu da foru-aldundiek etxeko laguntzaren arloan egindako ekarpenean: % 14,5 hazi da 2015 eta 2016 artean. 2012 eta 2015 urteen artean % 39,7tik % 33,6ra jaitsi ondoren, foru-aldundiek ekarpena areagotu dute 2016an eta guztizkoaren % 38,4 izatera iritsi da (maila hori 2012ko datuen azpitik dago soilik). Finantzaketa pribatuaren hazkundera mugatuagoa da, % 2,1ekoa, zehazki. Nolanahi ere, finantzaketa pribatuak 2012an hasitako gorako joerari eusteko balio du areagotze horrek: orduko % 10,9tik 2016ko % 12,4ra igo da.

Zaintzaileei babes emateko programetan zuzkidurak urriagoak izaten dira, oro har, baina 2016an foru-aldundien ekarpena izan da handiena, finantzaketaren % 54,3rekin (udalen ekarpena % 26,4koa izan da, Eusko Jaurlaritzarena % 14,7koa eta pribatua % 4,5koa).

Azter dezagun orain, 16. taulan, haur, gazte, familia, emakume eta baztertutako pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen finantzaketak izandako bilakaera.

16. taula. Haur, gazte, familia, emakume eta baztertutako pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen gastu arrunta, finantzaketa-iturriaren arabera. 2013-2016

(Datu absolutuak milioi eurotan, ehuneko bertikalak eta 2015-2016 aldiko bariazioa ehunekotan)

Gastu-sektorea	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015-2016 aldiko bariazioa
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
HAUR, GAZTE ETA FAMILIEN ETA EMAKUMEEN (tratu txarrenak barne) ARLOA, GUZTIRA	114,48	113,28	115,95	121,98	100	100	100	100	5,21
Erkidegoz gaindikoa	0,00	0,02	0,02	0,02	0,0	0,0	0,0	0,0	-8,94
Autonomia-erkidegokoa	4,51	4,88	5,07	4,86	3,9	4,3	4,4	4,0	-4,16
Foru Aldundikoa	90,35	88,12	91,23	95,82	78,9	77,8	78,7	78,6	5,04
Udalekoa	19,26	19,39	19,62	21,27	16,8	17,1	16,9	17,4	8,42
Pribatua	0,35	0,87	0,00	0,00	0,3	0,8	0,0	0,0	498,59
Adingabeen egoitza-zentroak	65,44	64,33	64,57	66,79	100	100	100	100	3,44
Erkidegoz gaindikoa	0,00	0,00	0,02	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	-95,32
Autonomia-erkidegokoa	0,18	0,13	0,11	0,09	0,3	0,2	0,2	0,1	-20,60
Foru Aldundikoa	63,29	62,35	62,75	65,02	96,7	96,9	97,2	97,3	3,60
Udalekoa	1,84	1,79	1,75	1,76	2,8	2,8	2,7	2,6	0,84
Pribatua	0,13	0,05	-0,06	-0,07	0,2	0,1	-0,1	-0,1	33,48
Tratu txarren, txarren (tratu txarren biktimen prestazioak barne), harreraren, adopzioaren arloko arretarako programak eta familiako esku-hartzearen arloko programak Beste ostatu-programa batzuk	49,03	48,96	51,37	55,19	100	100	100	100	7,43
Erkidegoz gaindikoa	0,00	0,02	0,01	0,02	0,0	0,0	0,0	0,0	164,07
Autonomia-erkidegokoa	4,33	4,75	4,96	4,77	8,8	9,7	9,7	8,6	-3,79
Foru Aldundikoa	27,06	25,77	28,47	30,81	55,2	52,6	55,4	55,8	8,20
Udalekoa	17,42	17,60	17,87	19,51	35,5	35,9	34,8	35,4	9,16
Pribatua	0,22	0,82	0,06	0,08	0,5	1,7	0,1	0,1	37,61
BAZTERTUAK, GUZTIRA	41,69	42,57	43,61	45,96	100	100	100	100	5,40
Erkidegoz gaindikoa	0,12	0,19	0,26	1,62	0,3	0,4	0,6	3,5	526,45
Autonomia-erkidegokoa	4,34	4,77	4,37	4,51	10,4	11,2	10,0	9,8	3,19
Foru Aldundikoa	20,13	20,79	21,47	21,58	48,3	48,8	49,2	47,0	0,52
Udalekoa	11,31	11,10	11,82	11,49	27,1	26,1	27,1	25,0	-2,76
Pribatua	5,79	5,72	5,69	6,76	13,9	13,4	13,1	14,7	18,71

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

Haur, gazte edo familientzako programen arloan, foru-aldundien finantzaketaren pisua erabakigarria da; 2016an, % 78,6koa izan zen. Proporzio horrek, 2015ekoaren antzekoa izanik (% 78,7), erakusten du ekarpena pixka bat lehengoratu dela 2014ko % 77,8aren aldean, 2012ko % 79,5etik beherantz egin baitzuen etengabe.

Ekarpen pribaturik ia ez dagoen arlo horretan, finantzaketaren beste esparru garrantzitsu bat udalena da, gastuaren % 17,4 estaltzen baitute; gainera, ekarpen horrek gorako joera erakutsi du 2012-2015 aldiko % 16,6 eta % 17,1 balioekin alderatuta. Erkidegoen finantzaketa, berriz, % 4koa izan da 2016an; 2013an izandako % 3,9aren eta 2015ean eskuratutako % 4,4aren artean dago 2012tik.

Zenbateko absolutuei erreparatuta, 2015-2016 aldiko dinamikaren ezaugarri nagusia udalen gastuak egindako aurrerakada da, % 8,42 areagotu baita, eta 2012tik hona izandako mailarik gorenera iritsi da, 21,27 milioi euroekin. Aldi horretako gasturik handiena ere 2016an gertatu da foru-aldundien ekarpenez ari bagara: 95,82 milioi euro jarri dituzte, 2015eko 91,23 milioi euroak baino % 5,04 gehiago. Erkidegoaren ekarpena, berriz, -% 4,16 jaitsi da aztertutako biurtekoan.

Gastuaren sektoreak bereiz aztertuz gero, foru-aldundien finantzaketa nagusi da adingabeentzako egoitza-zentroei dagokienez; 2016an % 97,3 hartu zuten beren gain, eta udalen ekarpena berriz, % 2,6koa izan zen. Zenbateko absolututan, foru-aldundien finantzaketa % 3,60 areagotu da 2015 eta 2016 artean, eta udalena % 0,84.

Haur, gazte, familia eta emakumeen arretaren arloko gainerako programetan, foru-aldundien ekarpena 55,8koa izan da 2016an, udalena % 35,4koa eta erkidegoena % 8,6koa. Puntu honetan aipatu beharreko joeraren ezaugarri nagusia foru-aldundien eta udalen ekarpenen lehengoratzea da, izan ere, % 8,20 eta % 9,16ko hazkundeak izan dituzte, hurrenez hurren, 2015 eta 2016 artean. Gainera, 2016an lortu dira programa hauetan foru-aldundietan eta udaletan inoiz izandako gasturik handienak. Erkidegoan, aldiz, finantzaketa -% 3,79 jaitsi da.

Baztertutako pertsonak babestearen sektorean ere, foru-aldundiek hartzen dute finantzaketaren zati handiena: % 47. Proporzio hori 2012tik aurrera izandako baxuena da, ordea: 2013an % 48,3koa izan zen, eta 2015ean % 49,2koa. Izan ere, foru-aldundien ekarpenak egonkortzeko joera argia erakutsi du, eta % 0,52 soilik igo da 2015 eta 2016 urteen artean.

2012ko % 22,6tik, udalek bazterkeriaren arloan eginiko ekarpenak gorako joera erakusten zuen 2013az geroztik (% 27,1), eta 2014an % 26,1era arinki jaitsi ondoren, 2015ean 2013ko mailan kokatu zen berriro (% 27,1). 2016an, berriz, proporzioa % 25era jaitsi da, ekarpena -% 2,76 murriztu baita 2015ekoaren aldean.

2015-2016ko aldian erkidegoak bazterkeriaren arloan egindako ekarpena % 3,19 igo bada ere, epe luzera behera egin du Eusko Jaurlaritzaren parte-hartze erlatiboak: 2012ko % 11,7tik 2016ko % 9,8ra.

Aitzitik, ekarpen pribatua berreskuratu egin da baztertutako pertsonen aldeko jarduketetan: gastua % 18,71 areagotu dute 2015 eta 2016 bitartean. Finantzaketa mota hori beherako joeran izan zen 2015era arte (2012ko % 16,7tik 2015eko % 13,1era); 2016an, ordea, gizarte-ekintzaren arlo horretako finantzaketa osoaren % 14,7 izatera iritsi da.



Erabiltzaileen ekarpenaren pisu espezifikoa

17. taulak erakusten duen bezala, erabiltzaileek gizarte-zerbitzuen zentro edo zerbitzuen finantzaketan duten partaidetzaren datuek alde nabarmenak dituzte oraindik orain, zentro edo zerbitzu motaren arabera. Elementu bereizle nagusia erabiltzaileek adinekoentzako egoitzazentroetan duten partaidetzaren garrantzia da. 2012an eta 2013an % 45,8-% 45,9ko partaidetza izan ondoren, joera goranzkoa izan da eta % 47ra iritsi da 2016an.

Partaidetzak % 20 gainditzen du adinekoentzako eguneko laguntza zentroetan. 2012-2013 artean % 21,2tik % 23,4ra igo zen, baina proportzioa % 22ra murriztu zen 2014an; ondoren, % 22,6ra igo zen berriro 2015ean, eta % 23ra 2016an.

Erabiltzaileen parte-hartzea askoz ere txikiagoa da (eta beherako joera orokorra erakusten du) desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen kasuan. 2016an, % 12,5ekoa izan zen egoitzazentroetan; hau da, 2015ean % 13,8ra iritsi ondoren, 2012 eta 2014ko zifren (% 12,1-12,2) antzekoetara itzuli da. Eguneko laguntza-zentroetan proportzioa % 7,4koa da, hau da, mailarik baxuena 2012ko % 8,2tik, eta 2014 eta 2015eko % 10,2-10,3 baino baxuagoa, argi eta garbi. Erabiltzaileen parte-hartzeak goraka egiten jarraitzen du, ordea, desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan, eta % 6,2ra iritsi da 2016an.

Erabiltzaileen parte-hartzea oro har askoz baxuagoa bada ere, gorako joera da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentroyen ezaugarri nagusia. Egoitza-zentroetan, 2015 eta 2016 artean izandako igoerak, % 3tik % 3,7ra, nolabait egonkortzen du parte-hartzeak 2014tik aurrera izandako lehengoratzeko joera, izan ere, 2014an % 2,4koa zen, eta aurretik, 2012 eta 2013an, % 3,7 eta % 3,9koa. Are nabarmenagoa da eguneko zentroetan izandako gorakada, 2013ko % 2,6tik gora egin baitu etengabe; 2015ean % 3,4ra iritsi zen, eta 2016an % 6,3ra.

17. taula. Erabiltzaileek gizarte-zerbitzu eta -zentroyetako finantzaketan duten parte-hartzea, zentro/zerbitzu motaren arabera 2013-2016 (finantzaketa guztiaren %)

	2013	2014	2015	2016
Zentro/Zerbitzu mota	%	%	%	%
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedenerakoak barne)	45,8	46,7	46,8	47,0
Desgaitasunak/gaixotasunak dituztenentzako egoitza-zentroak (atsedenerakoak barne)	13,5	12,2	13,8	12,5
Adingabeentzako egoitza-zentroak	0,0	0,1	0,0	0,0
Emakumeentzako etxebizitzak edo egoitza-zentroak	0,5	0,4	0,3	0,3
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitzak, harrera eta egoitza-zentroak	3,7	2,4	3,0	3,7
EGOITZA-ZENTROAK	34,9	35,4	35,7	35,7
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak	23,4	22,0	22,6	23,0
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	9,0	10,2	10,3	7,4
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako beste eguneko zentro batzuk	4,0	2,4	5,5	6,2
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	2,2	2,1	0,1	0,0
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	2,6	2,7	3,4	6,3
EGUNEKO ZENTROAK	12,6	11,6	13,6	13,3
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	15,0	14,6	14,3	13,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

Oharra: Ez dira sartu tutoretza-fundazioak beste zentro eta zerbitzu batzuetan.

Gainerako egoitza-zentro edo eguneko zentro motetan, adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloetan edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arloan, erabiltzaileen parte-hartzerik ez dago ia.

Egoitza-zentroak eta eguneko zentroak ez diren beste zentro eta zerbitzu batzuetan, berriz, erabiltzaileen parte-hartzea 2012an % 9,1 izatetik 2013an % 15 izatera igo zen. Urte horretatik aurrera, proportzioa jaitsi egin zen apurka-apurka, 2015ean % 14,3 izatera iritsi arte. Joera hori 2016ra arte luzatu da, urte horretan erabiltzaileen parte-hartzea % 13,7koa izan baita.

Erabiltzaileek zentro eta zerbitzuen finantzaketan duten parte-hartzea desberdina da lurralde historikoaren eta zentro edo zerbitzu motaren arabera, 18. taulan ikus daitekeen bezala. Erabiltzaileek parte-hartzea handiagoa duten arloak aintzat hartuta ere, alde nabarmenak antzeman dira.

Hasteko, adinekoentzako egoitza-zentroetan, erabiltzaileen parte-hartzea askoz ere handiagoa da Bizkaian, eta finantzaketaren erdia baino gehiago hartzen du 2016an (% 52,8; Gipuzkoan % 42,7 eta Araban, % 38,6). 2012ko datuekin alderatuta, parte-hartzeak egonkor eutsi dio Bizkaian (% 52,8 orduan eta % 53,2 orain); parte-hartzea areagotu egin da, aldiz, Araban (% 37tik % 38,6ra) eta Gipuzkoan (% 39,3tik % 42,7ra). Horrez gainera, 2015 eta 2016 bitartean, parte-hartzea % 0,1 areagotu da Gipuzkoan eta % 0,5 Araban.

Desgaitasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan, erabiltzaileen parte-hartze txikiena dagokio Bizkaiari (% 9,9); Araban, ordea % 14,6koa da, eta Gipuzkoan, % 15,4koa. Gipuzkoan ez bezala, Bizkaian eta Araban 2012ko zifrak hobetu egin dira zerbitzua mantentzeko ekarpen erlatiboari dagokionez (% 8,7 eta % 13,8 hurrenez hurren). Hala ere, 2015-2016ko aldian parte-hartzea orokorki murriztu da hiru lurraldeetan: % 15,1etik % 14,6ra Araban, % 10,4tik % 9,9ra Bizkaian, eta % 18,6tik % 15,4ra Gipuzkoan.

18. taula. Erabiltzaileek gizarte-zerbitzu eta -zentroetako finantzaketan duten parte-hartzea zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2015 eta 2016 (finantzaketa guztiaren %)

Zentro/Zerbitzu mota	2015				2016			
	EAE %	Araba %	Gipuzkoa %	Bizkaia %	EAE %	Araba %	Gipuzkoa %	Bizkaia %
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedenerakoak barne)	46,8	38,1	42,6	52,6	47,0	38,6	42,7	52,8
Desgaitasunak/gaixotasunak dituztenentzako egoitza-zentroak (atsedenerakoak barne)	13,8	15,1	18,6	10,4	12,5	14,6	15,4	9,9
Adingabeentzako egoitza-zentroak	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0
Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak	0,3	0,0	0,0	0,6	0,3	0,0	0,0	0,6
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitzak, harrera eta egoitza-zentroak	3,0	2,5	2,7	3,4	3,7	3,3	2,2	5,3
EGOITZA-ZENTROAK	35,7	29,5	32,7	40,0	35,7	29,9	32,2	40,1
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak	22,6	26,9	23,4	19,4	23,0	27,0	24,9	18,4
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	10,3	4,3	15,0	8,4	7,4	5,2	11,2	5,1
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako beste eguneko zentro batzuk	5,5	3,5	5,3	6,2	6,2	3,3	5,4	7,7
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Gizareratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	3,4	1,8	3,8	3,6	6,3	1,8	2,4	8,5
EGUNEKO ZENTROAK	13,6	14,6	16,7	10,9	13,3	15,1	16,0	10,5
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	14,3	30,7	9,3	6,0	13,7	37,4	1,7	5,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarateratzeko Gastuaren Estatistika.
Oharra: Ez dira sartu tutoretza-fundazioak beste zentro eta zerbitzu batzuetan.

Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza, harrera-zentro eta egoitza-zentroetan erabiltzaileen parte-hartzearen inpaktua urria bada ere, erabiltzaileen parte-hartzeak gora egin du



Arabian eta Bizkaian aztertutako aldiak (% 2,5etik % 3,3ra eta % 3,4tik % 5,3ra, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, ehuneko horrek behera egin du, % 2,7tik % 2,2ra.

Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroetan, ekarpen erlatibo handiena Araban egiten da (% 27), Gipuzkoaren (% 24,9) eta Bizkaiaren (% 18,4) gainetik. Egoera hori Arabako parte-hartzearen areagotze esanguratsuekin lotuta dago: % 6,2 igo zen 2012ko % 20,8ren aldean. 2015 eta 2016 bitartean, parte-hartzea egonkortu egin da lurralde horretan, 2015eko % 26,9ari dagokionez. Bizkaian parte-hartzea puntu bat jaitsi bada ere, 2015eko % 19,4aren aldean, Gipuzkoak % 1,5eko igoera ikusi du aurreko urteko % 23,4aren aldean.

Arabian 2015 eta 2016 artean parte-hartzea % 4,3tik % 5,2ra areagotu bada ere, oraindik 2012ko % 7,6tik behera dago, eta Araba da, beste behin, desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan erabiltzaileen ekarpen erlatibo txikiena duen lurraldea. 2016an antzeko zifrak ditu Bizkaiak, 2015eko % 8,4tik % 5,1era igaro baita, hau da, 2012ko mailara ia (% 5,0). Beherako joera hori bera da Gipuzkoako ezaugarri nagusia, parte-hartzea 2015eko % 15etik % 11,2ra jaitsi baita 2016an, 2012ko % 12,6tik gertuago. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako erabiltzaileen parte-hartze erlatiboa beste lurraldeetako baino handiagoa da, zalantzarik gabe, eguneko laguntza-zentro mota horietan.

Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan, arinki bada ere, Gipuzkoak eutsi egin dio 2015-2016ko aldiak aurreko azterlanetan hautemandako erabiltzaileen parte-hartzearen aurrerakadari, 2012an ikusitakoarekin alderatuta. Zehazki, parte-hartzea 2012ko % 3,7tik % 5,3ra igo zen 2015ean, eta % 5,4ra 2016an. Are handiagoa da erabiltzaileen ekarpenaren igoera Bizkaian, non 2012ko % 5etik % 6,2ra igaro zen 2015ean, eta % 7,7ra 2016an. Araban berriz, parte-hartzeak 2012ko % 0,8tik gora eusten badio ere, zertxobait murriztu da 2015 eta 2016 bitartean, % 3,5etik % 3,3ra, alegia.

Gizareratze-premiei erantzuteko eguneko zentroi erreparatuz gero, zifrak egonkortu edo murriztu egin dago Araban eta Gipuzkoan 2015-2016ko aldiak; horrela, erabiltzaileen parte-hartzea % 2,5etik beherakoa da batean zein bestean. Bizkaian, berriz, zifra hori bera % 3,6tik % 8,5era igo da.

Gainerako zentro eta zerbitzuetan, erabiltzaileen ekarpen erlatiboa oso garrantzitsua da Araban, eta joera gorakoa da, gainera, lurralde horretan: 2012ko % 5,5etik % 30,7ra igaro zen 2015ean eta % 37,4ra 2016an. Parte-hartzeak behera egin du gainerako lurraldeetan 2015-2016ko aldiak: % 9,3tik % 1,7ra Gipuzkoan eta % 6tik % 5era Bizkaian.

4.3. Gizarte-prestazioen finantzaketa

19. taulan daude jasota EAEko gizarte-prestazioen finantzaketari buruzko oinarritzko datuak. Gizarte-zerbitzuen erdiguneari eginiko ekarpen mugatuaren kasuan ez bezala, Eusko Jaurlaritza da prestazio ekonomikoen finantzaketaren protagonista nagusia. 2016ko % 85eko ekarpenak 2015eko mailari eusten dio, eta egonkortasuna handia erakusten du 2013 eta 2015 artean ikusitakoari dagokionez. 2012ko % 86,9 soilik gelditzen da zifra horretatik askoz gorago.

2016an, foru-aldundiek hartu zuten beren gain aintzat hartutako prestazioen gastuaren % 11,7, 2013ko eta 2014ko % 11,8aren aldean pixka bat behera eginez. Proporzioa, alabaina, 2012ko % 10,8 baino handiagoa da.

Udalen ekarpena oso txikia da, % 2,9koa besterik ez, 2014 eta 2015eko zenbatekoak baino % 0,1 gehiago soilik. Gorantz egin du, ordea, 2012ko % 1,4ren eta 2013ko % 2,4ren aldean. Gainera, udalen ekarpenak gorako joera du, 2015 eta 2016 artean finantzaketa areagotu egin baita

% 6,02ra iritsi arte, hau da, foru-aldundien % 1,88ko eta erkidegoaren % 0,66ko hazkunderen gainetik.

Ekarpen pribatua oso txikia da, apenas den % 0,3koa 2016an; hori gutxi balitz, beherako joera argia du, 2015eko % 0,7ren eta 2012ko % 0,9ren aldean.

19. taula. Gizarte-prestazioetako (familientzako transferentziak) gastu arrunta, finantzaketa-iturriaren arabera. 2013-2016

(Datu absolutuak, % bertikalak eta 2015-2016 bariazioa ehunekotan)

	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015-2016 aldiko bariazioa
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Gastu mota									%-tan
LISMI/KGP/GOF	56.275.624	58.328.312	60.228.847	61.898.222	100	100	100	100	2,77
Foru Aldundikoa	56.275.624	58.328.312	60.228.847	61.898.222	100,0	100,0	100,0	100,0	2,77
DSBE/EGPO	435.206.110	472.400.873	486.882.648	492.333.507	100	100	100	100	1,12
Autonomia-erkidegokoa	435.206.110	472.400.873	486.882.648	492.333.507	100,0	100,0	100,0	100,0	1,12
FAMILIA-PRESTAZIOAK	37.230.957	46.951.991	59.016.731	55.819.362	100	100	100	100	-5,42
Autonomia-erkidegokoa	37.191.152	46.931.767	58.956.122	55.722.125	99,9	100,0	99,9	99,8	-5,49
Udalekoa	39.805	20.224	60.609	97.237	0,1	0,0	0,1	0,2	60,43
BESTE BATZUK (GLLak eta GKEak barne)	49.267.466	59.572.130	62.070.435	62.091.179	100	100	100	100	0,03
Autonomia-erkidegokoa	19.376.146	20.507.358	21.919.295	23.461.453	39,3	34,4	35,3	37,8	7,04
Foru Aldundikoa	11.665.129	16.943.348	17.013.460	16.798.131	23,7	28,4	27,4	27,1	-1,27
Udalekoa	13.692.890	17.987.756	18.468.582	19.547.571	27,8	30,2	29,8	31,5	5,84
Pribatua	4.533.301	4.133.668	4.669.098	2.284.024	9,2	6,9	7,5	3,7	-51,08
GIZARTE-PRESTAZIOAK	577.980.157	637.253.306	668.198.661	672.142.270	100	100	100	100	0,59
Autonomia-erkidegokoa	491.773.408	539.839.998	567.758.065	571.517.085	85,1	84,7	85,0	85,0	0,66
Foru Aldundikoa	67.940.753	75.271.660	77.242.307	78.696.353	11,8	11,8	11,6	11,7	1,88
Udalekoa	13.732.695	18.007.980	18.529.191	19.644.808	2,4	2,8	2,8	2,9	6,02
Pribatua	4.533.301	4.133.668	4.669.098	2.284.024	0,8	0,6	0,7	0,3	-51,08

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

Prestazioen azterketa xehatuak erakusten du foru-aldundiek osorik finantzatzen dituztela LISMI/GOF/KGP prestazioak, eta Eusko Jaurlaritzak osorik hartzen duela DSBERen eta EGPOren finantzaketa. Erkidegoen finantzaketa % 99,8koa da familien prestazioei dagokienez, eta udalek % 0,2ko ekarpena besterik ez dute egiten.

Gainerako prestazioen (GLLak eta antzeko prestazioak, bai eta ekintza pribatua ere) azterketa bereziki interesgarria da, gizarte-larrialdi edo -urgentziekin lotutako alderdietan edo diru-sarrerak bermatzeko sistema orokorra osatzeko jardueretan oinarritzen baita hein handian. Prestazio horiei dagokienez, parte-hartzean banaketa nabarmena dagoela ikusi da, eta hiru partaidetza-iturrik % 25etik gora hartzen zuten 2015ean.

Iturri nagusia erkidegoarena da: % 37,8ko parte-hartzea izan du gastuaren finantzaketan. Partaidetzak gora egin duen arren 2014ko % 34,4tik eta 2015eko % 35,3tik, joera beherakoa da argi eta garbi, 2012ko % 43,9rekin alderatuta. Zenbateko absolutuei erreparaturaz, bilakaera askoz hobea izan da, hazkundera etengabea izan baita 2012. urteaz geroztik. Prestazio horiei egiten zaien ekarpenaren hazkundera, GLLak aintzat hartuz, % 7,04koa izan da 2015 eta 2016 artean.

Bestalde, udalek % 31,5eko ekarpena egiten diete gainerako prestazioei. 2015ean hautemandako jaitzieraren ondoren (% 29,8 urte hartan, eta % 30,2 2014an), 2016koa da zifrarik altuena 2012tik,



eta urte hartakoa (% 21,2) baino altuagoa, zalantzarik gabe. 2015 eta 2016 artean, prestazioen sistema osagarri horren udal-finantzaketa % 5,84 areagotu da.

Gainerako gizarte-prestazioen finantzaketaren beste zati bat, % 27,1, foru-aldundiek egiten dute. Ehuneko hori ere 2012ko % 21,5 baino askoz altuagoa da baina, udalen arloan ez bezala, joera beherakoa da, 2014an % 28,4koa izan zelako, eta 2015ean % 27,4koa. Prestazio horien finantzaketan foru-aldundiek egiten duten ekarpena -% 1,27 jaitsi da 2015-2016ko aldian.

Bestalde, erakunde pribatuek gainerako prestazioen finantzaketan egiten duten ekarpenean, haien parte-hartzearen pisuak beherako joera argia izan du: 2012 eta 2014 artean % 13,4tik % 6,9ra murriztu zen, eta gero, 2015ean, % 7,5era igo bazen ere, 2016an gutxienez iritsi da: % 3,7.

4.4. Foru-aldundien parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera

20. taulan ikus daitekeen bezala, 2016an, Arabako gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan biztanleko foru-gastua finkatu da posturik altuenetan, 444,05 euroekin (Gipuzkoako 434,21 euro baino zertxobait gehiago). Bizkaia horien azpian gelditu da, biztanleko 352,09 euroko gastuarekin.

20. taula.
Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2015-2016
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

Gastu mota eta lurralde historikoa		2015	2016	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Gastu arrunta, guztira	EAE	809.832.937	852.708.064	372,64	392,61	5,4
	Araba	135.864.703	143.131.961	422,23	444,05	5,2
	Gipuzkoa	294.667.777	308.596.094	415,03	434,21	4,6
	Bizkaia	379.300.457	400.980.009	332,30	352,09	6,0
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	EAE	732.590.630	774.011.711	337,10	356,38	5,7
	Araba	128.147.386	134.957.689	398,25	418,69	5,1
	Gipuzkoa	261.319.401	274.519.053	368,06	386,27	4,9
	Bizkaia	343.123.843	364.534.969	300,61	320,09	6,5
Gizarte-prestazioak	EAE	77.242.307	78.696.353	35,54	36,23	1,9
	Araba	7.717.317	8.174.272	23,98	25,36	5,7
	Gipuzkoa	33.348.376	34.077.041	46,97	47,95	2,1
	Bizkaia	36.176.614	36.445.040	31,69	32,00	1,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

2015-2016ko aldian, Arabak arinki areagotu du Gipuzkoarekiko aldea (2016an 9,83 euroko aldea zegoen, eta 2015ean 7,20 eurokoa), izan ere, biztanle bakoitzeko gastua % 5,2 areagotu zen 2015-2016ko aldian (igoera hori Gipuzkoan % 4,6koa izan zen).

Bizkaian, berriz, biztanleko gastua % 6 hazi zen aztertutako aldian, beste lurraldeetan baino gehiago. Bizkaiaren abiapuntua baxuagoa denez, aldiko hazkunde erlatiboa handiagoa izan bada ere, Arabarekiko distantziak zabaltzen jarraitu du 2015-2016ko aldian (89,93 eurotik 91,96 eurora). Gipuzkoarekiko distantzia, berriz, zertxobait murriztu da (82,73 eurotik 82,12 eurora).

Gizarte-zerbitzuen erdigunean, Araba eta Gipuzkoaren arteko aldeak pixka bat zorrotzagoak dira 2016an: 418,69 eta 386,27 euro biztanleko, hurrenez hurren. Bizkaia dago atzetik, 320,09 euroko zenbatekoarekin. Biztanleko gastuaren hazkundearen lerroak, ordea, ahalegin erlatibo handiagoa erakusten du Bizkaian, biztanleko gastua % 6,5 hazi baita; Araban, berriz, % 5,1 eta Gipuzkoan % 4,9. Horrela, Bizkaian 2012-2015 aldian izandako hazkunde txikiagoko joera eten da, izan ere, aldi horretan Bizkaian % 5,6 hazi zen biztanle bakoitzeko gastua, eta Araban eta Gipuzkoan % 7,4 eta % 9,2, hurrenez hurren.

Prestazioen arloan, Gipuzkoak egin zuen foru-gastu handiena 2016an (47,95 euro biztanleko); atzetik Bizkaia dugu, biztanleko 32,0 eurekin. Kasu honetan, Arabak egiten du ekarpen txikiena (25,36 euro biztanleko). Hala ere, 2015-2016ko aldian Arabak berreskuratu egin du gainerako bi lurraldeekiko zuen aldearen zati bat, prestazioetan egindako biztanle bakoitzeko gastua % 5,7 areagotu baitzen, argi eta garbi Gipuzkoako % 2,1eko eta Bizkaiko % 1eko areagotzeen gainetik.

21. taulak biltzen du gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako foru-gastu arruntak 2015-2016ko aldian izandako bilakaera, lurralde historikoen arabera. Taulan egiazta daitekeen bezala, biztanle bakoitzeko foru-gastuak, gizarte-zerbitzuen egituran, Bizkaian jo zituen mailarik altuenak 2016an: 52,16 euro; 45,45 Araban eta 22,24 Gipuzkoan. Hori Bizkaian egitura orokorrean izandako alde esanguratsuari zor zaio batik bat (sektoreko superabit/defizitari dagokion ekarpena barne): 28,72 euro biztanleko Bizkaian; Gipuzkoan, berriz, 6,25 euro eta Araban, berriz, 4,14 euro.

Egitura espezifikoak oinarrizko zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen sistema biltzen du; horri dagokionez, Araba dago lehen postuan (41,31 euro biztanleko), Bizkaiaren (23,44 euro) eta Gipuzkoaren (15,99 euro) gainetik. Datuok zuzenean lotuta daude foru-egiturako zerbitzu tekniko espezializatuen dinamikarekin; horiek dira, hain zuzen ere, arlo honetako jardunaren ardatza, eta Araban, 31,79 euroko biztanleko gastua dute, Bizkaian 19,89 eurokoa eta Gipuzkoan 14,72 eurokoa.

Zerbitzu espezializatuetan, finantzaketen arteko aldeak nabarmen handitu dira 2015-2016 artean, Arabaren alde. 2015-2016ko aldian Arabako foru-gastua nabarmen hazi zelako (% 10,9) gertatu da hori; izan ere, Gipuzkoan eta Bizkaian, hurrenez hurren % 2,4 eta % 1,9 soilik hazi da. Arabak horrekin berreskuratu du, hein batean, 2012-2015 urteen artean zerbitzu horien finantzaketan izandako murrizketa nabarmena (-% 39ko jaitsiera izan zen eta, horren gainetik, Gipuzkoako -% 41,2koa soilik egon zen; Bizkaian, aldiz, % 5,9 areagotu zen finantzaketa aldi hartan).

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen ekarpena aintzat hartuz, foru-gastu adierazgarriena Arabari dagokio berriro ere: biztanle bakoitzeko 9,51 eurekin; Bizkaian 3,48 eurokoa eta Gipuzkoan % 0,55ekoa soilik. Arlo horretako finantzaketak bultzada indartsua izan du berriki Araban, 2015-2016 artean biztanle bakoitzeko gastua % 14,6 igo baita eta, horrek, 2012 eta 2015 artean izandako % 67,1eko hazkundea luzatzen du. Bizkaian, aldiz, 2012-2015 aldian oinarrizko zerbitzuetan biztanle bakoitzak egindako gastua % 41 hazi ondoren, 2015-2016ko aldian -% 3,3 jaitsi da.



21. taula.
Gizarte-zerbitzuen egiturako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2015-2016
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa
2015-2016ko aldian)

		2015	2016	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
Gastu mota eta lurralde historikoa		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
EGITURA ETA EMAITZA OROKORRA	EAE	32.440.691	38.486.778	14,93	17,72	18,7
	Araba	-681.035	1.335.567	-2,12	4,14	-295,8
	Gipuzkoa	6.936.341	4.442.325	9,77	6,25	-36,0
	Bizkaia	26.185.385	32.708.886	22,94	28,72	25,2
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	EAE	6.933.662	7.427.020	3,19	3,42	7,2
	Araba	2.670.679	3.066.207	8,30	9,51	14,6
	Gipuzkoa	148.620	392.790	0,21	0,55	164,0
	Bizkaia	4.114.363	3.968.023	3,60	3,48	-3,3
Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak	EAE	526.622	585.640	0,24	0,27	11,3
	Araba	63.918	0	0,20	0,00	-100,0
	Gipuzkoa	462.704	511.001	0,65	0,72	10,3
	Bizkaia	0	74.639	0,00	0,07	
Zerbitzu tekniko espezializatuak	EAE	41.719.771	43.362.719	19,20	19,97	4,0
	Araba	9.224.385	10.248.467	28,67	31,79	10,9
	Gipuzkoa	10.208.849	10.459.634	14,38	14,72	2,4
	Bizkaia	22.286.537	22.654.618	19,52	19,89	1,9
EGITURA ESPEZIFIKOA	EAE	49.180.055	51.375.379	22,63	23,65	4,5
	Araba	11.958.982	13.314.674	37,17	41,31	11,1
	Gipuzkoa	10.820.173	11.363.425	15,24	15,99	4,9
	Bizkaia	26.400.900	26.697.280	23,13	23,44	1,4
EGITURA, GUZTIRA	EAE	81.620.746	89.862.157	37,56	41,38	10,2
	Araba	11.277.947	14.650.241	35,05	45,45	29,7
	Gipuzkoa	17.756.514	15.805.750	25,01	22,24	-11,1
	Bizkaia	52.586.285	59.406.166	46,07	52,16	13,2

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

Adinekoen, desgaitasuna/gaixotasunak dituzten pertsonen edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen arretarekin lotutako arloan, 22. taulako datuei erreparatuta egiazta daiteke Araba dela, era berean, biztanleko gastu-maila handiena duena: 320,42 euro 2016an. Jarraian, Gipuzkoa (297,11 euro) dago, eta urrunago, Bizkaia (221,54 euro).

Bizkaia zen, hala ere, 2012-2015 artean, arretaren arlo horretan biztanleko gastuan gorakadarik handiena izan zuen lurraldea; gastua % 13,1 areagotu zuen, Gipuzkoaren (% 12,2) eta Arabaren (% 7,1) gainetik. Lurralde historiko horrek hazkunde-erritmo indartsuari eutsi dio 2015-2016ko aldian ere, % 5,1 areagotu baitu biztanleko gastua, eta Arabak, berriz, % 3,2. Gipuzkoa izan da, hala ere, arlo horretan biztanleko gastua gehien areagotu duen lurraldea, % 6,6, hain zuzen ere.

Egoitza-zentroetan 2016an eginiko biztanleko gastuari dagokionez, Araba nabarmentzen da argi eta garbi adinekoentzakoetan: 147,75 euro; aldiz, Gipuzkoan 121,34 eta Bizkaian 91,74. Kasu

horretan, Arabak eutsi egin dio biztanleko foru-gastuaren areagotze indartsuenari, 2012 eta 2015 artean ikusi zen bezala; hala, bada, 2015-2016ko aldian ere lehen tokian dago, % 5,3ko igoerarekin, Gipuzkoa (% 4,4) eta Bizkaiaren (% 1,6) aurretik.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroen arloan ere bere horretan jarraitzen dute Arabaren eta gainerako lurraldeen arteko aldeak, nahiz eta ez diren hain deigarriak. 2016an, biztanleko foru-ekarpena 47,16 eurokoa izan zen Araban, 40,36 eurokoa Gipuzkoan eta 40,15 eurokoa Bizkaian. 2015-2016ko aldian, Gipuzkoa % 11,8 areagotu du biztanleko foru-gastu zerbitzu mota horietan; horrela, Arabarekiko distantzia murriztu du, azken horretan gastua % 3,8 soilik areagotu baita. Aldea area nabarmenagoa da Bizkaiko % 1,3ko hazkundearen ondoren eta, horrela, Gipuzkoak Bizkaia gainditu du egoitza-zentro mota horietan biztanle bakoitzeko egiten den foru-gastuari dagokionez (2015ean Bizkaiak zuen gastu handiagoa, 39,63 euro, Gipuzkoak 36,12 euroren ondoan).

Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroei erreparatuz gero, Gipuzkoa da beste behin biztanleko foru-ekarpen handiena egiten duen lurraldea. Lurralde historiko horrek 23,11 euro bideratzen ditu biztanle bakoitzeko; Arabak, 19,03 euro, eta Bizkaiak 12,45. Hala eta guztiz ere, biztanleko foru-gastua -% 1,2 jaitsi da Gipuzkoan 2015-2016ko aldian, eta jaitsiera are nabarmenagoa izan dute Bizkaian (-% 3,2). Araban, berriz, biztanleko gastuak egonkortzeko joera erakutsi du arlo horretan, % 0,3ko igoera izan baitu soilik.

Gastua oso parekoa da desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan; maximoa Bizkaian da, 11,92 euro gastatu baitziren bertan, eta atzetik, Gipuzkoa (11,75) eta Araba (11,24). Zerbitzu mota horretan biztanle bakoitzeko egindako foru-gasturik handiena Bizkaiak du 2015-2016ko aldian, % 5,7ko hazkundera izan baitu, beste lurraldeetan, aldiz, beherakadak orokortu direlarik: Araban -% 1,5 eta Gipuzkoan -% 8,6 (2015ean biztanleko gastu handiena izan ondoren).

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan (zentro okupazionalak barne), biztanleko foru-ekarpena 19,17 eurokoa izan zen Araban, Gipuzkoako 10,14 euroen eta Bizkaiko 9,09 euroen gaineratik, nabarmen. 2012-2015 aldian izandako beherakadaren ostean, Araba ipini da lehengo tokian zerbitzu horietan biztanle bakoitzeko egindako foru-gastua areagotzeari dagokionez; zehazki, 2015-2016 igoera % 5,8koa izan da, Gipuzkoako % 4,8 eta Bizkaiko % 1,8ko igoera baino gehiago.

Etxeko laguntza-zerbitzuaren arloan, 2016an, biztanleko foru-ekarpena oso gaineratik dago Araban: 31,46 euro, Gipuzkoako 15,02 eta Bizkaiko 9,18 euroren gaineratik. 2012-2015 urteetan behatutako gastuaren beherako joerak Araban eta Gipuzkoan berdin jarraitzen badu ere (-% 2,1 eta -% 1,9, hurrenez hurren), Bizkaian lehengoratzea nabarmena da, izan ere, % 71,4 areagotu da foru-ekarpena.

Mendekotasunen arloko prestazioetan, biztanleko foru-ekarpen handiena Gipuzkoan egin zen (73,10 euro), Bizkaiaren (41,95 euro) eta Arabaren (40,84 euro) gaineratik. 2012-2015 aldian jaitsi ondoren, biztanleko gastua oso gutxi lehengoratu da 2015-2016ko aldian, prestazio horiei dagokienez, Araban (% 1); horren ondorioz, eta bere gastua % 10,9 igo duelako, Bizkaia jarri da zaio aurretik. Gipuzkoa da, hala ere, 2015-2016ko aldian mendekotasunaren arloko prestazioetan gastua gehien areagotu duen lurraldea: % 15,6.

Zaintzaileen laguntzetako gastua 0,11 eurokoa da biztanleko Araban, besterik ez. 2015-2016 urteetan beherako joera erakutsi du, Bizkaiak eta Gipuzkoak ez bezala; azken horietan izandako igoerarekin, biztanleko 0,39 eta 0,40 euroko ekarpena egin zuten, hurrenez hurren.



22. taula

Adinekoentzako, desgaitasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen foru-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2015-2016

(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

Zentro/zerbitzu mota eta lurralde historikoa		2015	2016	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Adinekoentzako egoitza-zentroak	EAE	230.706.906	238.343.411	106,16	109,74	3,4
	Araba	45.153.495	47.625.602	140,33	147,75	5,3
	Gipuzkoa	82.517.263	86.239.715	116,22	121,34	4,4
	Bizkaia	103.036.148	104.478.094	90,27	91,74	1,6
Desgaitasunak/gaixotasunak dituztenentzako egoitza-zentroak (atsedenerakoak barne)	EAE	85.505.112	89.617.377	39,35	41,26	4,9
	Araba	14.622.584	15.202.785	45,44	47,16	3,8
	Gipuzkoa	25.642.591	28.684.878	36,12	40,36	11,8
	Bizkaia	45.239.937	45.729.714	39,63	40,15	1,3
EGOITZA-ZENTROAK	EAE	316.212.018	327.960.788	145,50	151,00	3,8
	Araba	59.776.079	62.828.387	185,77	194,92	4,9
	Gipuzkoa	108.159.854	114.924.593	152,34	161,71	6,1
	Bizkaia	148.276.085	150.207.808	129,90	131,89	1,5
Adinekoentzako eguneko zentroak	EAE	37.401.109	36.743.157	17,21	16,92	-1,7
	Araba	6.104.227	6.135.426	18,97	19,03	0,3
	Gipuzkoa	16.616.186	16.425.706	23,40	23,11	-1,2
	Bizkaia	14.680.696	14.182.025	12,86	12,45	-3,2
Desgaitasunak/gaixotasunak dutenentzako eguneko zentroak (atsedenerakoak barne)	EAE	25.675.709	25.552.603	11,81	11,77	-0,4
	Araba	3.670.395	3.622.390	11,41	11,24	-1,5
	Gipuzkoa	9.129.479	8.352.140	12,86	11,75	-8,6
	Bizkaia	12.875.835	13.578.073	11,28	11,92	5,7
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako beste eguneko zentro batzuk	EAE	22.899.663	23.743.748	10,54	10,93	3,7
	Araba	5.831.035	6.178.411	18,12	19,17	5,8
	Gipuzkoa	6.870.394	7.207.568	9,68	10,14	4,8
	Bizkaia	10.198.234	10.357.769	8,93	9,09	1,8
EGUNEKO ZENTROAK	EAE	85.976.481	86.039.508	39,56	39,62	0,1
	Araba	15.605.657	15.936.227	48,50	49,44	1,9
	Gipuzkoa	32.616.059	31.985.414	45,94	45,01	-2,0
	Bizkaia	37.754.765	38.117.867	33,08	33,47	1,2
ETXEKO LAGUNTZA	EAE	27.324.958	31.276.468	12,57	14,40	14,5
	Araba	10.340.097	10.139.347	32,13	31,46	-2,1
	Gipuzkoa	10.870.048	10.677.398	15,31	15,02	-1,9
	Bizkaia	6.114.813	10.459.723	5,36	9,18	71,4
ZAINZAILLEENTZAKO LAGUNTZAK	EAE	552.938	770.575	0,25	0,35	39,4
	Araba	78.707	36.542	0,24	0,11	-53,7
	Gipuzkoa	123.211	285.703	0,17	0,40	131,7
	Bizkaia	351.020	448.330	0,31	0,39	28,0
MENDEKOTASUNEN ARLOKO PRESTAZIOAK	EAE	101.099.624	112.889.143	46,52	51,98	11,7
	Araba	13.014.305	13.163.055	40,45	40,84	1,0
	Gipuzkoa	44.900.651	51.954.204	63,24	73,10	15,6
	Bizkaia	43.184.668	47.771.884	37,83	41,95	10,9
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	EAE	7.103.022	7.804.446	3,27	3,59	9,9
	Araba	1.077.191	1.180.309	3,35	3,66	9,4
	Gipuzkoa	1.184.361	1.331.764	1,67	1,87	12,3
	Bizkaia	4.841.470	5.292.373	4,24	4,65	9,6
MENDEKOTASUNAREN, ADINEKOEN ETA DESGAITASUNEN ARLOA, GUZTIRA	EAE	538.269.041	566.740.928	247,68	260,94	5,4
	Araba	99.892.036	103.283.867	310,44	320,42	3,2
	Gipuzkoa	197.854.184	211.159.076	278,67	297,11	6,6
	Bizkaia	240.522.821	252.297.985	210,72	221,54	5,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

23. taula.

Adingabe, gazte, familia eta emakumeentzako eta baztertutako pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako foru-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2015-2016
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

Zentro/zerbitzu mota eta lurralde historikoa		2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa		
		Abs.	Abs.	Gastua/biztanleko	Gastua/biztanleko	
Adingabeen egoitza-zentroak	EAE	62.754.905	65.016.488	28,88	29,94	3,7
	Araba	10.070.702	10.499.184	31,30	32,57	4,1
	Gipuzkoa	25.367.589	26.001.497	35,73	36,59	2,4
	Bizkaia	27.316.614	28.515.807	23,93	25,04	4,6
Emakumeentzako etxebizitzak edo egoitza-zentroak	EAE	4.582.950	5.010.526	2,11	2,31	9,4
	Araba	842.895	958.745	2,62	2,97	13,5
	Gipuzkoa	1.069.193	1.229.226	1,51	1,73	14,9
	Bizkaia	2.670.862	2.822.555	2,34	2,48	5,9
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitzak, harrera eta egoitza-zentroak	EAE	16.721.854	17.032.821	7,69	7,84	1,9
	Araba	1.115.304	1.080.460	3,47	3,35	-3,3
	Gipuzkoa	8.660.087	8.267.189	12,20	11,63	-4,6
	Bizkaia	6.946.463	7.685.172	6,09	6,75	10,9
EGOITZA-ZENTROAK	EAE	84.059.709	87.059.835	38,68	40,08	3,6
	Araba	12.028.901	12.538.389	37,38	38,90	4,1
	Gipuzkoa	35.096.869	35.497.912	49,43	49,95	1,0
	Bizkaia	36.933.939	39.023.534	32,36	34,27	5,9
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	EAE	744.669	967.194	0,34	0,45	30,0
	Araba	744.669	204.077	2,31	0,63	-72,6
	Gipuzkoa	0	0	0,00	0,00	
	Bizkaia	0	763.117	0,00	0,67	
Gizareratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	EAE	4.750.079	4.551.600	2,19	2,10	-4,1
	Araba	256.656	250.790	0,80	0,78	-2,5
	Gipuzkoa	964.002	989.613	1,36	1,39	2,6
	Bizkaia	3.529.421	3.311.197	3,09	2,91	-6,0
EGUNEKO ZENTROAK	EAE	5.494.748	5.518.794	2,53	2,54	0,5
	Araba	1.001.325	454.867	3,11	1,41	-54,7
	Gipuzkoa	964.002	989.613	1,36	1,39	2,6
	Bizkaia	3.529.421	4.074.314	3,09	3,58	15,7
FAMILIAN ESKU HARTZEKO ETA EKITEKO ARLOA	EAE	23.146.386	24.829.997	10,65	11,43	7,3
	Araba	3.947.177	4.030.325	12,27	12,50	1,9
	Gipuzkoa	9.647.832	11.066.702	13,59	15,57	14,6
	Bizkaia	9.551.377	9.732.970	8,37	8,55	2,1
ADINGABE, GAZTE, FAMILIA ETA EMAKUMEAK, ETA BAZTERTUAK, GUZTIRA	EAE	112.700.843	117.408.626	51,86	54,06	4,2
	Araba	16.977.403	17.023.581	52,76	52,81	0,1
	Gipuzkoa	45.708.703	47.554.227	64,38	66,91	3,9
	Bizkaia	50.014.737	52.830.818	43,82	46,39	5,9

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarateratzeko Gastuaren Estatistika



2015-2016 artean, foru-ekarpena lurralde guztietan areagotu da adinekoentzako edo desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako beste zerbitzu batzuei dagokienez (Arabako, % 9,4, Bizkaian % 9,6 eta Gipuzkoan % 12,3). Biztanle bakoitzeko foru-gasturik txikiena, 2016an, Gipuzkoan egin da (1,87 euro biztanleko) eta handiena Bizkaian (4,65 euro biztanleko); Araba bien bitartean dago, hortaz (3,66 euro biztanleko).

23. taulan ikus daitezke adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloko eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arloko foru-gastu arruntari buruzko datuak. Esku-hartzearen esparru horretan, foru-ekarpen handiena Gipuzkoak egin zuen, 66,91 euroekin, Arabako 52,81 eta Bizkaiko 46,39 euroen gainetik. Bizkaiak hein batean berreskuratu du galdutakoa, ordea, biztanleko gastua % 5,9 hazi baita, Gipuzkoan eta Araban baino gehiago (% 3,9 eta % 0,1), nahiz eta azken hori izan zen 2012 eta 2015 urteen artean gastua gehien areagotu zuena.

Adingabe eta gazteentzako egoitza-zerbitzuetan, Gipuzkoa da buru berriro ere biztanleko gastuaren arloan 2016an: 36,59 euro; Araban, berriz, 32,57 euroko eta Bizkaian 25,04 euroko gastua izan zen. Bizkaian 2012-2015 urteetan izandako jaitsieren ondoren, 2015-2016ko aldirian lurralde horretan hazi da gehien biztanleko foru-gastua zerbitzu mota horietan, % 4,6, zehazki. Araban, berriz, % 4,1 areagotu da, eta Gipuzkoan % 2,4.

Gipuzkoa nabarmentzen da, baita ere, baztertutako pertsonentzako etxebizitza, harrera eta egoitza-zentroetarako biztanleko foru-ekarpenean. Lurralde historiko horretako 11,63 euroek Bizkaiko 6,75 eta Arabako 3,35 euroak gainditzen dituzte. Hala ere, Bizkaian bakarrik areagotu da biztanleko gastua 2015-2016ko aldirian. Lurralde historiko horretako hazkunde handia, % 10,9koa, asko urruntzen da Araban eta Gipuzkoan izandako jaitsieretatik (-% 3,3 eta -% 4,6, hurrenez hurren), 2012-2015 aldirian azken horiek ziren arren gastua gehien areagotu zutenak.

Egoitzaren arloan, Gipuzkoan 1,73 eurokoa da emakumeentzako zentroetarako biztanleko foru-gastua, Araban 2,97koa, eta, tartean dago Bizkaia, 2,48 euroko gastuarekin. Biztanleko gastuak Bizkaian gora egin badu ere, % 5,9, zehazki, hazkunde-maila horiek askoz handiagoak dira Gipuzkoa eta Araban, % 13,5 eta % 14,9, hurrenez hurren, 2012-2015 aldirian gertatzen zen bezala.

Gizarteratzeko premiei erantzuteko eguneko zentroetan, biztanleko gastua Arabako 0,78 euroren eta Bizkaiko 2,91 euroren artekoa da (1,39 eurokoa Gipuzkoan). Hiru lurralde historikoetan, biztanleko gastuaren hazkundea % 10etik gorakoa izan zen 2012-2015 aldirian; 2015-2016ko aldirian, berriz, Gipuzkoan soilik eutsi dio gorako joerari (% 2,6), Araban -% 2,5 eta Bizkaian -% 6 murriztu baita.

Adingabe, gazte edo familientzako eguneko arretak ez du biztanleko ekarpen nabarmenik jaso hiru lurraldeetako batean ere: gehienekoa Bizkaian izan da, 0,67 euro biztanleko (0,63 euro Araban).

Azkenik, familian esku hartzeko eta ekiteko programetan, Gipuzkoa dago, berriz ere, lehenengo postuetan, 15,57 euroko foru-ekarpena baitu biztanleko, eta ondoren datoz Araba (12,50) eta Bizkaia (8,55). 2012 eta 2015 urteen artean ikusitako gastuaren gorakada indartsuen ostean – gehiago Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino –, arlo honetako esku-hartzean Gipuzkoak izan du gorakadarik handiena aztertutako aldirian. Izan ere, biztanleko foru-gastua % 14,6 areagotu da lurralde historiko horretan 2015-2016ko aldirian, Araba eta Bizkaiko % 2 ingurutik askoz gorago.

Gizarte-prestazioen arloan, GLL, gizarte-urgentzia eta EAEko diru-sarrerak bermatzeko sistema orokorra osatzeko antzeko zeregina duten beste batzuen antzeko babes-prestazioekin lotutakoa

da lurralde-politika desberdinekin gehien lotutako ekarpena. Arlo horiei dagozkien datuak 24. taulan bildu dira.

24. taula. GLLko, gizarte-urgentziazko eta antzeko beste prestazioetako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera 2015-2016
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren 2015-2016 aldiko bariazioa ehunekotan)

Prestazio mota eta lurralde historikoa	2015		2016		2015/2016 aldiko bariazioa
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
Beste gizarte-prestazio batzuk	17.013.460	16.798.131	7,83	7,73	-1,2
EAE					
Araba	299.390	289.982	0,93	0,90	-3,3
Gipuzkoa	15.720.560	15.742.889	22,14	22,15	0,0
Bizkaia	993.510	765.260	0,87	0,67	-22,8

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekinizaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

Kasu honetan, datu esanguratsuena Gipuzkoako gastu-maila konparatu handia da. Diru-sarrerak bermatzeko laguntzaren kudeaketa indarrean zegoen oraindik hein batean 2016an, eta biztanleko 22,15 euroko gastua eragin zuen. Datuok kontrastea egiten dute Araban nahiz Bizkaian eginiko biztanleko foru-ekarpen oso txikiarekin (0,90 eta 0,67 euro, hurrenez hurren). Gainera, gastu mota horretan Gipuzkoak erakusten duen egonkortasunaren aldean, 2015-2016ko aldian izandako beherakadak dira adierazgarri beste bi lurralde historikoetan.

4.5. Udal-erakundearen parte-hartzearen alderaketa, lurralde historikoen arabera

25. taulan egiazta daitekeen bezala, udal-erakundeek, udalen edo mankomunitateen bidez, zerbitzuetan eta gizarte-prestazioetan 81,99 euro gastatu zituzten herritar bakoitzeko 2016an. Zifra hori 2012ko 74,28 euroen gainetik badago ere, -% 4,0ko beherakada izan da 2015eko zenbatekotik (85,39 euro).

Gastu-mailen arteko aldeak oso esanguratsuak dira oraindik, 2015-2016ko aldian, lurralde bakoitzaren dinamika bereziek baldintzatuta. Udalen artean, ekarpenik handiena Gasteiz egin du; hain zuzen ere, 177,48 euro herritar bakoitzeko; horrek esan nahi du 2015eko 171,14 euroen aldean ekarpena % 3,7 areagotu dela. Zifra horretatik oso urrun badaude ere, Donostiak eta Bilbok ere EAEko udalerrien batez besteko maila gainditzen dute argi eta garbi: Donostian 106,61 euro eta Bilbon 96,18 euro biztanleko. Batean zein bestean, gastuaren joera beherakoa da, Gipuzkoako hiriburuan -% 6,6 jaitsi baita, eta Bizkaikoan -% 5,0; horren ondorioz, Gasteizetik alde areagotu egin da 2015-2016ko aldian.

Biztanleko gastuaren beherako joera are handiagoa da Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan, -% 9,6koa zehazki. 2016an, biztanleko gastua 75,06 eurokoa izan zen udalerrri horietan, EAEko batez bestekoa baino 6,93 gutxiago. Alde hori areagotzen ari da, 2015ean 2,35 puntukoa baitzen.

Biztanleko udal-gastuaren jaitsiera (-% 1,7) ez da hainbestekoa izan Gipuzkoako beste udalerrri nagusietan. Hala eta guztiz ere, udalerrri horien biztanleko 69,41 euroko gastua nabarmen baxuagoa da oraindik ere Bizkaiko udalerrri baliokideekin alderatuta.

Ekarpen-maila baxuenetan, biztanleko udal-gastua 55,95eko izan zen Gipuzkoako gainerako udalerrrietan, eta 48,13koa Bizkaikoetan. Gipuzkoan zifra nahiko egonkorra bada ere, -% 0,3ko jaitsierarekin 2015etik, Bizkaian -% 12,1eko jaitsiera erregistratu da 2015-2016ko aldian.



Zerrendako zifrarik baxuenak Arabako gainerako udalerrri nagusiei (37,64 euro), eta Arabako gainerako udalerriei (15,58 euro) dagozkie. Herri horietan biztanleko gastuak gora egin du, ordea, 2015 eta 2016 artean, % 11,4 eta % 14,8, hurrenez hurren.

Gastuaren barne-egitura aztertuta, 2016an herritar bakoitzeko 72,94 euro bideratu ziren gizarte-zerbitzuen erdigunera; 2015-2016ko aldian -% 5,1eko jaitsiera izan dela erakusten du horrek, eta beherakada hori gizarte-zerbitzu eta prestazioetan herritar bakoitzeko egindako udal-gastuaren jaitsiera orokorra baino handiagoa dela. Datu horiek gorabehera, gastuak 2012ko 70,52 euroen gainetik eusten dio.

Udalen gastuak batez ere jarduketa-esparru horretara bideratzen direnez, lurraldeen arteko aldeak gorago aipatu diren horien oso antzekoak dira. Kasu honetan ere, ekarpenik handiena egin duen udala Gasteizkoa izan da, hain zuzen ere, 146,44 euro biztanle bakoitzeko (% 2,1eko areagotzea 2015eko datuen aldean). Atzetik du Bilbo, aurreko urtean gertatzen zen bezala, 92,89 euroekin (2015ean baino -% 5,8 gutxiago). Donostian, biztanleko 85,02 euroko gastuarekin, beherakada are handiagoa izan da, -% 7,2koa.

Biztanleko gastua murrizteko joera hori nabarmena da, era berean, Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan: -% 10,2koa, hain zuzen; hala 69,02koa da biztanle bakoitzeko gastua. Horren ondorioz, udalerrri horiek 2015ean zituzten batez besteko mailetatik urrundu dira. Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan 61,09 euro gastatu dira herritar bakoitzeko, eta horiek ere beherako joeran daude, hortaz, 2015eko datuak aintzat hartuz (-% 5,5).

Zerrendako beheko postuetan, Gipuzkoako gainerako udalerriek 50,91 euro gastatu dute herritar bakoitzeko gizarte-zerbitzuen erdigunean (-% 0,3 gutxiago 2015eko datuekin alderatuta), eta Bizkaian, berriz, 43,42 euro, aurreko urtean baino -% 13 gutxiago. Zerrendako zifrarik baxuenak Arabako gainerako udalerrri nagusiei (24,01 euro), eta Arabako gainerako udalerriei (14,36 euro) dagozkie berriro. Arabako herri txikienetan biztanleko gastua % 21,7 areagotu bada ere, gainerako udalerrri nagusietan -% 2,0 jaitsi da.

Prestazioen arloan udal-erakundeek udalen edo mankomunitateen bidez egiten duten gastua 9,05 eurokoa da biztanleko. Kasu horretan, datuek erakusten dute % 6,1 igo dela gastua; horrek 2012-2015 aldian hautematen zen gorako joera luzatzen du.

Herritar bakoitzeko udal-gasturik handiena 2016an Gasteizek eta Donostiak dute berriro ere, 28,04 eta 21,59 euro, hurrenez hurren. Aipatutako datuen arabera Arabako hiriburuan 2015-2016 artean areagotze nabarmena izan den arren (+% 13,3koa, zehazki), Gipuzkoako hiriburuan prestazioetako gastua -% 3,8 jaitsi da.

Arabako gainerako udalerrri nagusietan, gastua EAeko 2016ko batez bestekoa baino zertxobait altuagoa da. Hain zuzen ere, gastu hori 13,64 eurora iristen da, % 46,8ko igoera nabarmenarekin, 2015eko 9,29 euroen aldean. 2015 eta 2016 artean gastuaren areagotze deigarria izan da, orobat, Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan: % 39,9koa, 2015eko biztanleko 5,95 euroetatik 2016ko 8,33 euroetara. Horrekin, udalerrriok EAeko biztanleko batez besteko gastura gerturatzen dira.

Bilbon eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan, aldiz, gastua euskal batez bestekoaren azpitik gelditu da, ordea, argi eta garbi. Gizarte-prestazioetan egindako udal-gastua biztanleko 6,03 da gainerako udalerrri nagusietan; Bilbon, -% 2,8ko beherakada izan zen 2016an, 2015eko 3,29 euroko gastua aintzat hartuta, 2015-2016ko aldian gastua % 22,3 igo bazen ere.

Gastua aipatutako horien antzekoa da Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrietan: herritar bakoitzeko 5,04 eta 4,71 euro, hurrenez hurren. Datu horrek egonkortasuna adierazten du Gipuzkoan 2015eko zifrei dagokienez; Bizkaian, berriz, -% 3,0ko jaitsiera izan da biztanle gutxienerako udalerrietan. Arabako gainerako udalerrietan, 1,22 euro soilik xahutu dituzte biztanleko, eta zifra hori 2015ekoa baino baxuagoa da.

25. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako udal-gastu arrunta, udalerri motaren arabera. 2015-2016 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

		2015	2016	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
Gastu eta udalerri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Gastu arrunta, guztira	EAE	185.575.045	178.071.299	85,39	81,99	-4,0
	Gasteiz	41.194.184	42.852.015	171,14	177,48	3,7
	Arabako beste udalerri nagusi batzuk	970.393	1.077.056	33,80	37,64	11,4
	Arabako gainerakoak	710.876	814.533	13,57	15,58	14,8
	Donostia	20.569.861	19.209.050	114,09	106,61	-6,6
	Gipuzkoako beste udalerri nagusi batzuk	8.944.244	8.797.303	70,63	69,41	-1,7
	Gipuzkoako gainerakoak	22.620.570	22.591.373	56,12	55,95	-0,3
	Bilbo	34.761.342	32.939.879	101,28	96,18	-5,0
	Bizkaiko beste udalerri nagusi batzuk	35.503.177	31.948.102	83,04	75,06	-9,6
	Bizkaiko gainerakoak	20.300.398	17.841.988	54,77	48,13	-12,1
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	EAE	167.045.854	158.426.491	76,87	72,94	-5,1
	Gasteiz	35.235.791	36.082.873	146,39	149,44	2,1
	Arabako beste udalerri nagusi batzuk	703.673	686.895	24,51	24,01	-2,0
	Arabako gainerakoak	618.123	750.760	11,80	14,36	21,7
	Donostia	16.522.794	15.319.342	91,65	85,02	-7,2
	Gipuzkoako beste udalerri nagusi batzuk	8.190.146	7.741.895	64,67	61,09	-5,5
	Gipuzkoako gainerakoak	20.587.577	20.555.334	51,08	50,91	-0,3
	Bilbo	33.838.845	31.814.358	98,59	92,89	-5,8
	Bizkaiko beste udalerri nagusi batzuk	32.848.449	29.379.297	76,83	69,02	-10,2
	Bizkaiko gainerakoak	18.500.456	16.095.737	49,91	43,42	-13,0
Gizarte-prestazioak	EAE	18.529.191	19.644.808	8,53	9,05	6,1
	Gasteiz	5.958.393	6.769.142	24,75	28,04	13,3
	Arabako beste udalerri nagusi batzuk	266.720	390.161	9,29	13,64	46,8
	Arabako gainerakoak	92.753	63.773	1,77	1,22	-31,1
	Donostia	4.047.067	3.889.708	22,45	21,59	-3,8
	Gipuzkoako beste udalerri nagusi batzuk	754.098	1.055.408	5,95	8,33	39,9
	Gipuzkoako gainerakoak	2.032.993	2.036.039	5,04	5,04	0,0
	Bilbo	922.497	1.125.521	2,69	3,29	22,3
	Bizkaiko beste udalerri nagusi batzuk	2.654.728	2.568.805	6,21	6,03	-2,8
	Bizkaiko gainerakoak	1.799.942	1.746.251	4,86	4,71	-3,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekinizaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika



26. taula. Gizarte-zerbitzuetako egituretako udal-gastu arrunta, udalerrri motaren arabera. 2015-2016
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

Gastu eta udalerrri mota		2015	2016	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz
Oinarrizko gizarte zerbitzuak (gizarte-urgentzietakoak barne)	EAE	38.500.045	38.769.279	17,72	17,85	0,8
	Gasteiz	5.440.784	6.126.824	22,60	25,38	12,3
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	388.847	427.099	13,54	14,93	10,2
	Arabako gainerakoak	367.604	314.189	7,02	6,01	-14,4
	Donostia	4.735.637	4.648.439	26,27	25,80	-1,8
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	2.610.786	2.540.573	20,62	20,05	-2,8
	Gipuzkoako gainerakoak	9.478.536	9.045.481	23,52	22,40	-4,7
	Bilbo	5.785.207	6.287.412	16,85	18,36	8,9
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	5.939.074	5.883.495	13,89	13,82	-0,5
	Bizkaiko gainerakoak	3.753.570	3.495.767	10,13	9,43	-6,9
Zerbitzu tekniko espezializatuak	EAE	8.831.215	8.052.358	4,06	3,71	-8,8
	Gasteiz	3.895.677	3.976.446	16,18	16,47	1,8
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	0	0	0	0	
	Arabako gainerakoak	0	0	0	0	
	Donostia	1.363.375	696.432	7,56	3,87	-48,9
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	104.164	123.899	0,82	0,98	18,9
	Gipuzkoako gainerakoak	181.601	229.039	0,45	0,57	25,9
	Bilbo	2.088.954	1.880.601	6,09	5,49	-9,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	1.108.278	1.092.818	2,59	2,57	-1,0
	Bizkaiko gainerakoak	89.166	53.123	0,24	0,14	-40,4
Egitura eta emaitza orokorra	EAE	9.223.592	6.609.113	4,24	3,04	-28,3
	Gasteiz	1.736.176	1.246.822	7,21	5,16	-28,4
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	155.441	80.831	5,41	2,83	-47,8
	Arabako gainerakoak	-61.745	134.660	-1,18	2,58	-318,5
	Donostia	831.889	1.099.024	4,61	6,10	32,2
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	979.649	885.041	7,74	6,98	-9,7
	Gipuzkoako gainerakoak	812.244	442.344	2,02	1,10	-45,6
	Bilbo	1.211.118	-357.504	3,53	-1,04	-129,6
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	753.260	-67.695	1,76	-0,16	-109,0
	Bizkaiko gainerakoak	2.805.560	3.145.590	7,57	8,49	12,1
EGITURA, GUZTIRA	EAE	56.554.852	53.430.750	26,02	24,60	-5,5
	Gasteiz	11.072.637	11.350.092	46,00	47,01	2,2
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	544.288	507.930	18,96	17,75	-6,4
	Arabako gainerakoak	305.859	448.849	5,84	8,59	47,0
	Donostia	6.930.901	6.443.895	38,44	35,76	-7,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	3.694.599	3.549.513	29,17	28,01	-4,0
	Gipuzkoako gainerakoak	10.472.381	9.716.864	25,98	24,06	-7,4
	Bilbo	9.085.279	7.810.509	26,47	22,81	-13,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	7.800.612	6.908.618	18,25	16,23	-11,0
	Bizkaiko gainerakoak	6.648.296	6.694.480	17,94	18,06	0,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

26. taularen bitartez azter daiteke gizarte-zerbitzuen erdigunea osatzen duten alor bakoitzean egindako udal-gastua. 2016an, gizarte-zerbitzuen egitura mantentzeko udal-ekarpena biztanleko 24,60 eurokoa izan da. Horrek esan nahi du gastua -% 5,5 jaitsi dela 2015ean gertatutakoaren aldean, eta 2012ko 23,11 euroko gastura gerturatu dela.

Gasteizko eta Donostiako udalek xahutu dute gehien arlo honetan; hain zuzen ere, 47,01 eta 35,76 euro gastatu dute biztanleko, hurrenez hurren. EAEko batez bestekotik oso hurbil edo hortik pixka bat gora, 22,81 eta 28,01 euro arteko gastuarekin, daude Bilbo (22,81 euro) eta Gipuzkoako gainerako udalerriak (28,01 udalerrri nagusietan eta 24,06 Gipuzkoako gainerako udalerrietan). Batez besteko horren azpitik ditugu, argi eta garbi, 16,23 eta 18,06 euroekin, Bizkaiko gainerako udalerrriak (nagusiak zein besteak, 16,23 eta 18,06 hurrenez hurren) eta Arabako gainerako udalerrri nagusiak (17,75 euro). Gutxien Arabako gainerako udalerriek gastatu dute, 8,59 euro biztanleko, hain zuzen.

Azken dinamiketan ikus daiteke gastuak behera egin duela, nagusiki. Beherakada horiek -% 4 eta -% 7,4 artean daude Gipuzkoako zenbait eremutan eta Arabako udalerrri nagusietan (hiriburua alde batera utzita). Baina -% 10eko mugarrria gainditzera iristen dira Bilbon eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan.

Bizkaiko udalerrri txikiagoetan, aldiz, gastua arinki hazi da, % 0,7, baita Gasteizen ere, % 2,2. Arabako gainerako udalerrietan areagotzea % 47koa izan da, baina eremu horiek biztanleko gastuaren gutxieneko mailetan daude oraindik.

Garrantzitsua da esatea gizarte-zerbitzuen egituran gertatutako gastuaren beherakada, kuantitatiboki, egitura eta emaitza orokorrarekin lotuta dagoela; horrek alde on bat du, alegia, kudeaketaren emaitza orokorrean defizitari eutsi zaiola. Kasu honetan, 2015-2016 urteen artean biztanleko gastuan gertatutako jaitsiera -% 28,3koa da, biztanleko 4,24 eta 3,04 euro bitartekoa. Beherako joera orokorra da, Bizkaiko gainerako eremuetan eta Donostian salbu. Izan ere, bi esparru horietan biztanleko gastua areagotu egin da (% 12,1 eta % 32,2, zehazki).

Hain argia ez bada ere, gastua murrizteko joera zerbitzu tekniko espezializatuetara ere hedatzen da, biztanleko gastua 2015eko 4,06 eurotik 3,71 eurora jaitsi baitzen 2016an, hau da, -% 8,8 zenbateko erlatiboetan. Beherakadak EAEko batez bestekoaren mailakoak edo handiagoak izan ziren Donostian, Bilbon eta Bizkaiko udalerrri txikiagoetan. Bizkaiko beste udalerrri nagusietan, berriz, murrizketa arinagoa izan da (-% 1), eta Gasteizen ez da murrizketarik izan, % 1,8ko areagotzea baizik. Datu ona Gipuzkoako gainerako udalerrietan hauteman daiteke, partida hori % 15 hazi baita (% 18,9 udalerrri nagusietan eta % 25,9 gainerakoetan).

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen sisteman, dinamika ez da hain negatiboa. Biztanleko gastua ez da murriztu, aitzitik, areagotu egin da EAE osoan, 2015eko 17,72 eurotik 2016ko 17,85 eurora, hots, % 0,8. Datu horiek esanguratsuak diren arren, esparru batzuetara mugatzen dira egiazki: Gasteizera (% 12,3ko igoera), Arabako gainerako udalerrri nagusietara (% 10,2koa) eta Bilbora (% 8,9), hain zuzen ere.

EAEko gainerako eremuetan jaitsierak nagusitu dira. Jaitsiera horiek -% 3tik beherakoak izan dira Donostian (-% 1,8) eta EAEko gainerako udalerrri nagusietan, bai Gipuzkoan (-% 2,8) eta bai Bizkaian (-% 0,5). Ostera, -% 4,7 eta -% 6,9ko jaitsiera erlatiboetara iristen dira nagusiak ez diren Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrietan, hurrenez hurren, eta -% 14,4ko gutxienekora Arabako udalerririk txikienetan.



27. taulan daude jasota mendekotasunaren arretarekin, adinekoen arretarekin eta desgaitasuna/gaixotasunak dituzten pertsonentzako arretarekin lotutako jarduketetara bideratzen den udal-gastuaren inguruko datu nagusiak.

Adineko pertsonen arretarekin hasita, egiaztatu da 2016an kolektibo horretara bideratutako udal-gastua 15,77 eurokoa izan dela biztanleko; zifra hori aurreko urteko 16,87 euroak baino $-6,5\%$ urriagoa da. Gastu horren barruan, biztanleko 13,78 euro dagozkie egoitza-zentroei eta 1,99 euro eguneko zentroei eta adineko pertsonentzako beste zentro eta zerbitzuei.

Aipatzekoa da, beste behin, Gasteiz arlo honetan egin duen gastua, biztanleko 54,71 eurokoa izan baita. 2015eko datutik $-0,4\%$ jaitsi da; hala ere, zenbateko hori euskal batez bestekotik eta Euskadiko beste toki batzuek izan dutenetik askoz ere gorago dago. Batez bestekoaren gainetik daude Bizkaiko herri nagusiak ere, Bilbo alde batera utzita, biztanleko 20,82 euroko gastuarekin. Hala ere, gastua $-8,4\%$ jaitsi da udalerrri horietan 2015-2016 artean, 2012-2015 urteetan hautemandako gorako joera eten ondoren.

Erdibidean ditugu Gipuzkoako zenbait lurralde-esparru, 9,73 eta 10,80 euro bitarteko gastuarekin biztanle bakoitzeko. Zifra horiek jaitsiera nabarmenak islatzen dituzte, ordea, -30% ingurukoak edo hortik gorakoak, Donostian (17,40 eurotik 9,73ra) eta gainerako udalerrri nagusietan (15,21etik 10,80ra); horrela, 2012-2015 aldiaren hautemandako beherako joera luzatzen eta areagotzen da eremu horietan. Gipuzkoako udalerrri txikiagoetan, berriz, $19,8\%$ ko igoera izan da gastuan; 2012-2015 aldiko beherako joera hautsi dute eta 9,95 eurora igo dute biztanleko gastua 2016an.

Gipuzkoako eskualdeetatik nabarmen beherago dago badago ere, Bilbo, biztanleko 8,21 euroko gastuarekin, auzoko lurralde historikoko gastuaren zifretara gerturatzen da 2016an. Izan ere, $5,8\%$ areagotu da gastua Bizkaiko hiriburuan, 2015eko 7,76 euroekin alderatuta.

Adinekoen arretarako ekarpen-maila txikienetan daude Bizkaia eta Arabako gainerako udalerrri txikiak: 2016an, 4,38 eta 5,29 euro bitarteko gastua egin dute biztanleko. Gasturik txikiena Arabako udalerrri nagusiei dagokie, Gasteiz salbu: 1,30 euro biztanleko. Azken horietan izan ezik, biztanle bakoitzeko gastuak behera egin du 2015eko zifrekiko, gainera, beheko postuetako eremu horietan.

Azterketa zentro moten arabera eginez gero, adinekoentzako arretaren arloaren barruan, ikus daiteke 2015-2016 artean biztanleko gastua $0,8\%$ hazi dela eguneko zentroetan, nahiz eta biztanleko 1,98-1,99 euroren inguruan eutsi dion, funtsean. Egoitza-zentroei egindako ekarpena, berriz, $7,5\%$ jaitsi da. Biztanleko gastuari buruzko datuek islatzen duten joera nagusia, ordea, beherakoa da edo, asko jota, oso areagotze arinak gertatu dira, 1% etik beherakoak; beste modu batean esanda, egonkortzea adierazten dutenak.

Salbuespen nagusiak, egoitza-zentroen multzoan, Bilbon hautemandako gastuaren igoera ($4,4\%$) eta, nabarmenago, Gipuzkoako udalerrri txikienetan izandako $26,2\%$ ko igoera dira. Eguneko zentroen multzoan, aipagarria da Gasteizko $17,2\%$ ko areagotzea; Arabako udalerrri txikienetan gehikuntza $64,8\%$ iristen da, nahiz eta abiapuntuko mailak, 2015ean, oso baxuak ziren. Antzekoa gertatzen da Bilbon hautemandako biztanleko gastuaren $35,6\%$ gehikuntzarekin.

27. taula. Adinekoentzako, desgaitasunak/gaixotasunak dituztenentzako edo mendekotasun-arazoak dituztenentzako zentrozen eta zerbitzuen udal-gastu arrunta, udalerrri motaren arabera 2015-2016 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

Gastu eta udalerrri mota		2015	2016	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Egoitza-zentroak	EAE	32.355.500	29.924.419	14,89	13,78	-7,5
	Gasteiz	11.041.283	10.645.744	45,87	44,09	-3,9
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	0	0	0,00	0,00	
	Arabako gainerakoak	57.139	0	1,09	0,00	-100,0
	Donostia	3.214.740	1.830.845	17,83	10,16	-43,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	1.926.519	1.368.677	15,21	10,80	-29,0
	Gipuzkoako gainerakoak	3.127.087	3.952.560	7,76	9,79	26,2
	Bilbo	2.541.886	2.647.520	7,41	7,73	4,4
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	8.455.132	7.629.085	19,78	17,92	-9,4
	Bizkaiko gainerakoak	1.991.714	1.849.988	5,37	4,99	-7,1
Eguneko zentroak eta beste zentro/zerbitzu batzuk	EAE	4.297.447	4.328.733	1,98	1,99	0,8
	Gasteiz	2.181.107	2.563.256	9,06	10,62	17,2
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	22.708	37.297	0,79	1,30	64,8
	Arabako gainerakoak	227.525	228.810	4,34	4,38	0,7
	Donostia	-77.363	-77.363	-0,43	-0,43	0,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako gainerakoak	222.543	66.889	0,55	0,17	-70,0
	Bilbo	122.040	165.078	0,36	0,48	35,6
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	1.260.071	1.233.375	2,95	2,90	-1,7
	Bizkaiko gainerakoak	338.816	111.391	0,91	0,30	-67,1
ADINEKOAK	EAE	36.652.947	34.253.152	16,87	15,77	-6,5
	Gasteiz	13.222.390	13.209.000	54,93	54,71	-0,4
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	22.708	37.297	0,79	1,30	64,8
	Arabako gainerakoak	284.664	228.810	5,44	4,38	-19,5
	Donostia	3.137.377	1.753.482	17,40	9,73	-44,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	1.926.519	1.368.677	15,21	10,80	-29,0
	Gipuzkoako gainerakoak	3.349.630	4.019.449	8,31	9,95	19,8
	Bilbo	2.663.926	2.812.598	7,76	8,21	5,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	9.715.203	8.862.460	22,72	20,82	-8,4
	Bizkaiko gainerakoak	2.330.530	1.961.379	6,29	5,29	-15,9



27. taula. Adinekoentzako, desgaitasunak dituztenentzako edo mendekotasun-arazoak dituztenentzako zentroyen eta zerbitzuen udal-gastu arrunta, udalerrri motaren arabera. 2015 eta 2016
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

Jarraipena

Gastu eta udalerrri mota		2015	2016	2015	2016	2015/2016
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	aldiko bariazioa
DESGAITUAK/GAIXOAK	EAE	583.720	820.712	0,27	0,38	40,7
	Gasteiz	3.800	15.000	0,02	0,06	293,5
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	850	860	0,03	0,03	1,5
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
	Donostia	112.184	379.980	0,62	2,11	238,9
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako gainerakoak	5.000	69.516	0,01	0,17	1287,8
	Bilbo	154.388	34.612	0,45	0,10	-77,5
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	245.449	272.059	0,57	0,64	11,3
	Bizkaiko gainerakoak	62.049	48.685	0,17	0,13	-21,5
ETXEKO LAGUNTZA (laguntzaileei ematen zaiena barne)	EAE	41.815.121	37.156.562	19,24	17,11	-11,1
	Gasteiz	1.715.220	1.801.141	7,13	7,46	4,7
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	0	7.699	0,00	0,27	
	Arabako gainerakoak	0	51.895	0,00	0,99	
	Donostia	3.046.637	3.281.898	16,90	18,21	7,8
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	1.287.758	1.334.084	10,17	10,53	3,5
	Gipuzkoako gainerakoak	3.854.061	3.970.574	9,56	9,83	2,8
	Bilbo	13.285.083	12.013.681	38,71	35,08	-9,4
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	11.385.151	9.575.314	26,63	22,50	-15,5
	Bizkaiko gainerakoak	7.241.211	5.120.276	19,54	13,81	-29,3
ADINEKOAK/DESGAITASUNAK/MENDEKOTASUNA, GUZTIRA	EAE	79.051.788	72.230.426	36,38	33,26	-8,6
	Gasteiz	14.941.410	15.025.141	62,08	62,23	0,2
	Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	23.558	45.856	0,82	1,60	95,3
	Arabako gainerakoak	284.664	280.705	5,44	5,37	-1,2
	Donostia	6.296.198	5.415.360	34,92	30,06	-13,9
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	3.214.277	2.702.761	25,38	21,33	-16,0
	Gipuzkoako gainerakoak	7.208.691	8.059.539	17,88	19,96	11,6
	Bilbo	16.103.397	14.860.891	46,92	43,39	-7,5
	Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	21.345.803	18.709.833	49,93	43,96	-12,0
	Bizkaiko gainerakoak	9.633.790	7.130.340	25,99	19,23	-26,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika
 Oharra: Amaierako osoan Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren hondar-partida bat gehitu da.

Etxeko laguntzari eta zaintzaileentzako arretari dagokienez, Euskadiko batez besteko udal-ekarpena oso esanguratsua da oraindik 2016an, adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetara bideratzen diren biztanleko 15,77 euroak gaintitzen baititu. Programa honen kasuan, biztanleko udal-ekarpena 17,11 eurokoa izan da 2016an. Zenbateko hori 2015ekoa (19,24) baino nabarmen baxuagoa da, -% 11,1, hain zuzen ere. Programa horren udal-gastua 2012ko 17,89 euro baino are txikiagoa izan da 2016an.

Etxeko laguntzaren arloan, Bizkaiko eskualde batzuetan biltzen da biztanleko gasturik altuena Gehienekoak Bilbori eta Bizkaiko udalerrri nagusiei dagozkie, biztanleko 35,08 eta 22,50 euroko ekarpenekin, hurrenez hurren; gainerako udalerrietan biztanleko udal-gastua 13,81 eurokoa izan da. 2015-2016ko aldian, hala ere, programa horietara bideratutako ekarpenaren jaitsiera da ezaugarri aipagarriena Bizkaia osoan, 2015ekoarekin ez ezik, 2012koarekin alderatuta ere jaitsi baita. Biztanleko gastuari erreparatuta, 2015-2016 aldiko murrizketa -% 9,4koa izan da Bilbon, -% 15,5koa gainerako udalerrri nagusietan eta -% 29,3koa udalerrri txikiagoetan. Lurralde historiko honetan, foru-gastua % 71,4 areagotu da, ordea, etxeko laguntzako programetan, 2015-2016 biurtekoan.

Etxeko laguntzaren arloan udalek egindako ekarpenaren jaitsiera ez dator bat EAEko gainerako eskualdeetan 2015-2016ko aldian izandako hazkunde-lerroarekin, hiriburuetan, batik bat. Donostian eta Gasteizen, hasteko, etxeko laguntzan eta zaintzaileak babesteko programetan egindako udal-gastua % 7,8 eta % 4,7 areagotu da, hurrenez hurren. Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan % 3,5eko gehikuntza izan da, eta herri txikiagoetan % 2,8koa.

Igoera horien ostean, Donostiak Bizkaiko herrialde txikienetako mailak gainditzen baditu (2016an altuagoak ziren) eta euskal batez bestekoaren gainetik badago ere, herritar bakoitzeko xahututako 18,21 euroak oraindik ere ez dira iristen Bilboko eta Bizkaiko beste udalerrri nagusietako gehieneko mailetara. Gipuzkoako eta Arabako gainerako udalerrriak, bestalde, Bizkaiko herrietako mailaren azpitik gelditu dira. Gipuzkoan, zifrak 10 euroren inguruan daude (10,53 udalerrri nagusietan eta 9,83 gainerakoetan), eta 7,46 euroko udal-gastua izan dute herritar bakoitzeko Gasteizen. Hiriburutik kanpo, Araban oso urria izan da 2016an programa mota horietan egindako ekarpena, herritar bakoitzeko euro batekoa edo gutxiagokoa.

Mendekotasunari ematen zaion udal-arreta aztertzean, adierazgarria da 2015-2016 urteen artean % 40,7 areagotu dela desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako biztanleko gastua. Udal-gastu hori oso baxua da 2016an, hala ere, biztanle bakoitzeko 0,38 eurokoa besterik ez. Herritar bakoitzeko euro bat baino gehiagoko gastu bakarra Donostian izan da 2016an (2,11 euro, zehazki).

Guztira, udalek adineko pertsonen, desgaitasun/gaixotasunen bat dutenei eta mendeko pertsonen bideratzen dieten biztanleko zenbatekoa urteko 33,26 eurokoa izan zen 2016an, hau da, 2015eko 36,38 euroak baino -% 8,6 gutxiago. Gastu hori 2012ko 34,96 euroen azpitik dago, baita ere, horrenbestez, udal-gastuan ikusitako beherakada oso esanguratsua da, programa horietan ia orokorra izan baita 2015-2016ko aldian.

Gertuagotik begiratuta, gasturik altuena Gasteizi dagokio, 62,23 euroekin, Bilboko biztanleko 43,39en eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietako 43,96 euroen gainetik. Donostia erdiko mailetan dago, herritar bakoitzeko 30,06 euroko gastuarekin, baina euskal batez bestekoaren azpitik, dagoeneko. Batez besteko horretatik askoz beherago daude, 19,2 eta 21,3 euro bitarteko gastuarekin, Gipuzkoako gainerako udalerrriak (21,33 udalerrri nagusietan eta 19,96 euro gainerako udalerrietan), bai eta Bizkaiko udalerrri txikienetan ere (19,23).

Gasteiztik kanpora, Arabako gainerako udalerrietan sektore honetako gastua oso baxua da orain arteko esandakoarekin alderatuta: 1,60 euro biztanleko udalerrri nagusietan eta 5,37 euro gainerako udalerrietan.



Zenbateko erlatiboak aztertuz gero, 2015-2016 aldiko bilakaera beherakorra da aztertutako programa guztien herritar bakoitzeko gastuan. -% 7,5 jaitsi da Bilbon, eta -% 10 baino gehiago Bizkaiko gainerako herrietan zein Gipuzkoako udalerrri nagusietan, hiriburua barne. Araban gastua egonkortu da (Gasteizen +% 0,2), edo beherakada txikiak izan dira (-% 1,2 Arabako udalerrri txikietan); Arabako udalerrri nagusietan ikusitako areagotzeak ez du irudi hori aldatzen, sektore honi egindako ekarpena oso urria baita. Orotara, biztanleko gastua esparru bakar batean areagotu da nabarmenki 2015-2016an: Gipuzkoako udalerrri txikietan, % 11,6ko igoera izan baita.

Mendekotasun-arazoak dituzten kolektiboen arretaren arloarekin alderatuta, haurrak, gazteak, familiak, emakumeak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babestera bideratutako udal-gastua are urriagoa izan da 2016an, 28. taulan egiazta daitekeen bezala. Urte horretan, gastua biztanleko 15,09 eurokoa izan da. 2012ko zifratik (12,44) hautemandako areagotze-ildoari eutsi zaio, hala ere, eta 2016an biztanle bakoitzeko egindako gastuak % 4,3ko igoera izan du 2015eko 14,47 euroekin alderatuta.

Oraingoan ere, herritar bakoitzeko gasturik handiena Gasteizek izan du, 40,21 euro, zehazki, 2015ean izandako 38,31 euro baino % 4,9 gehiago. Bigarren tokian dago Bilbo, 26,70 euroekin, 2015ean baino % 5,9 gehiago. Donostiako biztanle bakoitzeko ekarpenak ere gaintzen du batez bestekoa, 19,20 euroekin, 2015ean baino % 5,1 gehiago.

Biztanleko gastua nabarmen urriagoa da Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan: 11,75 eta 8,84 euro, hurrenez hurren. 2015-2016ko aldian Bizkaiko udalerrri horietan herritar bakoitzeko gastua % 2 areagotu den bitartean, Gipuzkoako udalerrri nagusietan areagotze hori % 16,2ra iritsi da.

Gastua 6,13 eta 6,88 eurotan gelditu da herritar bakoitzeko Bizkaiko eta Gipuzkoako beste udalerrrietan. Azken multzo horietan, Bizkaiko udalerrrietan gastua % 2,4 areagotu da, eta gipuzkoarretan -% 4,6 jaitsi.

Arabian, berriz, Gasteiztik kanpo gastuak behera egin du 2015-2016ko aldian. Horrek are gehiago markatzen du udalerrri horien muturreko tokia adingabeak, familiak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko egindako gastuari dagokionez, EAEko mailatik oso urruti baitaude (4,65 euro biztanleko gainerako udalerrri nagusietan eta 0,41 euro besterik ez Arabako herri txikiagoetan).

Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko gastuari soilik erreparatuz gero, udal-gastua familiako esku-hartzera bideratzen da nagusiki: 7,81 euro biztanleko; genero-indarkeriaren eta tratu txarren biktima izan diren biktimei, berriz, 1,17 euro bideratzen zaizkio eta adingabeentzako egoitza-zentroei 0,81 euro.

Gastu mota horretan gorako joera hauteman da 2015-2016ko aldian, hala ere, herritar bakoitzeko gastua % 0,9 areagotu baita egoitza-zentroetan, % 4,4 familiako esku-hartzean eta % 58,6 indarkeriaren biktimak diren pertsonentzako arretan.

Gizarte-zerbitzuen arloari osoki begiratuta, udal-gastua biztanleko 9,03 euro izatetik 9,80 euro izatera igaro da 2015etik eta 2016ra, % 8,5eko igoerarekin.

28. taula. Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta udalerrri motaren arabera 2015-2016 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

		2015	2016	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
Gastu eta udalerrri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Adingabeen egoitza-zentroak	EAE	1.748.454	1.763.142	0,80	0,81	0,9
	Gasteiz	1.748.454	1.763.142	7,26	7,30	0,5
	Arabako beste udalerrri nausi batzuk	0	0	0,00	0,00	
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
	Donostia	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako beste udalerrri nausi batzuk	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
	Bilbo	0	0	0,00	0,00	
	Bizkaiko beste udalerrri nausi batzuk	0	0	0,00	0,00	
	Bizkaiko gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
Tratu txarren arreta (emakumeak)	EAE	1.603.371	2.540.651	0,74	1,17	58,6
	Gasteiz	521.637	1.319.214	2,17	5,46	152,1
	Arabako beste udalerrri nausi batzuk	735	357	0,03	0,01	-51,3
	Arabako gainerakoak	0	1.049	0,00	0,02	
	Donostia	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako beste udalerrri nausi batzuk	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako gainerakoak	32.660	25.259	0,08	0,06	-22,8
	Bilbo	157.500	302.185	0,46	0,88	92,3
	Bizkaiko beste udalerrri nausi batzuk	650.358	686.441	1,52	1,61	6,0
	Bizkaiko gainerakoak	240.481	206.146	0,65	0,56	-14,3
Familiako esku-hartzea (harrera/adopzioa barne)	EAE	16.269.629	16.970.382	7,49	7,81	4,4
	Gasteiz	2.138.826	2.196.719	8,89	9,10	2,4
	Arabako beste udalerrri nausi batzuk	135.092	126.590	4,71	4,42	-6,0
	Arabako gainerakoak	20.358	14.521	0,39	0,28	-28,5
	Donostia	1.260.427	1.353.091	6,99	7,51	7,4
	Gipuzkoako beste udalerrri nausi batzuk	565.102	744.107	4,46	5,87	31,6
	Gipuzkoako gainerakoak	2.661.933	2.577.226	6,60	6,38	-3,4
	Bilbo	4.694.901	5.181.672	13,68	15,13	10,6
	Bizkaiko beste udalerrri nausi batzuk	2.909.213	2.788.449	6,80	6,55	-3,7
	Bizkaiko gainerakoak	1.883.777	1.988.007	5,08	5,36	5,5
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIA, EMAKUMEAK	EAE	19.621.454	21.274.175	9,03	9,80	8,5
	Gasteiz	4.408.917	5.279.075	18,32	21,86	19,4
	Arabako beste udalerrri nausi batzuk	135.827	126.947	4,73	4,44	-6,2
	Arabako gainerakoak	20.358	15.570	0,39	0,30	-23,4
	Donostia	1.260.427	1.353.091	6,99	7,51	7,4
	Gipuzkoako beste udalerrri nausi batzuk	565.102	744.107	4,46	5,87	31,6
	Gipuzkoako gainerakoak	2.694.593	2.602.485	6,69	6,45	-3,6
	Bilbo	4.852.401	5.483.857	14,14	16,01	13,3
	Bizkaiko beste udalerrri nausi batzuk	3.559.571	3.474.890	8,33	8,16	-1,9
	Bizkaiko gainerakoak	2.124.258	2.194.153	5,73	5,92	3,3



**28. taula. Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen udal-gastu arrunta, udalerrri motaren arabera. 2012 eta 2015
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)**

Jarraipena

Gastu eta udalerrri mota		2015	2016	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Egoitza- eta harrera-zentroak	EAE	9.087.019	8.951.866	4,18	4,12	-1,4
	Gasteiz	3.550.076	3.551.281	14,75	14,71	-0,3
	Arabako beste udalerrri nausi batzuk	0	6.162	0,00	0,22	
	Arabako gainerakoak	7.242	5.636	0,14	0,11	-22,0
	Donostia	1.821.847	1.796.655	10,11	9,97	-1,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nausi batzuk	455.183	472.092	3,59	3,73	3,6
	Gipuzkoako gainerakoak	209.596	173.367	0,52	0,43	-17,4
	Bilbo	2.831.795	2.688.021	8,25	7,85	-4,9
	Bizkaiko beste udalerrri nausi batzuk	122.463	227.456	0,29	0,53	86,6
	Bizkaiko gainerakoak	88.817	31.196	0,24	0,08	-64,9
Beste zentro eta zerbitzu batzuk	EAE	2.730.741	2.539.274	1,26	1,17	-7,0
	Gasteiz	1.262.751	877.284	5,25	3,63	-30,7
	Arabako beste udalerrri nausi batzuk	0	0	0,00	0,00	
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
	Donostia	213.421	310.341	1,18	1,72	45,5
	Gipuzkoako beste udalerrri nausi batzuk	260.985	273.422	2,06	2,16	4,7
	Gipuzkoako gainerakoak	2.316	3.079	0,01	0,01	32,7
	Bilbo	965.973	971.080	2,81	2,84	0,7
	Bizkaiko beste udalerrri nausi batzuk	20.000	58.500	0,05	0,14	193,8
	Bizkaiko gainerakoak	5.295	45.568	0,01	0,12	760,5
BAZTERTUAK	EAE	11.817.760	11.491.140	5,44	5,29	-2,7
	Gasteiz	4.812.827	4.428.565	20,00	18,34	-8,3
	Arabako beste udalerrri nausi batzuk	0	6.162	0,00	0,22	
	Arabako gainerakoak	7.242	5.636	0,14	0,11	-22,0
	Donostia	2.035.268	2.106.996	11,29	11,69	3,6
	Gipuzkoako beste udalerrri nausi batzuk	716.168	745.514	5,66	5,88	4,0
	Gipuzkoako gainerakoak	211.912	176.446	0,53	0,44	-16,9
	Bilbo	3.797.768	3.659.101	11,06	10,68	-3,4
	Bizkaiko beste udalerrri nausi batzuk	142.463	285.956	0,33	0,67	101,6
	Bizkaiko gainerakoak	94.112	76.764	0,25	0,21	-18,4
ADINGABEAK, GAZTEAK, FAMILIAK, EMAKUMEAK ETA BAZTERTUAK, GUZTIRA	EAE	31.439.214	32.765.315	14,47	15,09	4,3
	Gasteiz	9.221.744	9.707.640	38,31	40,21	4,9
	Arabako beste udalerrri nausi batzuk	135.827	133.109	4,73	4,65	-1,7
	Arabako gainerakoak	27.600	21.206	0,53	0,41	-23,0
	Donostia	3.295.695	3.460.087	18,28	19,20	5,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nausi batzuk	1.281.270	1.489.621	10,12	11,75	16,2
	Gipuzkoako gainerakoak	2.906.505	2.778.931	7,21	6,88	-4,6
	Bilbo	8.650.169	9.142.958	25,20	26,70	5,9
	Bizkaiko beste udalerrri nausi batzuk	3.702.034	3.760.846	8,66	8,84	2,0
	Bizkaiko gainerakoak	2.218.370	2.270.917	5,98	6,13	2,4

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika

Haurrak, gazteak, familiak eta emakumeak babesteko esparruan, gasturik handiena Gasteizek eta Bilbok izan dute, 21,86 eta 16,01 euro, hurrenez hurren. Gasteizko gastu-aldearen zati erabakigarri bat udalerrri horretan adingabeei egoitza-arreta emateko gauzatutako jarduketan datza (7,30 euro biztanleko, EAEko 0,81 euroko batez bestekotik urruti), bai eta tratu txarrak edo indarkeria jasan duten emakumeen babesean ere (5,46 euro biztanleko, EAEko 1,17 euroko batez bestekoaren boskoitza ia).

Arabako gainerako udalerrriak salbuespena dira, ordea: udalerririk txikienetan biztanleko gastua ez da 0,30etik igotzen, eta udalerrri nagusietan 4,44 euroko gastua egin dute biztanleko, asko jota (Gasteizen salbu); EAEko gainerako eskualdeetan, berriz, udal-gastua herritar bakoitzeko 5,87 eta 8,16 euro artekoa izan da arlo honetan.

Hurrei, gazteei eta familiei bideratutako udal-gastuaren dinamikan desberdintasunak izan dira 2015-2016an toki batetik bestera. Biztanle bakoitzeko gastuaren hazkunderik handienak, % 13tik gorakoak, Gasteizen (% 19,4), Bilbon (% 13,3) eta Gipuzkoako udalerrri nagusietan (% 31,6) gertatu dira. Hazkundera urriagoa izan da Gipuzkoako hiriburuan, baina nabarmena, hori ere (% 7,4).

Aipatutako eremu horietan eta Bizkaiko herri txikienetan salbu (non gastua % 3,3 hazi den), 2015-2016ko aldian EAEko gainerako eskualdeetan udal-gastuak behera egin du. Biztanle bakoitzeko gastua -% 1,9 jaitsi da, zehazki, Bizkaiko udalerrri nagusietan (Bilbo salbu), -% 3,6 Gipuzkoako udalerrri txikietan eta -% 6tik gora Araban (Gasteiz alde batera utzita).

2015 eta 2016 aldietan herritar bakoitzeko gastua gehien areagotu den eremuetan, azpimarragarria da, bestalde, Gasteizen eta Bilbon tratu txarren biktimei arreta emateko arloan izandako areagotzea (% 152,1 eta % 92,3, hurrenez hurren). Aipatzekoa da, orobat, Gipuzkoako udalerrri nagusietan familiako esku-hartze programetan zenbat igo den biztanleko gastua (% 7,4 Donostian eta % 31,6 gainerako udalerrri nagusietan), baita Bilbon ere (% 10,6).

2016an, bazterkeriari aurka egiteko udal-gastua biztanleko 5,29 eurokoa da biztanleko. 2012-2015 aldiko gorako joeraren ondoren, horrek -% 2,7ko jaitsiera ekarri du 2015-2016 urteen artean. Egoitza- eta harrera-zentroetan, berriz, murrizketa -% 1,4koa izan da, 2016ko gastua biztanleko 4,12 euro izan direla. Bazterkeriaren sektoreko gainerako zentro eta zerbitzuetan, ekarpena 1,17 eurokoa izan da biztanleko, 2015-2016ko aldian; hau da, -% 7,0ko jaitsiera izan da.

Bazterkeriari aurka egiteko programetan, Gasteizen egindako gastua nabarmen altuagoa da gainerakoekin alderatuta, herritar bakoitzeko 18,34 euro bideratu baititu programa horietara. 2012-2015 aldian izandako areagotzearen ostean, zifra horrek -% 8,3ko jaitsiera dakar, hala ere, 2015ean biztanleko bideratu ziren 20 euroekin alderatuta. Jaitsiera hori egoitzaz kanpoko ekintzekin lotuta dago ia guztiz.

2016an, Donostiako eta Bilboko biztanle bakoitzeko gastuak ere izan dira EAEko batez bestekotik gorakoak; 11,69 eta 10,68 eurokoak, hurrenez hurren. Gipuzkoako hiriburuan gastua % 3,6 areagotu da 2015ekoaren ondoan, eta Bizkaikoan -% 3,4 murriztu.

Gainerako eskualdeetan ia ez da ezer gastatu bazterkeriari aurka egitera bideratutako programetan (biztanleko 0,70 euro, gehien jota). Salbuespen bakarra Gipuzkoako udalerrri nagusiak dira (Donostia kanpo), biztanleko 5,88 euroko ekarpena egin baitute. Gastua % 4 igo da eta, horrenbestez, aipatutako Gipuzkoako udalerrri horietan gastu jakin horren gorako joerari eutsi diote.



29. taulak, azkenik, GLLen, gizarte-urgentzien eta antzeko prestazioen udal-gastuari buruzko adierazleak aurkezten ditu. Prestazio horietan, 2016ko biztanleko gastua 9,00 eurokoa izan zen. 2012 eta 2015 artean herritar bakoitzeko ekarpena % 130,3 igo ondoren, gorako joerari eutsi zaio 2016an, 2015eko 8,50 euroko gastuaren ondoren % 5,9ko igoera izan baita.

2015-2016 aldiaren dinamikak alde handiak ditu, ordea, eremu batetik bestera. Gorakada hori udalerrri batzuetara mugatzen da, soilik, baina horietan nabarmena izan da. Adibidez, % 10 baino gehiago igo zen prestazioetara bideratutako gastua Gasteizen, Arabako beste udalerrri nagusietan, Bilbon eta Gipuzkoako udalerrri nagusietan, Donostian izan ezik.

Aipatutako udalerrri horietatik kanpo, prestazioei egindako biztanleko ekarpena % 0,4 besterik ez zen hasi Gipuzkoako herri txikienetan, eta gainerakoetan behera egin zuen. Beherakada horiek -% 2,9 eta -% 5,6 bitartekoak izan ziren Donostian eta Bizkaiko udalerrietan (Bilbon salbu). Gainera, -% 33,1era iritsi zen Arabako udalerrri txikienetan.

Ikusitako askotariko bilakaera horiek gorabehera, biztanleko gastu altuena prestazio horietan Gasteizen eta Donostian gertatu zen beste behin (28,04 eta 21,59 euro herritar bakoitzeko, hurrenez hurren). Maila horietatik nahiko beherago dago, baina batez bestekoaren gainetik, Arabako gainerako udalerrri nagusietako biztanleko ekarpena: 13,29 euro.

Maila askoz baxuagoetan, biztanleko gastua 8,33 eta 6,01 eurokoa izan zen Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan, hurrenez hurren. Lurralde historiko horietako udalerrri txikiagoetan, aldiz, 5,04 eta 4,53 eurokoa izan zen gastua, hurrenez hurren.

Gastu-mailarik urrienen artean daude Bilbokoa (3,29 euro), 2015-2016 biurtekoan % 22,3 areagotu zen arren, eta Arabako gainerako udaletakoa (1,02 euro).

29. taula. GLLen, gizarte-urgentzien eta antzeko prestazioen udal-gastu arrunta, udalerrri motaren arabera. 2015-2016

(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta biztanle bakoitzeko gastuaren ehunekoan izandako bariazioa 2015-2016ko aldian)

Prestazio mota eta lurralde historikoa	2015		2016		2015/2016 aldiko bariazioa
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
Beste gizarte-prestazio batzuk	18.468.582	19.547.571	8,50	9,00	5,9
EAE					
Gasteiz	5.958.393	6.769.142	24,75	28,04	13,3
Arabako beste udalerrri nagusi batzuk	257.720	380.161	8,98	13,29	48,0
Arabako gainerakoak	79.596	53.185	1,52	1,02	-33,1
Donostia	4.047.067	3.889.708	22,45	21,59	-3,8
Gipuzkoako beste udalerrri nagusi batzuk	754.098	1.055.408	5,95	8,33	39,9
Gipuzkoako gainerakoak	2.025.288	2.036.039	5,02	5,04	0,4
Bilbo	922.497	1.125.521	2,69	3,29	22,3
Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuk	2.644.729	2.557.805	6,19	6,01	-2,9
Bizkaiko gainerakoak	1.779.194	1.680.602	4,80	4,53	-5,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika



5. Gizarte-zerbitzuetako langileak

Atal honetan xehetasunez aztertzen da gizarte-zerbitzuen erdigunean diharduten langileen egitura, langile multzo horren ezaugarriak diren sektoreko alderdiak ez ezik, alderdi hertsiki profesionalak ere aintzat hartuz.

5.1. Alderdi orokorrak

30. taulan ikus daitekeen bezala, 2016ko abenduaren 15ean, gizarte-zerbitzuen erdiguneak berezko 18.521 langile zituen. Aurreko urteetan, okupazioak etengabe egin zuen gora (+% 8,3 2012 eta 2015 artean); 2015-2016 urteen artean gorako joera hori azkartu zen, % 4ko igoera izan baitzen 2015eko 17.815 langileen aldean.

Urteko batez besteko langile kopurua aintzat hartuz gero, aztertutako berezko langileen kopurua zertxobait altuagoa zen, 18.794 langile hain zuzen ere. Multzo horretan hazkundea zertxobait txikiagoa da, ordea, 2015-2016ko aldian, % 3koa.

LOB⁶ langileei dagokionez, 2016ko abenduaren 15ean 15.352 berezko langile zeuden, hau da, 2015ean baino % 3,1 gehiago. Kasu horretan, urteko batez besteko langile kopurua zertxobait baxuagoa zen, hain zuzen ere 15.270 pertsona, baina urtez urteko hazkunde handiagoarekin. Zehazki, urteko batez besteko langile kopurua % 3,4 hazi zen 2015eko 14.771 langileen aldean.

**30. taula. Gizarte-zerbitzuen erdiguneak zituen langileen adierazleak
(Datu absolutuak, % bertikalak eta 2015-2016 bariazioa ehunekotan)**

	2013	2014	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%
Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	16.788	17.446	17.815	18.521	4,0
Urteko batez besteko langileak: berezkoak	16.948	17.809	18.254	18.794	3,0
Langileak, guztira: azpikontratatuak	6.416	6.509	6.682	7.041	5,4
Langileak, guztira: boluntarioak	2.153	2.431	2.739	2.911	6,3
Abenduaren 15eko langileak, LOB:	14.005	14.484	14.889	15.352	3,1
Urteko batez besteko langileak, LOB:	13.931	14.420	14.771	15.270	3,4
Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	5.236	5.359	5.512	5.644	2,4
Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	294	285	274	275	0,2
LOB, GUZTIRA	19.461	20.064	20.558	21.188	3,1
Berezko LOB langileen %	71,6	71,9	71,9	72,1	
Azpikontratatuak LOB langileen %	26,9	26,7	26,8	26,6	
LOB boluntarioen %	1,5	1,4	1,3	1,3	

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

2016an 7.041 pertsona azpikontratatu zirela zenbatesten da, hau da, 2015ean baino % 5,4 gehiago. LOB langileei dagokionez, zenbateko hori 5.644 pertsonara jaisten da, 2015eko 5.512ak baino % 2,4 gehiago dira.

⁶ LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu).

Sektoreko boluntarioen kopurua aipagarria bada ere (2.911 pertsona 2016an), zenbateko hori ez da hain nabarmena LOB kontuan hartuta. Lanaldi osoko 275 pertsonaren baliokideak izango lirateke, hau da, 2012ko 322ak baino gutxiago. 2015-2016 urteetan, LOB boluntarioen kopurua apenas hazi den % 0,2.

Orotara, gizarte-zerbitzuen erdigunean, LOBri dagokionez, 2016an 21.188 langile egon direla zenbatesten da. Langileen bolumen horrek etengabeko goranzko joera islatzen zuen 2012-2015 aldian; izan ere, 2012an zeuden 18.998 langileen aldean % 8,2 egin zuen gora. 2015-2016 biurtekoan ere luzatu da goranzko joera hori, % 3,1eko gehikuntzarekin, 2015ean zeuden 20.558 pertsonen aldean.

Kolektibo horren barruan, berezko LOB langileen pisu erlatiboak 2012an % 73,2 izatetik 2013an % 71,6 izatera egin zuen, eta ordudanik gora egin du etengabe, 2016an % 72,1era iritsi arte. Behera egin du, ostera, boluntarioen pisu erlatiboak. LOB ari zirenak % 1,7 ziren 2012an eta % 1,3 2015ean; ehuneko horri eutsi zaio, hain justu, 2016an.

Azpiktratatutako langileak areagotu ziren gehien 2013ra arte: 2012an guztizkotik % 25,2 izatetik 2013an guztizkotik % 26,9 izatera igaro baitziren. Ordudanik proportzioak arinki egin du behera, ordea, 2016an boluntarioen % 26,6 baitziren (% 26,7 2014an eta % 26,8 2015ean).

5.2. Enpleguaren sektorekako banaketa

31. eta 32. taulek enpleguaren sektorekako banaketari buruzko informazioa ematen dute, arreta-sektorearen arabera, bai zifra orokorretan eta bai LOB kontuan hartuta. Gizarte-zerbitzuetako langileen barne-banaketa LOB kontuan hartuta aztertzean (gehiago doitzen baitzaio enpleguaren epe luzeko jarraipenari), ikus daiteke enplegu gehienak adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuen inguruan biltzen direla. Jarduera-esparru horrek 13.096 enplegu bildu zituen 2016an (LOB), guztizkoaren % 61,8, alegia. Proportzioa arinki jaitsi da 2015eko % 61,9tik, arreta-sektore honetan LOB enplegua pixka bat gutxiago hazi delako (% 2,9 hazi zen 2015-2016 artean, batez besteko hazkundea % 3,1 izanik).

Langileen banaketan eragin askoz ere txikiagoa badute ere, lanpostu ugari biltzen dituzte desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen arreta emateko zerbitzuek ere. Kasu horretan, LOB diharduten 3.414 langile daude, eta kopuru hori % 6,5 hazi da 2015eko 3.206 langileen ondoan (hazkunde-erritmoa batez bestekoaren bikoitza baino gehiago da, beraz). Gizarte-zerbitzuen barrukotzat jotako enpleguaren pisua 2015ean guztizkoaren % 15,6 izatetik % 16,1 izatera igaro da 2016an; proportzio hori 2012 eta 2014 artean ohikoak ziren % 16-16,2 zifretatik gertuago dago.

Sektorekako arreta-esparruan, langileen beste % 7,3 haurren, gazteen, emakumeen eta familien sektorean aritzen da (1.546 LOB enplegu). Lanpostu asko sortzen ari den sektorea da; hain zuzen ere, LOB enplegua % 11,5 areagotu zen 2015-2016 artean. Aldi batez enplegu guztiaren % 6,6 eta % 6,9 artean egon ondoren, proportzioa 2015ean % 6,7 izatetik 2016an % 7,3 izatera igaro zen.

Bazterkeriaren sektorean 927 lanpostu daude (LOB), guztizkoaren % 4,4. Kasu horretan, enplegu-sorkuntza egonkortu egin da, 2015eko 926 lanpostuen aldean % 0,1 besterik ez baita hazi, eta 2014ko 975 lanpostuetatik urruti baitago oraindik (orduan enplegu osoaren % 4,9 zen).

Azkenik, egiturari dagokion enpleguak 2.204 lanpostu biltzen ditu. Multzo honetan, enpleguaren bilakaera-lerroa beherakoa da, -% 4,4 galdu baitira 2015ean zeuden 2.306 lanpostuekin alderatuta. LOB enpleguak gizarte-zerbitzuetan duen pisua ere jaitsi egin da 2015-2016ko aldian, % 11,2tik % 10,4ra (proportziorik baxuena 2012. urteaz geroztik).



31. taula.

Gizarte-zerbitzuetako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen arabera. Datu orokorrak
(Datu absolutuak, guztizkoarekiko ehunekoa adierazle bakoitzeko, eta zifra absolutuen 2015-2016 aldiko
bariazioa ehunekotan)

Arreta-sektorea		2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	%
EGITURA	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	2.263	2.285	2.338	2.350	13,5	13,1	13,1	12,7	0,5
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	2.253	2.335	2.383	2.370	13,3	13,1	13,1	12,6	-0,5
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	253	310	349	276	3,9	4,8	5,2	3,9	-20,9
	Langileak, guztira: boluntarioak	0	0	26	1	0,0	0,0	0,9	0,0	-96,2
ADINEKOAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	9.580	9.969	10.315	10.702	57,1	57,1	57,9	57,8	3,8
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	9.736	10.214	10.625	10.866	57,4	57,4	58,2	57,8	2,3
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	4.316	4.379	4.471	4.758	67,3	67,3	66,9	67,6	6,4
	Langileak, guztira: boluntarioak	525	501	563	555	24,4	20,6	20,6	19,1	-1,4
DESGAITASUNA GAIXOTASUNA	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	3.583	3.777	3.753	3.968	21,3	21,6	21,1	21,4	5,7
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	3.593	3.833	3.835	4.031	21,2	21,5	21,0	21,4	5,1
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	425	424	482	546	6,6	6,5	7,2	7,8	13,3
	Langileak, guztira: boluntarioak	477	483	493	647	22,2	19,9	18,0	22,2	31,2
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK ETA EMAKUMEAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	337	356	387	413	2,0	2,0	2,2	2,2	6,7
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	338	362	385	416	2,0	2,0	2,1	2,2	8,1
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	1.208	1.193	1.179	1.245	18,8	18,3	17,6	17,7	5,6
	Langileak, guztira: boluntarioak	70	82	104	95	3,3	3,4	3,8	3,3	-8,7
BAZTERTUAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	1.025	1.059	1.022	1.088	6,1	6,1	5,7	5,9	6,5
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	1.028	1.065	1.026	1.111	6,1	6,0	5,6	5,9	8,3
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	214	203	201	216	3,3	3,1	3,0	3,1	7,5
	Langileak, guztira: boluntarioak	1.081	1.365	1.553	1.613	50,2	56,1	56,7	55,4	3,9
GUZTIRA	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	16.788	17.446	17.815	18.521	100	100	100	100	4,0
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	16.948	17.809	18.254	18.794	100	100	100	100	3,0
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	6.416	6.509	6.682	7.041	100	100	100	100	5,4
	Langileak, guztira: boluntarioak	2.153	2.431	2.739	2.911	100	100	100	100	6,3

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

32. taula. Gizarte-zerbitzuetako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen arabera. LOB datuak (Datu absolutuak, guztizkoarekiko ehunekoa adierazle bakoitzeko, eta zifra absolutuen 2015-2016 aldiko bariazioa ehunekotan)

		2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
Arreta-sektorea		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Guztizko- aren %a	Guztizko- aren %a	Guztizko- aren %a	Guztizko- aren %a	%
EGITURA	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	1.940	1.962	2.029	2.029	13,8	13,5	13,6	13,2	0,0
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	1.909	1.945	2.026	2.018	13,7	13,5	13,7	13,2	-0,4
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	206	239	267	187	3,9	4,5	4,8	3,3	-30,1
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	0	0	13	0	0,0	0,0	4,8	0,0	-99,8
	LOB, GUZTIRA	2.115	2.184	2.306	2.204	10,9	10,9	11,2	10,4	-4,4
	Berezko LOB langileen %	90,3	89,0	87,8	91,5					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	9,7	11,0	11,6	8,5					
LOB boluntarioen %	0,0	0,0	0,6	0,0						
ADINEKOAK	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	8.344	8.663	8.983	9.282	59,6	59,8	60,3	60,5	3,3
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	8.392	8.705	8.963	9.251	60,2	60,4	60,7	60,6	3,2
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	3.500	3.595	3.707	3.787	66,8	67,1	67,3	67,1	2,1
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	88	53	62	58	29,9	18,6	22,8	21,2	-6,7
	LOB, GUZTIRA	11.979	12.353	12.733	13.096	61,6	61,6	61,9	61,8	2,9
	Berezko LOB langileen %	70,1	70,5	70,4	70,6					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	29,2	29,1	29,1	28,9					
LOB boluntarioen %	0,7	0,4	0,5	0,4						
DESGAITASUNA GAIXOTASUNA	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	2.793	2.855	2.888	3.032	19,9	19,7	19,4	19,8	5,0
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	2.718	2.788	2.820	2.993	19,5	19,3	19,1	19,6	6,1
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	347	340	349	369	6,6	6,4	6,3	6,5	5,8
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	84	77	37	52	28,5	27,0	13,3	18,9	42,2
	LOB, GUZTIRA	3.148	3.206	3.206	3.414	16,2	16,0	15,6	16,1	6,5
	Berezko LOB langileen %	86,3	87,0	88,0	87,7					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	11,0	10,6	10,9	10,8					
LOB boluntarioen %	2,7	2,4	1,1	1,5						
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	291	309	324	353	2,1	2,1	2,2	2,3	8,8
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	291	303	320	353	2,1	2,1	2,2	2,3	10,1
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	1.047	1.030	1.054	1.167	20,0	19,2	19,1	20,7	10,7
	Langileak, guztira: boluntarioak	12	13	12	26	3,9	4,6	4,5	9,6	110,8
	LOB, GUZTIRA	1.350	1.346	1.387	1.546	6,9	6,7	6,7	7,3	11,5
	Berezko LOB langileen %	21,6	22,5	23,1	22,8					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	77,6	76,5	76,0	75,5					
LOB boluntarioen %	0,9	1,0	0,9	1,7						
BAZTERTUAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	637	694	666	656	4,6	4,8	4,5	4,3	-1,4
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	622	679	641	655	4,5	4,7	4,3	4,3	2,1
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	136	154	135	134	2,6	2,9	2,4	2,4	-0,7
	Langileak, guztira: boluntarioak	111	142	150	138	37,7	49,8	54,6	50,3	-7,7
	LOB, GUZTIRA	868	975	926	927	4,5	4,9	4,5	4,4	0,1
	Berezko LOB langileen %	71,6	69,6	69,3	70,6					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	15,7	15,8	14,6	14,5					
LOB boluntarioen %	12,7	14,6	16,2	14,9						
GUZTIRA	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	14.005	14.484	14.889	15.352	100	100	100	100	3,1
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	13.931	14.420	14.771	15.270	100	100	100	100	3,4
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	5.236	5.359	5.512	5.644	100	100	100	100	2,4
	Langileak, guztira: boluntarioak	294	285	274	275	100	100	100	100	0,2
	LOB, GUZTIRA	19.461	20.064	20.558	21.188	100	100	100	100	3,1
	Berezko LOB langileen %	71,6	71,9	71,9	72,1					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	26,9	26,7	26,8	26,6					
LOB boluntarioen %	1,5	1,4	1,3	1,3						

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekinizaren Estatistika eta Gizarte Ekiniza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



33. taula.
Gizarte-zerbitzuetan azpikontratatuak langileak, zentro/zerbitzu motaren arabera
(LOB erako enpleguaren ehuneko zenbatetsia eta bariazioa absolutua, eta 2015-2016ko aldian azpikontratatuak enpleguaren ehunekoa)

	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak				2015/2016 aldiko bariazioa	
	2013	2014	2015	2016	Abs	%
Zentro/zerbitzu mota	%	%	%	%		
Zerbitzu orokorrak (publikoak)	22,1	22,7	26,9	17,7	-81	-40,5
Zerbitzu tekniko espezializatuak	0,8	3,8	3,0	3,0	0	-2,4
Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak	86,7	88,4	73,3	97,3	1	2,9
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	2,0	1,8	1,6	1,6	0	-2,8
EGITURA	9,7	11,0	11,6	8,5	-80	-30,1
Egoitza-zentroak	26,6	26,2	26,4	25,9	27	0,9
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	83,8	83,7	83,9	83,7	0	-1,4
Eguneko laguntza-zentroak	59,4	62,7	60,6	63,1	52	8,9
Beste zentro eta zerbitzu batzuk	11,6	5,1	3,3	4,4	0	-3,1
ADINEKOAK	29,2	29,1	29,1	28,9	80	2,1
Egoitza-zentroak	14,0	13,4	13,9	13,9	23	8,9
Atsedeen- eta babes-zerbitzua	6,8	7,1	8,0	7,5	0	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	11,6	11,5	10,7	9,5	-7	-8,1
Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	0,0	0,1	0,3	0,3	0	-3,9
Laneratze-zentroak	7,9	8,4	4,8	4,1	0	19,2
Tutoretza-fundazioak	0,2	0,2	0,1	0,1	0	15,0
Laguntza goiztiarra	55,9	36,4	33,5	54,1	4	97,0
DESGAITUAK/GAIXOAK	11,0	10,6	10,9	10,8	20	5,8
Adingabeen egoitza-zentroak	78,6	78,1	77,8	77,6	108	11,4
Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentzat)	30,9	26,7	23,5	26,7	0	-1,2
Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentzat)	94,3	80,6	85,3	84,0	1	2,0
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	51,6	51,1	54,2	40,7	4	18,8
Tratu txarren aurkako arreta	100,0	100,0	100,0	100,0	1	2,8
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK	77,6	76,5	76,0	75,5	113	10,7
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	16,5	16,2	14,6	13,7	-4	-5,0
Gaueko harrera-zentroak	24,5	29,3	25,5	26,6	2	6,1
Eguneko zentroak	9,2	8,0	9,7	10,0	0	1,7
Jantoki sozialak	6,6	7,0	5,8	8,9	1	29,0
BAZTERTUAK	15,7	15,8	14,6	14,5	-1	-0,7
GUZTIRA	26,9	26,7	26,8	26,6	132	2,4

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzen Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika
OHARRA: ikusi atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.

LOB enpleguaren bilakaerari dagokionez, 2015-2016 biurtekoak askotariko ildoak erakusten ditu. Enpleguaren hazkunde handiena (% 11,5) haur, gazte, emakume eta familien esparruan egon, bai eta desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonen arretan ere (% 6,5); hazkundea mugatuagoa da, ordea, adineko pertsonen arretaren sektorean (% 2,9). Lanpostu-kopuruak bere horretan eutsi dio bazterkeriaren sektorean (% 0,1 hazi da), eta jaitsiera nabarmena izan da, ostera, gizarte-zerbitzuen egiturarekin lotutakoetan (-% 4,4).

Berezko langileak, LOBren arabera neurtuta, nagusi dira oraindik jarduera-esparru guztietan, 32. taulan egiazta daitekeen bezala. Era horretako langile gehien, % 90etik hurbil edo hortik gora, gizarte-zerbitzuen egitura (% 91,5) eta gaixotasunen edo desgaitasunen bat duten pertsonen arretan (% 87,7) izan ziren 2016an. Hortik nabarmen beherago ditugu baina, hala ere, proportzio handiarekin, adineko pertsonak artatzeko sektorea (% 70,6) eta bazterkeria-egoeran dauden biztanleei laguntzeko sektorea (% 70,6). Aldiz, berezko langileak gutxiengo dira haurrak, gazteak, emakumeak eta familiak artatzeko sektorean (% 22,8 baino ez). Orotara, gizarte-zerbitzuetan LOB erako enplegu guztiaren % 72,1 sistemako berezko langileak dira.

33. taula behatuz azpikontrataturako langileen pisu erlatiboa xehetasunez aztertuta, ikus daiteke 2016an era horretako langileak nagusi zirela haurrak, gazteak, emakumeak eta familiak artatzeko zerbitzuetan, LOB erako enpleguaren % 75,5 baitzen azpikontrataturak. Gutxiengo badira ere, era horretako lanpostuek pisu aipagarria dute adineko pertsonen arretan (% 28,9). Zenbateko hori % 15etik beherako mailetan dago esparru hauetan: gizarte-zerbitzuen egitura (% 8,5), gaixotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonen arreta (% 10,8) eta bazterkeriaren aurkako borroka (% 14,5).

Esan bezala, gizarte-zerbitzuetan oro har dagoen LOB erako enpleguaren % 26,6 azpikontrataturak dago. Ehuneko horrek 2012ko % 25,2 gainditzen badu ere, beherako joera arina erakutsi du 2013an goia jo zuenetik (% 26,9).

2016an azpikontratazioaren pisuak 2013ko datuekin alderatuta behera egin izana ezaugarri orokorra da, baina badaude desberdintasun batzuk sektoreen arabera. Horrela, 2013-2016ko aldian, azpikontratazioaren beherakada -% 0,2-0,3 artean dago lanpostu gehien biltzen dituzten sektoreetan (adinekoak eta desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonak artatzea). Beherakada askoz deigarriagoa da gainerako arreta sektoreetan: % 1,2 jaitsi da bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuen sektorean (% 15,7tik % 14,5era 2013tik 2016ra) eta egitura orokorrean (% 9,7tik % 8,5era), eta -% 2,1era iristen da beherakada haur, gazte, emakume eta familiak artatzeko sektorean (% 77,6tik % 75,5era). Horrez gainera, 2015-2016ko aldian, aipatzekoa da gizarte-zerbitzuen egitura azpikontratazioak izandako beherakada handia, -% 3,1 puntukoa (2015ean % 11,6ra iritsi ondoren, % 8,5era jaitsi zen 2016an).

Hala eta guztiz ere, eta 2013tik aurrera azpikontratazioak izan duen galera handia gorabehera, azpikontrataturako lanpostuen 2016ko ehuneko sektore bakar batean dago 2012ko mailen azpitik, hots, bazterkeriaren arretan (% 14,5 2016an eta % 15,9 2012an). Gainerako sektoreetan, azpikontrataturako enpleguen proportzioa 2012ko mailen gainetik dago 2016an.

Azpikontrataturako enpleguak LOB erako enpleguan duen eraginaren azterketa zehatzago bat eginez gero, zentro edo zerbitzuaren arabera, dibertsitate are handiago bat agertzen da. Alde batetik, ondorioztatzen da 2016an mota horretako enplegua % 15etik beherakoa dela enpleguaren arlo esanguratsu hauetan: gizarte-zerbitzuen egitura, zerbitzu tekniko espezializaturak eta oinarriko gizarte-zerbitzuetan; adineko pertsonentzako gainerako zentroetan; eta gaixotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonak artatzearekin lotutako zentro eta zerbitzu ia guztietan (laguntza



goiztiarra izan ezik) edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen babesean (gaueko harrera-zentroak izan ezik).

2016an, aipatutako horietatik oso gertu daude, % 17,7rekin, gizarte-zerbitzuen egitura publikoko zerbitzu orokorrak. Egoera horrek aldaketa adierazgarri bat islatzen du 2015-2016ko aldian, hots, zerbitzu horien kontratazio-egitura 2012an zegoenera gerturazten dela berriro. Urte hartan, LOB ziharduten azpikontrataturako langileak % 13,8 ziren, baina azpikontrataziorako bideratze esanguratsu batek 2015ean % 26,9ra igo zuen ehuneko hori. 2016ko % 17,7 horrek orain arteko prozesua haustea dakar, argi eta garbi, azpikontratazio-maila gertuago baitago 2012kotik 2013-2015 aldikotik baino.

Azpikontratazioa eredu nagusia ez bada ere, LOB enpleguaren % 26-27 azpikontrataturata dago arlo hauetan: adinekoentzako egoitza-zentroetan (% 25,9), indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzako egoitza-zentroetan (% 26,7) eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko arreta-zentroetan (% 26,6). Zentro mota horietan, azpikontratazioaren pisuak egonkortasun handia du epe ertainean.

Beste zerbitzu batzuetan, berriz, azpikontratazioa nagusitu da 2016an, eta LOB erako enplegu gehiena hartu du. Enpleguari dagokionez garrantzia duten zerbitzu eta zentroen artean honako hauek aipa ditzakegu: gizarte-urgentzietako zerbitzuen egitura (LOB erako enpleguaren % 97,3 azpikontrataturata dago), adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak (% 63,1), gaixotasuna/desgaitasuna duten pertsonentzako arreta goiztiarra (% 54,1), adingabeentzako egoitza-zentroak (% 77,6) eta genero-indarkeria eta tratu txarren kasuak artatzeko zerbitzuak (% 84 egoitza-zerbitzuetan eta % 100 tratu txarrak artatzeko beste programa batzuetan).

Bereziki garrantzitsua da zer nolako dinamika izan duen azpikontratazioak adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan eta gaixotasuna/desgaitasuna duten pertsonentzako arreta goiztiarrean, zentro eta zerbitzu horietan enplegu eredu horren goranzko joera nabarmena baita 2015-2016 aldietan. Adinekoentzako eguneko zentroen kasuan, adibidez, 2016an izandako % 63,1ek lehengoratztea dakar 2014 eta 2015 artean izandako beherakadaren ondoren (% 62,7tik % 60,6ra); gainera 2012tik izandako daturik altuenera iritsi da. Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen laguntza goiztiarrean, berriz, 2015ean azpikontratazioa % 33,5ean zegoen, eta 2016an % 54,1era igotzeak esan nahi du eten egin dela 2012-2015 aldiaren ezaugarria izandako azpikontratazioaren beherako joera (% 61,2tik % 33,5era jaitsi zen).

32. taulara itzuliz egiaztaturik gelditu da azpikontratazioak duen garrantziarekin alderatuta, oso urruti dagoela boluntarioen kopurua, LOB enpleguaren % 1,3 soilik egiten baita eredu horrekin 2016an. Proporzio hori % 0,4 eta % 1,7 artean dago, oro har, sektore gehienetan. Gizarte-zerbitzuen egituran, aldiz, enplegu mota horrek ez du inolako presentziarik; baina bada salbuespen bat: bazterkeriaren aurkako ekintza. Esku-hartzearen sektore horretan LOB erako enpleguaren % 14,9 betetzen dute langile boluntarioek. Proporzio hori 2012 eta 2015eko % 16,2 baino baxuagoa da, hala ere.

5.3. Enpleguaren banaketa profesionala

GZEEren datuek enpleguaren barne-egitura ikusten laguntzen digute, lanbide-talde handietan sailkatuta, baina soilik zentro eta zerbitzuetako berezko langileei dagokienez. 34. taulak ematen du horri buruz eskuragarri dagoen informazioaren laburpen bat, LOB datuak kontuan hartuta.

Aipatu beharreko alderdi nagusien artean dago arretaren esparruko langile espezializatuak zirela nagusi 2016ko abenduaren 15ean LOB ziren 15.352 lanpostuen artean. Zehazki, 11.358 langile

espezializatu zeuden, enplegu osoaren % 73,9; horrekin, argi eta garbi berreskuratzen da, 2014-2015 aldian egonkortuta egon ondoren, gizarte-zerbitzuetako enpleguan mota horretako langile-kopuruak zuen gorako joera, 2012an % 72 baitziren. 2014-2015 aldian, enplegu mota hori % 3,1 hazi zen, batez beste, LOB enplegu osoarekiko; azken biurtekoan, berriz, % 4 hazi da.

Langile espezializatuen barneko osagai nagusia zaintzen arloko langile laguntzaileak dira, era horretako 7.173 lanpostu baitzeuden, hau da, LOB erako enplegu osoaren % 46,7. Proportzio hori 2015eko % 45,4aren gainetik dago, argi eta garbi, eta mota horretako enpleguak 2015 eta 2016 artean izandako hazkundeari (+% 6,1) lotzen zaio.

Kualifikaziorik altuenak dituzten langileek, batez ere hezkuntzaren esparruan eta esparru soziosanitarioan, LOB erako 2.501 lanpostu estaltzen dituzte, horrenbestez, % 0,3ko hazkundera izan da soilik 2015etik. Langile multzo hori enplegu osoaren % 16,3 zen 2016an, 2014an izatera iritsi zen % 17,7tik behera.

Gizarte-langileek LOB erako 889 lanpostu betetzen dituzte, guztizkoaren % 5,8, alegia, 2015eko % 5,6 baino gehiago, kolektibo horri dagokion enplegua % 5,8 hazi baita.

Azkenik, aztertutako langile espezializatuen barruan, monitoreen 786 lanpostu zenbatu ziren 2016an LOB araubidean, guztizkoaren % 5,1, hau da, 2015eko % 5,5 baino gutxiago. Lanpostuen kopurua -% 3,3 jaitsi da, hortaz, kolektibo horretan.

Arreta-zerbitzuetako espezializatu gabeko eremuan LOB erako 1.852 lanpostu zenbatu ziren guztira. Zenbateko horrek esan nahi du egonkortze-ildo bat nagusitu dela, 2015-2016ko aldian -% 0,1eko jaitsiera izan baita soilik, eta lanpostu-kopurua 2012an zegoenaren antzekoa da. Gizarte-zerbitzuen arloko enpleguan gertatutako areagotzearen ondorioz, langile multzo horien pisu erlatiboa jaitsi eta jaitsi ari da, 2012an enplegu osoaren % 13,4 baitziren, eta 2016an % 12,1.

Langile administratiboak edo espezializatuak ez diren gainerako langileek LOB erako 2.142 enplegu betetzen dituzte, eta % 1,2ko igoera izan da 2015etik. Kasu honetan, enplegu osoarekiko pisuak antzera eutsi dio: 2016an % 14 ziren, 2012ko % 14,5etik gertu.

Sektoreka, langile espezializatuen presentzia handiagoa dago gaixotasunak edo desgaitasunak dituzten pertsonen arretaren esparruan: LOB enpleguaren % 83,9 ziren 2016an. Proportzioa % 81,6koa da haur, gazte, emakume eta familiei arreta emateko esparruan, eta % 79,9koa bazterkeriarenean; adineko pertsonak artatzeko esparruan, berriz, % 75,7koa da. Ehunekorik txikiena (% 47,5) gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean aurki dezakegu.

Profesional espezializatu motak aztertzen baditugu, ikusiko dugu adineko pertsonen arreta emateko zaintza-lanak egiten dituzten langile laguntzaileek pisu handia dutela; izan ere, arlo horretan, talde profesional horrek LOB erako enpleguaren % 63,2 hartzen du. Desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak artatzeko esparruan pisua baxuagoa da (% 38,2), baina aipagarria. Arretaren gainerako esparruetan, kolektibo horren pisua % 5 ingurukoa edo txikiagoa da.

Hezitzaileek, langile soziosanitarioek edo espezializazio handiko langileek sektorerik txikienetan eskuratzen dute mailarik handiena, besteak beste haur, gazte, emakume eta familiei arreta emateko sektorean edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonak babestekoan. Azken bi kasu horietan, profesional horiek nagusi dira, inolako zalantzarik gabe, % 75,5 eta % 61,0 baitira, hurrenez hurren. Bestalde, eta horien pisu erlatiboa askoz baxuagoa bada ere, aipagarria da desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen arreta ematen dietenen zenbatekoa, LOB erako enpleguaren % 20,6 hartzen baitute (adineko pertsonen arretakoek % 11,2).



34. taula

Gizarte-zerbitzuetako berezko langileen banaketa xehatua, arreta-sektorearen eta lanbide motaren arabera. LOB datuak
(Datu absolutuak, gutzitzaileko ehuneko arreta-sektore bakoitzeko eta langile-kopuruaren 2015-2016 aldiko bariazioa ehunekotan)

		2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2015/2016 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Gutzitzaileko %a	Gutzitzaileko %a	Gutzitzaileko %a	Gutzitzaileko %a	%
Arreta-sektorea eta lanbide mota										
EGITURA	Berezko langileak (abenduaren 15ean), LOB	1.940	1.962	2.029	2.029	100	100	100	100	0,0
	Administrazioa eta lanpostu orokorrak, LOB	1.041	1.042	1.074	1.066	53,7	53,1	52,9	52,5	-0,8
	Zuzendaritza eta administrazioa	1.006	1.001	1.029	1.024	51,9	51,0	50,7	50,5	-0,5
	Beste lanpostu orokor batzuk	35	40	45	42	1,8	2,1	2,2	2,1	-7,3
	Langile espezializatuak, LOB	898	920	955	963	46,3	46,9	47,1	47,5	0,9
	Gizarte-langileak	634	633	657	677	32,7	32,3	32,4	33,4	3,0
	Peru Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk	155	171	185	172	8,0	8,7	9,1	8,5	-7,1
	Zaintzako langile laguntzaileak	104	112	110	111	5,4	5,7	5,4	5,4	0,8
	Monitoreak/kapatazak/tailerreko buruak	5	4	3	4	0,3	0,2	0,2	0,2	14,8
	ADINEKOAK	Berezko langileak (abenduaren 15ean), LOB	8.344	8.663	8.983	9.282	100	100	100	100
Administrazioa eta lanpostu orokorrak, LOB		2.086	2.146	2.245	2.253	25,0	24,8	25,0	24,3	0,3
Zuzendaritza eta administrazioa		524	545	545	549	6,3	6,3	6,1	5,9	0,6
Beste lanpostu orokor batzuk		1.562	1.602	1.700	1.704	18,7	18,5	18,9	18,4	0,3
Langile espezializatuak, LOB		6.259	6.517	6.737	7.029	75,0	75,2	75,0	75,7	4,3
Gizarte-langileak		80	93	84	87	1,0	1,1	0,9	0,9	3,3
Peru Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste espezializatu batzuk		927	1.017	1.029	1.037	11,1	11,7	11,5	11,2	0,7
Zaintzako langile laguntzaileak		5.217	5.369	5.577	5.866	62,5	62,0	62,1	63,2	5,2
Monitoreak/langilezainak/tailerreko buruak		34	38	46	39	0,4	0,4	0,5	0,4	-15,8
DESGAITASUNA GAIXOTASUNA		Berezko langileak (abenduaren 15ean), LOB	2.793	2.855	2.888	3.032	100	100	100	100
	Administrazioa eta lanpostu orokorrak, LOB	444	451	451	478	15,9	15,8	15,6	15,8	6,0
	Zuzendaritza eta administrazioa	216	227	209	204	7,7	7,9	7,2	6,7	-2,4
	Beste lanpostu orokor batzuk	228	224	242	274	8,2	7,8	8,4	9,0	13,3
	Langile espezializatuak, LOB	2.311	2.394	2.427	2.544	82,7	83,8	84,0	83,9	4,8
	Gizarte-langileak	43	50	53	57	1,5	1,8	1,8	1,9	7,7
	Peru Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk	584	753	655	625	20,9	26,4	22,7	20,6	-4,5
	Zaintzako langile laguntzaileak	1.002	988	1.030	1.159	35,9	34,6	35,7	38,2	12,5
	Monitoreak/langilezainak/tailerreko buruak	682	602	689	703	24,4	21,1	23,9	23,2	2,0
	EZB erabiltzaileak, LOB	38	11	10	10	1,4	0,4	0,3	0,3	0,0
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK	Berezko langileak (abenduaren 15ean), LOB	291	309	324	353	100	100	100	100	8,8
	Administrazioa eta lanpostu orokorrak, LOB	66	65	66	65	22,6	21,0	20,3	18,4	-1,1
	Zuzendaritza eta administrazioa	9	14	16	16	3,3	4,7	4,8	4,6	3,1
	Beste lanpostu orokor batzuk	56	50	50	49	19,3	16,3	15,5	13,9	-2,4
	Langile espezializatuak, LOB	226	244	258	288	77,4	79,0	79,7	81,6	11,3
	Gizarte-langileak	2	5	5	7	0,7	1,7	1,6	1,9	31,3
	Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste espezializatu batzuk	212	223	222	266	72,9	72,2	68,6	75,5	19,9
	Zaintzako langile laguntzaileak	2	4	13	2	0,8	1,2	3,9	0,5	-86,7
	Monitoreak/langilezainak/tailerreko buruak	9	12	18	13	2,9	3,9	5,7	3,7	-29,1
	BAZTERTUAK	Berezko langileak (abenduaren 15ean), LOB	637	694	666	656	100	100	100	100
Administrazioa eta lanpostu orokorrak, LOB		145	142	135	132	22,8	20,5	20,3	20,1	-2,5
Zuzendaritza eta administrazioa		75	64	56	59	11,8	9,1	8,4	9,0	6,2
Beste lanpostu orokor batzuk		70	79	80	73	11,0	11,3	12,0	11,1	-8,6
Langile espezializatuak, LOB		492	552	530	524	77,2	79,5	79,7	79,9	-1,1
Gizarte-langileak		31	44	42	62	4,8	6,4	6,2	9,4	48,6
Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste espezializatu batzuk		367	393	403	401	57,5	56,6	60,5	61,0	-0,6
Zaintzako langile laguntzaileak		50	34	30	35	7,8	5,0	4,5	5,3	15,6
Monitoreak/langilezainak/tailerreko buruak		45	80	56	27	7,0	11,5	8,3	4,1	-51,3
GUZTIRA		Berezko langileak (abenduaren 15ean), LOB	14.005	14.484	14.889	15.352	100	100	100	100
	Administrazioa eta lanpostu orokorrak, LOB	3.783	3.846	3.972	3.994	27,0	26,6	26,7	26,0	0,6
	Zuzendaritza eta administrazioa	1.830	1.851	1.855	1.852	13,1	12,8	12,5	12,1	-0,1
	Beste lanpostu orokor batzuk	1.952	1.995	2.117	2.142	13,9	13,8	14,2	14,0	1,2
	Langile espezializatuak, LOB	10.185	10.627	10.908	11.348	72,7	73,4	73,3	73,9	4,0
	Gizarte-langileak	791	826	840	889	5,6	5,7	5,6	5,8	5,8
	Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste espezializatu batzuk	2.245	2.557	2.494	2.501	16,0	17,7	16,8	16,3	0,3
	Zaintzako langile laguntzaileak	6.374	6.508	6.760	7.173	45,5	44,9	45,4	46,7	6,1
	Monitoreak/langilezainak/tailerreko buruak	775	736	813	786	5,5	5,1	5,5	5,1	-3,3
	EZB erabiltzaileak, LOB	38	11	10	10	0,3	0,1	0,1	0,1	0,0

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

35. taula. Berezko langileen banaketa xehatua, zenbait zentro eta zerbitzu motatan, lanbide motaren arabera. LOB datuak. 2016
(Datu absolutuak eta gutzitakoarekiko ehunekoa zentro/zerbitzu mota bakoitzeko)

Zentro edo zerbitzu mota	Administrazioa eta orokorrak	Zuzendaritza eta administrazioa, LOB	Beste lanpostu orokor batzuk, LOB	Langile espezializatuak, LOB	Gizarte-langileak, LOB	Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste espezializatu batzuk	Zaintzako langile laguntzaileak	Monitoreak/langilezainak/taillerreko buruak	EZB erabiltzaileak
Zerbitzu orokor eta tekniko espezializatuak	61,8	58,7	3,2	38,2	16,6	12,3	8,9	0,3	0,0
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	38,4	38,0	0,4	61,6	58,9	2,6	0,1	0,0	0,0
Adinekoentzako egoitza-zentroak	24,5	5,8	18,7	75,5	0,8	11,0	63,2	0,4	0,0
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak	20,3	8,8	11,5	79,7	3,1	14,4	61,7	0,6	0,0
Desgaitasunen bat dutenentzako egoitza-zentroak	18,8	5,4	13,4	81,2	0,8	15,0	49,9	15,4	0,0
Desgaitasunen bat dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	9,6	6,1	3,5	90,4	1,3	33,8	24,7	30,6	0,0
Desgaitasunak dituztenentzako eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	8,6	5,8	2,8	89,0	0,3	18,1	20,0	50,5	2,4
Adingabeen egoitza-zentroak	19,2	3,6	15,6	80,8	0,0	76,9	0,4	3,6	0,0
Bazterkeria-egoeran daudenentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak	12,8	9,2	3,7	87,2	9,9	66,8	6,7	3,8	0,0
Bazterkeria-egoeran daudenentzako gaueko harrera-zentroak	63,4	9,2	54,3	36,6	5,0	24,0	5,0	2,6	0,0
Bazterkeria-egoeran daudenentzako eguneko zentroak	11,8	8,8	3,0	88,2	11,3	68,9	2,4	5,6	0,0

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
 LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen laguntzeko jarduketaren esparru horretan aurki ditzakegu monitore, langilezain edo tailerreko buru gehien; izan ere, horiek hartzen dute LOB erako enpleguaren % 23,2. Gizarte-langileei dagokienez, euren presentzia txikia izan ohi da LOB erako enpleguan. Salbuespen bakarra gizarte-zerbitzuen egitura da; bertan, LOB erako enpleguaren % 33,4 hartzen dute. Kasu batean zein bestean, bi esparru horietatik kanpo, era horretako profesionalen enpleguaren pisua da beti % 10etik beherakoa (nahiz eta bazterkeriaren sektorean gizarte-langileak % 9,4 diren).

Zuzendaritzako eta administrazioko langileei dagokienez, ikus daiteke azken multzo horrek paper erabakigarria duela gizarte-zerbitzuen egiturari; hala, LOB erako enpleguaren zatirik handiena, % 50,5, hartzen du. Gainerako jarduketaren esparruetan, enpleguaren % 4,6 eta % 9 artean hartzen du.

Langile orokorrek, hau da, zuzendaritzakoak edota administraziokoak ez direnek, adineko pertsonen arretan dute presentziarik handiena (% 18,4), baita haur, gazte, emakume eta familientzako arretan (% 13,9) eta bazterkeriaren sektorean (% 11,1) ere. Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonak artatzeko sektorean, azkenik, % 9 dira.

34. taula horretan bertan enplegua arreta-sektorearen eta lanbide motaren arabera aztertuz gero, enplegu-dinamika interesgarriak hauteman daitezke. Enpleguaren garrantzi kuantitatiboa eta 2015-2016ko aldiaren hautemandako bariazioen garrantzia konbinatuz gero, alderdirik onena da nabarmen egin dutela gora zaintzen arloko langile laguntzaileek adineko pertsonak eta desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonak artatzeko sektoreetan. Lehen multzoan, LOB erako 289 enplegu garbi berri sortu dira (2015ean 5,577 ziren, eta 2016an 5,866); horrenbestez, % 5,2ko gehikuntza izan da. Areagotzea txikiagoa da zenbatekotan desgaitasun/gaixotasunen arretan: LOB erako 129 enplegu garbi berri (1.030etik 1.159ra), baina areagotze erlatiboa handiagoa izan da 2015-2016ko aldiaren, % 12,5koa, hain zuzen ere.

Gizarte-langileen kopurua garrantzitsua da, orobat, baina kopurutan ez hainbestekoa, LOB erako 49 enplegu garbi berri sortu baitira. Horietatik, gehienak gizarte-zerbitzuen egiturari eta bazterkeriaren arloan biltzen dira (20 enplegu berri batean zein bestean). Zifra erlatibotan, berriz, 2015-2016ko aldiaren % 3 areagotu dira lanpostuak gizarte-zerbitzuen egiturari eta % 48,6 bazterkeriaren arloan.

Hona hemen 2015-2016ko aldiaren izandako beste areagotze batzuk: LOB erako 44 lanpostu berri haur, gazte, emakume eta familien arloan, eta hezitzaile, sanitario eta espezializatu gabekoen multzoan. Zifra erlatibotan, % 19,9ko igoera izan da enplegu mota horietan 2015-2016 artean. 32 enplegu garbi berri sortu dira beste lanpostu orokor batzuen multzoan, desgaitasun/gaixotasunen sektorean. Kasu horretan, LOB erako enplegu-kopuruaren areagotze erlatiboa ere aipatzekoa izan da 2015-2016ko aldiaren, % 13,3koa.

Lanpostuak sortzen ari diren arlo guztiek ezaugarri komun bat dute: enplegu-mailaren goranzko joera epe luzekoa dela.

Lanbide batzuek beherako joera dute, ordea. Adibidez, bitarteko langileen artean (monitoreak, langilezainak edo lantegi-buruak), adineko pertsonak, haur, gazte emakume eta familiak eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonak artatzeko sektorean. Lanbide eta sektore multzo horretan galdutako LOB erako 41 lanpostuek % 15eko jaitsiera-ildoak marraztu dituzte 2015-2016ko aldiaren.

Deigarria da, baita ere, hezitzaileen, langile sanitarioen eta beste langile espezializatu batzuen multzoan LOB erako 30 lanpostu garbi galdu izana, jaitsiera -% 4,5ekoa izan baita 2015-2016ko aldian, eta 2014az geroztik bistakoa den beherako joera luzatzen du, gainera. Lanbide multzo horretan, baina gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean, jaitsiera -% 7,1ekoa izan da aldi berean (LOB erako 13 enplegu garbi gutxiago).

Haur, gazte, emakume eta familiaren sektorean zaintzen arloko laguntzaileek izandako jaitsieraz gain (jaitsiera hori itxura batean egoeraren araberakoa dela aintzat hartuz), enpleguak galtzeko joera hauteman da, baita ere, langile administratiboak edo espezializatuak ez diren gainerako langileen multzoan, bazterkeriaren arreta-sektorean adibidez. Galera horiek aurrez aipatutakoek baino askoz garrantzi txikiagoa dute, ordea, kopuruei erreparatzen badiegu.

35. taulak aurkezten du nola dauden banatuta berezko langileak (LOB) zentro eta zerbitzu mota nagusietan; horrela ikus daiteke zer lanbide izan diren nagusi 2016an, kasu bakoitzean.

Hasteko, zerbitzu orokor tekniko espezializatuetan, langileen % 58,7 zuzendaritzako eta administrazioko langileak ziren. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan, berriz, arretaren esparruko langile ez espezializatuak dira nagusi; hala, zuzendaritzako edo administrazioko langileak ez direnak langile guztien % 54,3 dira. Bi kasu horietan honako hau ere ikus daiteke: gizarte-lanari loturiko arreta-langile espezializatuen, langile soziosanitarioen eta profil espezializatu asimilatuak dituzten langileen presentzia osagarria aipagarria da (% 28,9 bai zerbitzu orokorretan eta zerbitzu tekniko espezializatuetan eta bai gaueko harrera-zentroetan).

Zuzendaritzako eta administrazioko langileen presentzia aipagarria da, baita ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan (% 38,0). Kasu horretan, baina, gailentzen den profila gizarte-langileena da, LOB erako enpleguen % 58,9 hartzen baitute.

Hezitzaileek, langile soziosanitarioek edo profil espezializatu asimilatuak dituztenek pisu handia dute, % 66,8 eta % 76,9 artekoa, adingabeentzako edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan, baita bazterkeria-egoeran daudenentzako eguneko zentroetan ere. Kategoría profesional hori gailentzen da, halaber, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, nahiz eta pisu erlatiboa txikiagoa izan (% 33,8, eta beherako joera argian, 2015eko % 44,3arekin alderatuta). Kasu horretan, alderaketa eginez gero, ikus daiteke zaintzen arloko langile laguntzaileek garrantzi handiagoa dutela (% 24,7).

Zaintzen arloko langile laguntzaileak gailentzen dira, era berean, adineko pertsonentzako edo desgaitasun nahiz gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 63,2 eta % 49,9). Zaintzen arloko langileak dira gehiengoa, baita ere, adineko pertsonentzako laguntza-zentroetan (% 61,7).

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetan garrantzitsua da, halaber, jarduera okupazionalerako monitoreen zeregina, bai egoitza-zentroetan (% 15,4), bai eguneko laguntza-zentroetan (% 30,6). Era horretako langileak nagusi dira desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentro okupazionaletan edo bestelako eguneko zentroetan, LOB erako enpleguaren % 50,5 profil profesional horri loturik baitago.



5.4. Enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera

36. taulan jaso bezala, 2016an, gizarte-zerbitzuen sektoreko LOB erako lanpostuen % 46,5, hau da, 10.701 lanpostu, guztira, Bizkaian zeuden. Hala ere, lurralde historiko horretan hazi da gutxien LOB enplegua 2015-2016ko aldian: % 2. Aldi horretan, hazkunde-erritmo hobea izan du Arabak, LOB erako enplegua % 3,7 areagotu baita, 3.540 lanpostura iritsi arte (EAE osoko % 21). 2012-2015 aldian gertatu zen bezala, hazkunderik handiena (% 4,5) Gipuzkoari dagokio 2015-2016 aldietan. 2016an, 6.947 enplegu bete dira, EAE osoko % 32,4.

Zenbait sektoretan, Bizkaiak pisua handiagoa du enpleguari dagokionez. Hala, lurralde horrek LOB erako enpleguen % 51 hartzen du desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen arretan eta % 52,5 haur, gazte, emakume eta familien babesari dagokionean. Bi sektore horietan, 2015 eta 2016 artean, enplegua % 2,7 eta % 7,8 hazi da, hurrenez hurren. Ostera, gizarte-zerbitzuen egiturari, Bizkaiak enpleguari egiten dion ekarpena txikiagoa da, enpleguaren % 42,3 baino ez baitu biltzen; izan ere, lurralde horrek LOB erako enpleguaren -% 4,5 galdu du arlo horretan aztertutako aldian. Adinekoen arretari eta bazterkeriaren aurkako borrokari dagokionez, enpleguen % 46,8 biltzen du.

36. taula. Gizarte-zerbitzuetako LOB erako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen eta lurraldearen arabera.

(Datu absolutuak, guztizkoarekiko ehunekoa arreta-sektore bakoitzeko eta langile-kopuruaren 2015-2016 aldiko bariazioa ehunekotan)

Arreta-sektorea		Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak								2015/2016 aldiko bariazioa
		2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	
EGITURA	Araba	370	389	442	395	22,6	22,7	22,4	22,3	-10,5
	Gipuzkoa	616	651	673	672	35,2	35,3	35,1	35,3	-0,2
	Bizkaia	1.129	1.145	1.191	1.137	42,3	42,1	42,4	42,3	-4,5
	EAE	2.115	2.184	2.306	2.204	100,0	100,0	100,0	100,0	-4,4
ADINEKOAK	Araba	1.859	1.945	1.989	2.072	22,6	23,4	23,4	23,6	4,2
	Gipuzkoa	3.899	4.028	4.125	4.230	29,9	30,2	30,0	29,6	2,5
	Bizkaia	6.221	6.380	6.619	6.794	47,5	46,4	46,6	46,8	2,6
	EAE	11.979	12.353	12.733	13.096	100,0	100,0	100,0	100,0	2,9
DESGAITUAK/GAIXOAK	Araba	525	537	546	629	20,7	21,1	21,6	21,0	15,2
	Gipuzkoa	1.039	1.059	1.067	1.149	35,1	32,5	26,5	28,0	7,7
	Bizkaia	1.585	1.610	1.593	1.636	44,2	46,4	51,9	51,0	2,7
	EAE	3.148	3.206	3.206	3.414	100,0	100,0	100,0	100,0	6,5
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK	Araba	280	262	283	311	20,9	20,4	20,8	21,0	9,6
	Gipuzkoa	489	501	517	603	26,4	26,1	27,0	26,5	16,7
	Bizkaia	581	582	587	633	52,8	53,5	52,2	52,5	7,8
	EAE	1.350	1.346	1.387	1.546	100,0	100,0	100,0	100,0	11,5
BAZTERTUAK	Araba	135	154	155	134	11,6	12,1	12,5	12,0	-13,5
	Gipuzkoa	298	317	268	294	42,4	41,1	39,2	41,2	9,7
	Bizkaia	435	505	504	500	46,0	46,8	48,3	46,8	-0,8
	EAE	868	975	926	927	100,0	100,0	100,0	100,0	0,1
GUZTIRA	Araba	3.169	3.287	3.414	3.540	20,8	21,2	21,2	21,0	3,7
	Gipuzkoa	6.342	6.556	6.650	6.947	33,7	33,2	32,0	32,4	4,5
	Bizkaia	9.950	10.222	10.494	10.701	45,5	45,7	46,7	46,5	2,0
	EAE	19.461	20.064	20.558	21.188	100,0	100,0	100,0	100,0	3,1

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

LOB erako gizarte-zerbitzuetako enpleguan Gipuzkoak pisu handiagoa du bazterkeriaren aurkako borrokan (% 41,2), 2015-2016ko aldian enplegua % 9,7 hazi baita multzo horretan. Gizarte-zerbitzuen egituran ere Gipuzkoak du garrantzi handiagoa (% 35,3), aztertutako biurtekoan hautemandako egonkortasuna gorabehera (-% 0,2ko beherakada izan da). Bestalde, eta % 30etik behera badago ere, Gipuzkoaren batez besteko % 32ko ekarpenaren azpitik, alegia, modu deigarrian hazi da Gipuzkoako LOB erako enplegua bai gaixoak eta desgaitasuna duten pertsonak artatzeko sektorean (+% 7,7) eta bai, are modu deigarriagoan, haur, gazte, emakume eta familiaren sektorean ere (+% 16,7).

Arabian, enplegu osoan izan duen parte-hartzea nahiko orekatua izan da sektore guztietan, oro har % 21 eta % 23,6 arteko zifrekin. Salbuespen bakarra bazterkeriaren arloa da; bertan LOB erako enpleguaren % 12,0 baino ez da bildu. 2013-2014 urteetan esku-hartzearen arlo horretan izandako aurrerakada indartsuaren ondoren, LOB erako enplegua -% 13,5 jaitsi da 2015-2016 biurtekoan. Deigarriki jaitsi da azken aldi horretan gizarte-zerbitzuen egiturako orokorreko enplegua ere: -% 10,5. Desgaitasunaren eta gaixotasunaren arretan, berriz, LOB erako enplegua nabarmen areagotu da Araban 2015 eta 2016 artean (+% 15,2), bai eta haur, gazte, emakume eta familiaren babesean ere (+% 9,6).

2016an, adinekoen arretak izan du banaketarik egonkorrena LOB erako enpleguen artean: enpleguaren % 46,8 Bizkaian, % 29,6 Gipuzkoan eta % 23,6 Araban. Multzo horretako enplegua % 4,2 hazi da Araban 2015-2016ko aldian; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, erritmo geldoagoan: % 2,5 eta % 2,6, hurrenez hurren.

37. taulak azpikontratazioari buruzko informazioa laburbiltzen du, lurraldearen arabera; taulari begira, esan daiteke lanpostuak esleitzeko modu hori zela hedatuena 2016an Gipuzkoako lurralde historikoan. 2013 eta 2015eko datuen aldean (% 33,7 eta % 33,9) arinki murriztu bada ere, lurralde honetan gizarte-zerbitzuetako LOB erako enpleguaren heren bat (% 33,3) azpikontratatu da, eta zifra hori 2012ko % 29,7tik gorakoa da, argi eta garbi.

Bizkaian, proportzioa % 23,6koa da, 2013-2015 urteetako datuak (% 23,7 eta % 24) baino zertxobait txikiagoa, baina 2012ko % 22,6tik gorakoa, hori ere. 2016ko ehunekorik baxuena Arabari dagokio: % 22,6. 2014 eta 2015eko % 21,6 eta % 21,7tik pixka bat igo bada ere, lurralde horretan soilik izan dira 2012tik beherako proportzioak (% 24,4) baino baxuagoak. Nolanahi ere, azpikontratutako enplegua nabarmen areagotu da Araban 2015-2016, % 8,2; Gipuzkoan (% 2,8) eta Bizkaian (% 0,3) baino gehiago.

Gipuzkoan azpikontratazioak duen pisu diferentziala batez ere formula horrek adineko pertsonen arretan duen pisuaren ondoriozkoa da, eragindako LOB erako enpleguaren % 38,1 hartzen baitu. Arreta-esparru horretan, Bizkaiko azpikontratazioak % 28,2 izan dira, eta % 12,7 baino ez Araban. Ehuneko horrek gora egin du 2015eko % 11,9tik; zehazki, LOB erako enplegu azpikontratatu % 10,7 igo da (Bizkaian eta Gipuzkoan % 1,8 eta % 1,3 besterik ez, hurrenez hurren).

Gizarte-zerbitzuen egituran ere Gipuzkoan dago gainerako lurraldeetan baino azpikontratazio gehiago: LOB erako enpleguaren % 11,8, Bizkaian, berriz, % 7,4 eta Araban % 5,7, gutxienekoa. Esan behar da, hala ere, Araban soilik areagotu dela gizarte-zerbitzuen egiturari dagokion LOB erako enplegu azpikontratatu, % 8,9 igo ere; bitartean, beste bi lurraldeetan jaitsiera indartsuak izan dira: -% 17koa Gipuzkoan eta -% 43,8koa Bizkaian.



37. taula.

Gizarte-zerbitzuetan azpikontrataturako langileak, arreta-sektorearen eta lurraldearen arabera.
(LOB erako enpleguaren ehuneko zenbatetsia eta bariazioa absolutua, eta 2015-2016ko aldian
azpikontrataturako enpleguaren ehunekoa)

		Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak				2015/2016 aldiko bariazioa	
		2013	2014	2015	2016		
Arreta-sektorea		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs	%
EGITURA	Araba	4,0	4,4	4,7	5,7	2	8,9
	Gipuzkoa	9,3	12,6	14,2	11,8	-16	-17,0
	Bizkaia	11,9	12,3	12,6	7,4	-66	-43,8
	EAE	9,7	11,0	11,6	8,5	-80	-30,1
ADINEKOAK	Araba	12,5	12,3	11,9	12,7	25	10,7
	Gipuzkoa	39,5	38,4	38,4	38,1	29	1,8
	Bizkaia	27,7	28,3	28,5	28,2	25	1,3
	EAE	29,2	29,1	29,1	28,9	80	2,1
DESGAITUAK/GAIXOAK	Araba	32,8	31,1	32,4	31,0	18	10,0
	Gipuzkoa	11,4	11,1	11,5	10,6	0	0,0
	Bizkaia	3,6	3,5	3,1	3,2	2	5,0
	EAE	11,0	10,6	10,9	10,8	20	5,8
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK ETA EMAKUMEAK	Araba	84,5	83,0	80,8	79,0	16	7,2
	Gipuzkoa	78,6	78,6	78,6	76,0	52	12,9
	Bizkaia	73,4	71,8	71,4	73,3	44	10,6
	EAE	77,6	76,5	76,0	75,5	113	10,7
BAZTERTUAK	Araba	51,7	46,3	48,0	54,9	-1	-1,2
	Gipuzkoa	17,5	21,6	16,8	14,9	-1	-2,6
	Bizkaia	3,2	2,9	3,1	3,4	1	7,3
	EAE	15,7	15,8	14,6	14,5	-1	-0,7
GUZTIRA	Araba	22,9	21,7	21,6	22,6	60	8,2
	Gipuzkoa	33,9	33,7	33,8	33,3	64	2,8
	Bizkaia	23,7	23,8	24,0	23,6	7	0,3
	EAE	26,9	26,7	26,8	26,6	132	2,4

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Esku hartzeko gainerako sektoretan, ordea, Araban erabiltzen da gehien azpikontratazioa. Hori bereziki nabaria da desgaitasun edo gaixotasunen bat dutenen arretan eta bazterkeriaren aurkako borrokan.

Lehen kasuan, LOB erako enpleguaren % 31 azpikontratatu da Araban 2016an (Gipuzkoan % 10,6 eta Bizkaian % 3,2). Araban, 2015-2016ko aldian, LOB erako enplegua % 10 areagotu da gainera, Bizkaiko % 5eko igoeraren gainera, baita Gipuzkoaren gainera ere, azken lurralde horretan ez baita aldatu azpikontrataturako enplegu-maila.

Bazterkeriaren aurkako programetan, gizarte-zerbitzuetako enpleguaren azpikontratazioa % 54,9ra iristen da Araban (Gipuzkoan % 14,9ra eta Bizkaian % 3,4ra baino ez). Aintzat hartu behar da, alabaina, Bizkaian salbu, non 2015-2016an % 7,3ko igoera izan den, beste bi lurralde historikoetan sektore horretako enplegu azpikontratatuaren kopurua murriztu egin dela.

Azkenik, haur, gazte, familia eta emakumeen sektorea berezia da. Kasu horretan, azpikontratazioa nagusi da lurralde guztietan, batez ere Araban (LOB erako enpleguaren % 79), baina baita Gipuzkoan (% 76,0) eta Bizkaian (% 73,3) ere. Joera gorakoa izan da, gainera, enplegu mota horretan areagotzeak izan baitira 2015-2016 artean: % 12,9 Gipuzkoan, % 10,6 Bizkaian eta % 7,3 Araban.



6. Kudeaketa-adierazle nagusiak, zentro eta zerbitzuen arabera

Txosteneko azken atal honetan, kudeaketaren errealitatea aztertzeko zenbait adierazle jaso dira, egoitza-zentro eta egoitzakoak ez diren zentro moten arabera.

6.1. Egoitza-zentroak

38. taulan ikus daitekeen bezala, EAEko gizarte-zerbitzuen sisteman dauden egoitzako plaza guztien % 90,6 zeuden hartuta, batez beste, 2016an. Honekin gorako joerari eusten zaio, 2012ko % 86,5arekin alderatuta.

Okupazio-maila % 90etik gorakoa da sektore nagusietan (adinekoak, desgaitasunak/gaixotasunak eta adingabeak/familiak). Adineko pertsonen artean, okupazio-ehunekoa goranzko joera du epe luzera: 2012an % 85,5ekoa zen, eta 2016an, berriz, % 91,1ekoa. Goranzko joera hori adingabeko egoitzen kasuan ere hauteman daiteke epe luzera, 2015-2016ko aldian areagotze nabarmena gertatu baita, nahiz eta okupazio-mailak behera egin zuen 2014 eta 2015 artean. Horrela, adingabekoentzako egoitzen kasuan, 2012 eta 2014 artean okupazio-ehunekoa % 92,1etik % 93,5era igo ondoren, berriz ere % 92,1era jaitsi zen 2015ean, eta 2016an % 95,2ra igo da. Desgaitasunak/gaixotasunak dituztenentzako egoitzetan ere, 2014 eta 2016 artean okupazioa egonkor mantentzen da % 97,5-97,8 balioen inguruan.

Aztertutako sektoreetatik kanpo, okupazio-maila % 90era hurbiltzen da bazterkeria-arazoak dituzten pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan. 2016ko datua (% 86,9) 2012tik erregistratutako baxuena da, ordea, eta jaitsiera nabarmena izan da 2015eko % 93tik. % 80tik gora daude, orobat, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza eta egoitza-zentroak, 2015ean okupazioa % 78,1era jaitsi ondoren. Hala eta guztiz ere, 2012tik izandako bigarren ehunekorik baxuena da.

38. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2013-2016
Okupazioaren ehunekoa (erabiltzaileak/plazak)

	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	2016ko okupazioa (%)	2016ko okupazioa (%)	2016ko okupazioa (%)
Zentro/zerbitzu mota							
Egoitza-zentroak	88,2	89,1	90,4	91,1	96,4	93,5	88,4
ADINEKOAK (atsedena/babesa)	88,3	89,3	90,5	91,1	96,4	93,5	88,4
Egoitza-zentroak	97,7	97,7	97,6	97,7	94,0	98,8	98,4
DESGAITUAK/GAIXOAK (atsedena/babesa)	97,6	97,8	97,5	97,7	94,0	98,8	98,5
Egoitza-zentroak	92,4	93,5	92,1	95,2	97,3	91,8	96,6
ADINGABEAK/FAMILIAK	92,4	93,5	92,1	95,2	97,3	91,8	96,6
Etxebizitza eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentzat)	67,1	67,6	76,7	67,4	66,7	28,6	78,1
Etxebizitza eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentzat)	44,8	44,8	63,7	50,9	78,5	42,9	38,3
EMAKUMEAK	54,0	53,5	68,5	58,2	76,6	35,7	58,9
Etxebizitza eta egoitza-zentroak	82,9	84,7	78,1	81,3	90,1	78,3	81,8
Gaueko harrera-zentroak	95,4	89,6	93,0	86,9	83,2	93,2	84,5
BAZTERTUAK	85,5	85,8	81,2	82,5	88,0	80,5	82,6
GUZTIRA	88,6	89,4	90,1	90,6	95,0	91,8	88,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika. Erabiltzaile eta jarduera erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira

Okupazio-ehunekoak % 80tik beherakoak dira genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan (% 67,4). 2015ean % 76,7ra igo ondoren, berriro jaitsi da 2012-2014 urteetan nagusi ziren mailetara, hau da % 65,7-67,6 artekoetara.

Okupazio-mailarik baxuena genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako egoitza-zentroetan dago, % 50,9, hain zuzen ere, 2015eko % 63,7 baino nabarmen gutxiago. Okupazio-ehunekoa 2012koa (% 64,8) baino baxuagoa da, baina 2013 eta 2014ko % 44,8 baino altuagoa.

Lurraldearen arabera, hainbat alde hauteman ditzakegu 2016ko datuetan. Alde batetik, Araba nabarmendu egiten da % 90etik gorako okupazio-tasekin bai adineko pertsonentzako zentroetan (% 96,4), bai gaixotasun/desgaitasunen bat duten pertsonentzako zentroetan (% 94,0), bai adingabeentzako zentroetan (% 97,3) eta bai bazterkeria-egoeran daudenentzakoetan (% 90,1) ere. Emakumeentzako etxebizitzetan, berriz, okupazio-tasa baxuagoa da (% 76,6) baina EAEko sektoreko batez bestekoa (% 58,2) gainditzen du, argi eta garbi. Izan ere, bazterkeria-egoeran daudenentzako gaueko harrera-zentroetan soilik urruntzen da nabarmen okupazio-maila orokorretatik (% 83,2, EAEko % 86,9ko batez bestekoaren ondoan).

Gipuzkoan, okupazio-mailak % 90etik gorakoak dira adineko pertsonen (% 93,5), desgaitasun edo gaixotasunen bat dutenei (% 98,8), adingabeei (% 91,8) eta gaueko harrera-zentroeiei (% 93,2) dagokienez. EAEko sektoreko batez bestekoa (% 81,3) baino pixka bat beherago dago bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroen okupazio maila (% 78,3), eta, bereziki, emakumeentzako zentroeiei dagokienez, Gipuzkoan okupazioa % 35,7koa baita zentro horietan, 2015eko % 40 baino are txikiagoa.

Bizkaian, bestalde, % 90etik gorako okupazio-mailak daude desgaitasun edo gaixotasunen bat dutenentzako egoitzetan (% 98,5) eta adingabeen zentroetan (% 96,6). Maila horietatik gertu daude adineko pertsonentzako egoitzetan (% 88,4), baina beste lurralde historikoetan baino nabarmen beherago (Gipuzkoan egoitza mota horien okupazioa % 93,5ean dago, eta Araban % 96,4an).

Okupazio-mailak urriagoak badira ere, Bizkaiko ehunekoak EAEko batez bestekotik hurbil daude bazterkeriaren arloan (% 82,6 Bizkaian, % 82,5 EAEn), baita horietatik gora ere, genero-indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzako egoitza-zentroetan (% 78,1 Bizkaian, % 67,4 EAEn). Genero-indarkeriaren biktimen kasuan, okupazioa askoz baxuagoa da, % 38,3koa, EAEko batez besteko % 50,9 baino are baxuagoa.

39. taulan jaso dira erabiltzaile bakoitzeko gastu arruntari buruzko oinarritzko datuak. 2016an, batez bestekoa 32.314 eurokoa zen gizarte-zerbitzuen sistemako egoitza-zentro guztietarako. Kopuru hori 2015eko 31.996 euroak baino % 1,0 handiagoa da.

Egoitza-zentroetan, gasturik altuena adingabeentzako zerbitzuek izan dute, erabiltzaileko 66.995 euro gastatu baitira. 2015 eta 2016 artean, % 2,3 igo da gastua mota horretako zentroetan. EAEko batez bestekoaren gainetik dago, baita ere, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetako erabiltzaileko gastua, 43.934 eurokoa; horrenbestez, 2015 eta 2016 artean % 0,1 igo da, ozta-ozta.

Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeen arloko erabiltzaileko gastuak ere EAEko batez bestekoaren gainetik eusten dio 2016an: 34.619 euro. 2015ean izandako jaitsiera handiaren ostean (erabiltzaile bakoitzeko 23.890 euro gastatu ziren), 2016ko zifra 2012tik izandako gehienekoetara iristen da, % 44,9 areagotu baita 2015-2016ko aldian.



Adineko pertsonentzako egoitzetan, ordea, 30.745 euroko gastua ez da iristen EAEko gastuaren batez besteko orokorrera. Kasu horretan, 2015-2016 aldiko areagotzea % 1,2koa izan da, EAEko egoitza-zentro guztietan izandako % 1eko areagotzetik gertu, beraz.

Erabiltzaile bakoitzeko gastua askoz urriagoa da gainerako zentro motetan. 21.889 eurokoa da indarkeria-arazorik izan ez duten emakumeentzako arretan, eta -% 8,8ko jaitsiera izan da gastuan 2015-2016ko aldian. Hala eta guztiz ere, erabiltzaile bakoitzeko gastuak gaintitu egiten du 2012-2014 urteetan izandako 21.000 eurotik beherako gastua.

Xahupena erabiltzaileko 15.860 eurokoa da bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako zentroetan, eta ia ez dago alderik zentro motaren arabera (15.816 egoitza-zentroetan eta 16.008 gaueko harrera-zentroetan). Kasu horietan, 2012-2015 artean izandako gastuaren areagotzearen ondoren (% 20 inguruok), 2015-2016ko aldian beherakadak izan dira (-% 3,0koa egoitza-zentroetan eta -% 1,6koa harrera-zentroetan).

2016ko erabiltzaileko gastuaren lurraldekako azterketak ez du joera argirik erakusten. Adibidez, Arabako gastua adineko pertsonen kasuan gailentzen da, erabiltzaileko 34.319 euroekin (32.515 Gipuzkoan eta 28.672 Bizkaian). Gaueko harrera-zentroen kasuan ere, antzera: 19.708 Araban, 19.283 Gipuzkoan eta 12.243 Bizkaian.

Ostera, Bizkaia nabarmentzen da desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitzetan erabiltzaileko gastu handiena duelako: 46.223 euro, 42.161 Gipuzkoan eta 41.284 Araban. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan ere, gasturik handiena Bizkaian egiten da: 19.115 euro, 14.295 Gipuzkoan eta 12.259 Araban.

Gainerako egoitza-zentroetan, gasturik altuena Gipuzkoan egon da. Aldeak bista-bistakoak dira adingabeen/familien sektorean (85.223 Gipuzkoan, 69.027 Araban eta 55.589 Bizkaian) eta emakumeen sektorean (50.005 Gipuzkoan, 29.079 Araban eta 23.935 Bizkaian).

39. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2013-2016
Gastu arrunta erabiltzaileko

	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAEko 2015/2016 aldiko bariazioa ehunekotan
	gastua/ erabiltzaile	gastua/ erabiltzaile	gastua/ erabiltzaile	gastua/ erabiltzaile	gastua/ erabiltzaile 2016	gastua/ erabiltzaile 2016	gastua/ erabiltzaile 2016	
Zentro/zerbitzu mota								
Egoitza-zentroak	29.761	30.332	30.401	30.759	34.319	32.515	28.696	1,2
ADINEKOAK (atsedena/babesa)	29.717	30.285	30.370	30.745	34.319	32.515	28.672	1,2
Egoitza-zentroak	40.677	42.672	43.817	43.884	41.179	42.378	46.048	0,2
DESGAITUAK/GAIXOAK (atsedena/babesa)	40.621	42.753	43.884	43.934	41.284	42.161	46.223	0,1
Egoitza-zentroak	63.530	64.895	65.491	66.995	69.027	85.223	55.589	2,3
ADINGABEAK/FAMILIAK	63.530	64.895	65.491	66.995	69.027	85.223	55.589	2,3
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentzat)	20.928	20.624	23.998	21.889	125.166	3.420	15.474	-8,8
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentzat)	31.583	31.724	23.890	34.619	14.007	81.062	42.328	44,9
EMAKUMEAK	26.119	26.405	23.934	28.088	29.079	50.005	23.935	17,4
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	14.783	14.558	16.297	15.816	12.259	14.295	19.115	-3,0
Gaueko harrera-zentroak	15.739	15.628	16.271	16.008	19.708	19.283	12.243	-1,6
BAZTERTUAK	15.001	14.800	16.291	15.860	14.348	15.166	17.221	-2,6
GUZTIRA	31.020	31.606	31.996	32.314	34.894	33.632	30.685	1,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.
Erabiltzaile eta jarduera erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira.

40. taulan ikus daitezke erabiltzaileen ekarpenari buruzko datuak. Erabiltzaileek egoitza-zentroak eta horiekin lotutako zerbitzuak mantentzeko egiten dituzten ekarpenetan, aipagarria da adineko pertsonak ordaintzen dituzten kuota altuak. Kasu horretan, erabiltzaileko batez besteko kuota etengabe egin du gora 2013tik, eta 13.569 euro izatetik 2015ean 14.378 izatera igaro zen. 2015-2016 artean, ekarpena beste % 1,6 areagotu da.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan, batez besteko kuota 5.644 eurokoa zen 2016an, horrek esan nahi du -% 8,7ko jaitsiera indartsua izan dela 2015eko 6.183 euroetatik. Kuota hori 2012-2014 urteetako erregistroetatik gora dago hala ere, aldi hartan gehienekoa 2013ko 5.534 euroak izan baitziren.

2016an, batez besteko kuota askoz ere txikiagoak dira bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitzetan: 1.966 eurokoak. Kuota horietan hazkundera deigarria da, % 15,3koa, 2015ean 1.705 eurotan baitziren. Hala ere, 2016ko zifra 2013kotik (1.953 euro) gertu dago.

2016ko lurraldekako datuek erakusten dutenez, erabiltzaileko ekarpenik altuena Bizkaian dago adinekoentzako eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako zentroetan. Lehen kasuan, erabiltzaileko ekarpena 15.052 eurokoa da; Gipuzkoan berriz, 13.834 eurokoa eta Araban 13.152 eurokoa. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako zentroetan, Bizkaiko erabiltzaileko ekarpena 2.444 eurokoa da, Gipuzkoakoa 1.571 eurokoa eta Arabakoa 1.534 eurokoa).

Desgaitasun edo gaixotasun bat duten pertsonentzako egoitzetan, berriz, batez besteko kuotarik altuena Arabari dagokio 2016an (6.842 euro Gipuzkoan, 6.600 Gipuzkoan eta 4.562 Bizkaian).

40. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2013-2016
Erabiltzaileko batez besteko kuota

	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAEko 2015/2016 aldiko bariazioa ehunekotan
Zentro/zerbitzu mota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota 2016	2016ko batez besteko kuota	2016ko batez besteko kuota	
Egoitza-zentroak	13.595	14.078	14.167	14.383	13.152	13.834	15.063	1,5
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	918	1.718	2.298	8.921			8.921	288,2
ADINEKOAK (atsedena/babesa)	13.569	14.051	14.148	14.378	13.152	13.834	15.052	1,6
Egoitza-zentroak	5.571	5.441	6.215	5.677	6.842	6.627	4.588	-8,7
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	3.817	3.564	4.212	3.649		3.750	3.625	-13,4
DESGAITUAK/GAIXOAK (atsedena/babesa)	5.534	5.417	6.183	5.644	6.842	6.600	4.562	-8,7
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	1.953	1.774	1.705	1.966	1.534	1.571	2.444	15,3
Gaueko harrera-zentroak	334	506	421					
BAZTERTUAK	1.766	1.638	1.540	1.966	1.534	1.571	2.444	27,7
GUZTIRA	12.195	12.734	12.885	13.083	12.035	12.645	13.660	1,5

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika
Erabiltzaile eta jardura erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira

41. taulan daude ikusgai abenduaren 15ean egoitza-zentro eta -zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileei buruzko datuak. Horien arabera, LOB kontuan hartuta, euskal egoitzetan 46,4 langile zeuden 100 erabiltzaileko. Okupazioak goranzko joera du, 2015-2016 biurtekoan ere mantendu dena, % 1,2ko igoerarekin. Hala, 2012 eta 2013 artean egonkortu ondoren (44,1 eta 43,9), 2013tik hona langileen kopuruak etengabe egin du gora: 100 erabiltzaileko 45,1 langile zeuden 2014an, 45,9 2015ean eta 46,4 (gehienekoa) 2016an.



Okupazioa altuagoa da Araban, LOB erako 49,4 langile baitzeuden zentroetako barne-egituran integratuta 100 erabiltzaileko (2015ean zeuden 49,8ak baino gutxiago, dena den). Zifra hori nahiko gertu dago Bizkaian ere; 47,5 langilerekin; lurralde historiko horretan datu hau areagotu egin da, 2015eko 47,1en aldean. Gipuzkoari dagokio mailarik baxuena: 100 erabiltzaileko 43,2 langile. 2015eko 42,0 langileen aldean, % 1,2 puntuko igoera izan da, dena den.

Jarduketa-esparru edo sektore bakoitza aztertzen badugu, ikus daiteke 2016an 100 erabiltzaileko langile-kopururik handiena desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetan dagoela, 65,5 langile, hain zuzen ere. Kasu horretan, langileen kopuruak etengabe egin du gora 2012ko 61,1 langiletik, eta 2015-2016 artean % 1,7 egin du gora. Lurraldeen arteko aldeak aipagarriak dira kasu honetan, Bizkaian 73,6 langile baitzeuden, Gipuzkoan 65,8 eta Araban 44,4.

Okupazioaren zifrak batez bestekoaren inguruan daude adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan: 100 erabiltzaileko 47,9 langile zeuden 2016an, 2015ean baino % 1,5 gehiago (47,2 ziren). 2012ko datuekin alderatuta (46,3 langile), hazkundera ez da desgaitasun/gaixotasunen sektorean izandakoa bezain indartsua. Adineko pertsonentzako egoitzetan, langile kopuru handiena Araban zegoen, 100 erabiltzaileko 57,4 langile baitzeuden, beraz, alde handiz gainditzen ziren Bizkaiko 47,4 langileak eta Gipuzkoako 43,6 langileak.

Gainerako sektoreetan, 100 erabiltzaileko zegoen LOB erako langileen kopurua nabarmen jaitsi da, nahiz eta oraindik ere 28,0koa den adingabe edo familientzako egoitza-zentroetan. Multzo horretan, areagotzea pixka bat handiagoa izan da (% 2,6koa) 2015eko 27,3 langileekin alderatuta. Adierazle horrek 2012koa (25,5 langile) ere gainditzen du. Kasu horretan, Gipuzkoak du LOB erako langileen kopuru handiena 100 erabiltzaileko: 41,3; Araban 30,1, eta Bizkaian 19,6.

Genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima ez diren emakumeentzako egoitza-zentroetan, okupazio-maila oso gertu dago: 100 erabiltzaileko 26,5 langile daude Gipuzkoan, eta 31,3 Bizkaian. Zentro mota horretan -% 18,3ko jaitsiera izan da 2015ean zeuden 32,5etik. Nolanahi ere, zifra hori 2012 eta 2013koak baino altuagoa da, orduan 22,2 eta 22,9 langile baitzeuden 100 erabiltzaileko.

Baztertutako pertsonentzako egoitza-zentroetako ratioa 24,6 langilekoa da; zifra horrek ere beheko joera du 2015etik (-% 6,3), baina 2012an (21,5) eta 2013an (23,6) izandakoetatik gora dago, argi eta garbi. Ratorik handiena Bizkaiak du, 38,5 (Gipuzkoaren 20,5 eta Arabaren 2,5 baino gehiago).

Tratu-txarrak jasan dituzten emakumeentzako egoitzak alde batera utzita (LOB erako 6,9 langile 100 erabiltzaileko), ratorik txikiena baztertutako pertsonentzako gaueko harrera-zentroei dagokie: LOB erako 15,2 enplegu 100 erabiltzaileko. Zenbateko horrek 2012. urtekoa (12,9) gainditzen du soilik. Izan ere, adierazlea -% 3,8 jaitsi da 2016an 2015eko datuen aldean (15,8). Erabiltzaileko langileen ratorik altuenak Gipuzkoan eta Araban izan dira (20,4 eta 20,2; Bizkaian, berriz, 9,6 besterik ez).

Aipatu beharreko alderdietako bat da genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroetan salbu, 2012-2015 aldian emakumeentzako eta baztertutako pertsonentzako egoitza-zentroetan 100 erabiltzaileko zeuden LOB erako langileen kopurua nabarmen areagotu ondoren, 2015-2016ko aldian jaitsierak izan direla, maila desberdinetakoak, baina -% 4tik gertukoak edo hortik gorakoak. Zalantzarik gabe, hamarkada honen erdialdetik aurrera egoera ekonomikoa hobetu izana bilakaera horrekin lotuta dago.

41. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2013-2016
LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko

	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAEko 2015/2016 aldiko bariazioa ehunekotan
	langileak/ erabiltzaile	langileak/ erabiltzaile	langileak/ erabiltzaile	langileak/ erabiltzaile	2016ko langileak/ erabiltzaile	2016ko langileak/ erabiltzaile	2016ko langileak/ erabiltzaile	
Zentro/zerbitzu mota								
Egoitza-zentroak	45,5	46,6	47,2	47,9	57,4	43,6	47,5	1,4
ADINEKOAK (atsedena/babesa)	45,4	46,5	47,2	47,9	57,4	43,6	47,4	1,5
Egoitza-zentroak	62,0	62,9	64,4	65,3	44,7	65,9	73,0	1,4
DESGAITUAK/GAIXOAK (atsedena/babesa)	61,8	62,9	64,4	65,5	44,4	65,8	73,6	1,7
Egoitza-zentroak	24,5	26,3	27,3	28,0	30,1	41,3	19,6	2,6
ADINGABEAK/FAMILIAK	24,5	26,3	27,3	28,0	30,1	41,3	19,6	2,6
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentzat)	22,9	28,3	32,5	26,5			31,3	-18,3
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentzat)	2,1	8,1	4,2	6,9		13,3	12,4	64,5
EMAKUMEAK	12,8	17,8	15,7	17,0	0,0	8,0	25,3	7,9
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	23,6	25,8	26,2	24,6	2,5	20,5	38,5	-6,3
Gaueko harrera-zentroak	16,2	15,7	15,8	15,2	20,2	20,4	9,6	-3,8
BAZTERTUAK	21,9	23,5	23,8	22,4	7,5	20,5	30,5	-5,8
GUZTIRA	43,9	45,1	45,9	46,4	49,4	43,2	47,5	1,2

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika. Erabiltzaile eta jardueraren erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira.
LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

42. taulan, egoitza-zentroetako berezko langileek jasotzen duten batez besteko soldatari buruzko datuak agertzen dira (LOB arabera neurtuta). 2016an, batez besteko soldata 36.289 eurokoa zen. Zenbateko hori % 0,8 hazi da 2015eko 35.988 euroen aldean, eta gorako joerari eusten dio 2012an 34.607 euro zirela aintzat hartuz.

Soldatarik handienak adingabeentzako egoitza-zentroetan aurki daitezke (56.363 euro). Zenbateko horrek % 9,5 egin zuen gora 2012 eta 2015 artean, baina 2015-2016ko aldian -% 1,8ko beherakada izan du (2015ean 56.369 eurokoa zen). Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan ere soldatua altua da besteekin alderatuta (50.434); hala ere, adingabeentzako zentroetan gertatzen den bezala, eta 2012ko datuen aldean izandako % 15,3ko areagotzearekin kontrastean, 2015-2016ko aldian -% 0,8 jaitsi da batez besteko soldata.

Horrez gain, LOB erako langileen soldata EAEko egoitza-zentroetako batez bestekoaren gainetik dago desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan. Kasu horretan, batez besteko soldata 44.415 eurokoa da, hau da, 2015ekoaren oso antzekoa, -% 0,1 baino ez baita jaitsi. 2013an erregistratutako jaitsiera izan ezik (44.017 eurotik 42.317ra jaitsi zen), batez besteko soldatak egonkor eutsi dio zentro mota horretan: 2012ko 44.017 euroen eta 2015eko 44.474 euroen bitartean.

Adinekoentzako egoitza-zentroetan, ordea, soldatak ez dira EAEko batez bestekora iristen: 2016an 34.076 eurotan zeuden. Adierazle honek 2012. urteaz geroztik izandako gorako joera arinari eusten dio, eta % 0,9 areagotu da 2015eko 33.765 euroetatik. Soldatak oso antzekoak dira bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan: 34.713 euro. 2012-2015 urteetan -% 1,2 jaitsi ondoren, 2015-2016 biurtekoan areagotze indartsua izan da: % 5,5 igo dira soldatak 2015eko 32.897 euroko soldaten aldean. 2015ean, adinekoentzako egoitza-zentroetako



ordainsariak batez besteko soldatetik behera bazeuden, 2016an toki hobean daude, eta hori onuragarria da baztertutako pertsonentzako egoitza-zentroetan lan egiten duten pertsonentzat.

Beherakadarik handiena, -% 20 ingurukoa edo hortik gorakoa, emakumeentzako (genero-indarkeria/tratu txarrak jasan dituztenak zein ez) egoitza-zentroetan hauteman da. 2012 eta 2013an, zentro horietako batez besteko soldata 32.500 euro ingurukoa zen, eta nabarmenki jaitsi ondoren, 2015ean 25.705 euro izatera iritsi zen. 2016an, ordea, % 2ko lehengoratzea izan da soldata horretan, eta 26.226 eurokoa izatera igaro da. Lehengoratze hori indarkeriaren biktima ez diren pertsonentzako zentroetan gertatutako aldaketarekin lotuta dago, 2015-2016ko aldian % 3,1eko soldata-igoera izan baitute (25.031 eurora iritsi da). Genero-indarkeriaren biktimentzako zentroetan, ordea, soldatak -% 6,6 murriztu dira, soldatak hobeak izan arren (31.072 euro).

Arabako LOB erako langileek jasotzen dute batez besteko soldatarik altuena gizarte-zerbitzuen egoitza-esparruan, hain zuzen ere 39.812 euro. Bizkaia eta Gipuzkoako mailak antzekoak dira, baina arinki baxuagoak: 35.648 eta 35.355 euro, hurrenez hurren. Aldea bereziki handia da adineko pertsonen arretan (38.311 euro Araban, 33.706 euro Gipuzkoan eta 32.746 euro Bizkaian) eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan (60.012 euro Araban, 47.516 Gipuzkoan eta 46.713 Bizkaian). Bi esparru horietan, Bizkaia eta Gipuzkoa antzeko mailetan daude, baina Arabako zenbatekoen azpitik, zalantzarik gabe.

42. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2013-2016
Langileko (LOB) batez besteko soldata

	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAEko 2015/2016 aldiko bariazioa ehunekotan
	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria 2016	2016ko batez besteko ordainsaria	2016ko batez besteko ordainsaria	
Zentro/zerbitzu mota								
Egoitza-zentroak	33.067	33.442	33.765	34.076	38.311	33.706	32.746	0,9
ADINEKOAK (atsedena/babesa)	33.067	33.442	33.765	34.076	38.311	33.706	32.746	0,9
Egoitza-zentroak	42.247	44.076	44.476	44.527	47.225	41.181	46.015	0,1
DESGAITUAK/GAIXOAK (atsedena/babesa)	42.317	44.078	44.474	44.415	47.225	41.138	45.798	-0,1
Egoitza-zentroak	56.881	56.660	56.369	55.363	50.244	37.440	80.304	-1,8
ADINGABEAK/FAMILIAK	56.881	56.660	56.369	55.363	50.244	37.440	80.304	-1,8
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentzat)	31.601	28.065	24.285	25.031			25.031	3,1
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentzat)	43.686	24.146	33.276	31.072		37.058	28.977	-6,6
EMAKUMEAK	32.570	27.136	25.705	26.226		37.058	25.640	2,0
Etxebizitzak eta egoitza-zentroak	33.624	30.682	32.897	34.713	26.688	35.501	34.407	5,5
Gaueko harrera-zentroak	45.406	48.574	50.835	50.434	60.012	46.713	47.516	-0,8
BAZTERTUAK	35.605	33.394	35.682	37.192	51.961	37.450	35.538	4,2
GUZTIRA	35.178	35.574	35.988	36.289	39.812	35.355	35.648	0,8

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika
Erabiltzaile eta jarduera erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira.
LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Arabako gizarte zerbitzuetan diharduten langileen eta beste lurraldeetako ordainsarien arteko aldea ez da hain handia desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan. Kasu horretan, Araban 47.225 euroko soldata dute, eta Bizkaian 45.798 eurokoa; Gipuzkoan sektore horretan diharduten langileen batez besteko soldata, 41.138 eurokoa, urrutiago gelditzen da, ordea.

Adinekoentzako egoitzetan, Bizkaiko langileek dute soldatarik altuena, 80.304 euro batez beste, Arabako 50.244 eta Gipuzkoako 37.440 euroen gainetik.

Emakumeentzako egoitzetan, heda daitekeen informazioa duten lurraldeak aintzat hartuz, soldatarik handienak Gipuzkoan daude, 37.058 euro batez beste, Bizkaiko 25.640 euroen gainetik.

Gipuzkoan dituzte soldatarik onenak bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza eta egoitza-zentroetan ere, 35.501 euro jasotzen baitute batez beste, Bizkaian eta Araban baino gehiago (34.407 eta 26.688 euro, hurrenez hurren). Aurrez esan bezala, gaueko harrera-zentroetan, azkenik, Araban daude ordainsari altuenak.

6.2. Egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuak

43. taulan ikus daitekeen bezala, EAEko gizarte-zerbitzuen sisteman zeuden egoitzakoak ez ziren plaza guztien % 94,2 zeuden hartuta, batez beste, 2016an. Adierazle horrek 2013ko % 98,4 hartaz geroztik hauteman den beherako joera luzatzen eta areagotzen du, 2016ko okupazio-maila 2012ko % 95,4tik behera baitago.

Zentro eta zerbitzu adierazgarriei erreparatuz gero, alde nabarmenak ikusten dira okupazio-mailetan. Alde batetik, adineko pertsonentzako zenbait zerbitzutan, okupazioaren ehunekoak batez bestekoa baino baxuagoa da, hain zuzen ere % 85,7koa eguneko laguntza-zentroetan eta % 74,6koa (gutxienekoa) adineko pertsonentzako jantokietan. Aipatutako eguneko laguntza-zentroetan, okupazio-ehunekoak egonkortzeko joera du, 2012 eta 2016 artean % 85 eta % 86,1 bitartean eutsi baitio; jantokietan, berriz, gorako joera finkatu da, 2012ko % 53,6tik.

Maila horietatik hurbil daude bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroak ere 2016an (% 85). Kasu horretan, ordea, 2012 eta 2014 artean % 93,3tik % 105era igaro ondoren, 2014tik aurrera beherako joera luzea hauteman da, 2016an 2012tik izandako okupazio-maila baxuenera iritsi arte.

Beherako joera nagusitzen da, orobat, adinekoentzako atsedeen- eta babes-zentroetan ere, 2013. urteaz geroztik % 109,7tik % 86,1era jaitsi baita okupazio-maila 2016an. Okupazioaren ehunekoak altuagoak badira ere (2015ean % 90,6), adineko pertsonentzako egoitzakoak ez diren gainerako zentroetan ere ikusi da beherako joera 2015-2016ko aldian, 2013 eta 2015 artean okupazio-ehunekoak % 95,7 eta % 96,5 bitartean baitzeuden.

Okupazio-maila batez bestekoaren gainetik dago 2016an, % 97,9 eta % 100 artean, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan. Beste zerbitzu batzuetan ez da aldaketa handirik izan, suspertzeko eta arreta ematekoan adibidez, non okupazio-tasak lehengoratzeko joera erakusten duen (2015ean % 91 zen eta 2016an % 99,9).

Badaude, ordea, itxarondako gehieneko okupazio-mailak gainditzen dituzten zentro eta zerbitzuak ere. Horrela gertatzen da, alde batetik, adingabeak eta familiak artatzeko eguneko zentroetan. 2013 eta 2015 urteen artean okupazioa % 90,6tik % 93,7ra igo ondoren, 2016an % 110,2ra iritsi da.

Beste alde batetik, gehiegizko okupazioa hauteman da, beste behin, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan: 2016an % 150,3ko okupazio-tasa zuten. Hala eta guztiz ere, beherako joera argia erakusten dute zifrek, 2013an % 260ra baitzeuden, eta 2015ean % 224ra. 2016ko tasa askoz baxuagoa da 2012an izandakoaren aldean ere (% 238,5).



Lurraldeei erreparatuz gero, okupazio-adierazleak Araban dira altuen; bertan, % 96,7 izatera iritsi dira. Gipuzkoan adierazle hori bera % 94,2an dago, eta Bizkaian % 93,2an.

Zentro eta zerbitzuen araberako aldeak ez dira oso handiak, baina zenbait datu garrantzitsu nabarmendu daitezke. Okupazioa zertxobait altuagoa da Araban eta Gipuzkoan adinekoentzako laguntza-zentroetan (% 88,6 eta % 87,1 hurrenez hurren; Bizkaian % 82,9).

Zerbitzuen gehiegizko okupazioaren gainean, esan behar da adingabe eta familientzako eguneko arretan Gipuzkoak eta Bizkaiak okupazioaren % 100 gaintzen dutela; Araba, aldiz, % 96,4an dago. Gehiegizko okupazioak, Araban, baztertutako pertsonentzako eguneko zentroetan du eragina, % 150ean baitaude (Gipuzkoan % 92,5ean eta Bizkaian % 78,9an). Ildo berean, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako jantokiek gehiegizko okupazioa dute bai Araban eta bai Bizkaian ere (% 188,3 eta % 137,4, hurrenez hurren).

43. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren zentroak. 2013-2016
Okupazioaren ehunekoa (erabiltzaileak/plazak)

	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	2016ko okupazioa (%)	2016ko okupazioa (%)	2016ko okupazioa (%)
Zentro/zerbitzu mota							
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	109,7	107,1	97,5	86,1	94,3		75,0
Eguneko laguntza-zentroak	85,9	85,7	86,1	85,7	88,6	87,1	82,9
Jantokiak	58,7	65,5	71,0	74,6	74,6		
Egoitzakoak ez diren zentroak	96,5	95,7	96,5	90,6	100,0	70,0	87,5
ADINEKOAK, GUZTIRA	83,8	84,4	85,1	84,8	84,5	87,0	82,9
Eguneko laguntza-zentroak	96,5	96,8	98,0	97,9	98,0	97,3	98,3
Suspertze- eta arreta-zentroak	100,9	94,5	91,0	99,9	100,0	100,0	99,8
Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	98,8	97,3	98,3	98,9	100,0	100,0	97,9
Laneratze-zentroak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	98,3	96,9	97,3	98,8	99,7	98,8	98,5
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	90,6	93,4	93,7	110,2	96,4	250,0	102,9
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	90,6	93,4	93,7	110,2	96,4	250,0	102,9
Eguneko zentroak	98,2	105,0	91,8	85,0	150,0	95,2	78,9
Jantoki sozialak	260,0	234,1	224,0	150,3	188,3		137,4
BAZTERTUAK, GUZTIRA	141,3	140,6	132,0	101,6	175,3	95,2	93,3
GUZTIRA	98,4	97,6	96,4	94,2	96,7	94,2	93,2

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika. Erabiltzaile eta jarduera erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira.

OHARRA: ikusi atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.

Erabiltzaile bakoitzeko gastu arruntari buruzko datuak 44. taulan jaso dira. 2016an batez bestekoa 11.431 eurokoa zen gizarte-zerbitzuen sistemako egoitzakoak ez diren zentro guztietarako. 2015eko zenbateko hori -% 0,6 jaitsi da 2015etik, eta 2012ko 11.424 euroetara gerturatzen da.

Are gehiago, adierazleak aldaketa bat agertzen du 2014 eta 2015 artean: modu jarraituan gora egin eta 2014an erabiltzaileko 12.025 euro izatera iritsi ondoren, 2015eko 11.496 euroak ordura arteko dinamikaren haustura argia erakutsi zuten, eta beherako joera hori 2016ra arte luzatu da.

2015ean bezala, 2016an ere erabiltzaileko batez besteko gastu handiena Gipuzkoan dago egoitzakoak ez diren zerbitzuetan: 13.588 euro, Bizkaian 10.577 eta Araban 10.428. Horrek areagotze argia dakar Gipuzkoan, ekarpena 13.196 eurokoa baitzen 2015ean; Araban, aldiz, beherakada izan da, urte hartako 11.187 euroak aintzat hartuz; Bizkaian, azkenik, jaitsiera leuna izan da, 2015ean 10.613ko gastua egiten baitzen.

Adineko pertsonentzako eta gaixotasun nahiz desgaitasunen bat dutenentzako laguntza-zentroek dute erabiltzaileko gasturik handiena; 15.957 eta 16.794 euroko gastua izan dute, hurrenez hurren. Bitartean, adineko pertsonentzako eguneko zentroetan, gastua % 1,8 baino ez da igo 2015-2016ko aldirian, 2013 eta 2015 urteetan egonkortasuna erakutsi ondoren; desgaitasun edo gaixotasunen bat dutenentzako arretan, berriz, azken biurtekoan -% 1,1eko beherakada izan da, 2012 eta 2015 artean gastua 16.055 eurotik 16.975 eurora areagotu ondoren.

Eguneko laguntza-zentro mota horietan, gastuaren mailarik altuenak Araban egin dira. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetan, Araban 17.640 euro gastatu dira; atzetik ditu Gipuzkoa (16.446) eta Bizkaia (14.610), nahiz eta Bizkaian gorakada nabarmena gertatu den 2015etik (14.205 ziren). Aldea are handiagoa da desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan: 28.624 Araban, 16.275 Bizkaian eta 15.469 Gipuzkoan.

44. taula.
Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren zentroak. 2013-2016
Gastu arrunta erabiltzaileko

Zentro/zerbitzu mota	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAEko 2015/2016 aldiko bariazioa ehunekotan
	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile 2016	2016ko gastua/erabiltzaile	2016ko gastua/erabiltzaile	
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	6.285	6.299	7.439	7.965	6.084		11.149	7,1
Eguneko laguntza-zentroak	15.763	15.731	15.739	15.947	17.640	16.446	14.610	1,3
Jantokiak	2.070	2.029	1.965	1.905	1.905			-3,0
Egoitzakoak ez diren zentroak	3.079	2.483	3.404	3.764	3.967	4.039	3.596	10,6
ADINEKOAK, GUZTIRA	14.065	13.861	13.937	14.228	11.744	16.390	14.046	2,1
Eguneko laguntza-zentroak	16.270	16.318	16.975	16.794	28.624	15.469	16.275	-1,1
Suspertze- eta arreta-zentroak	8.438	9.208	9.281	8.879	3.779	7.931	9.350	-4,3
Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	13.605	15.135	10.085	10.780	13.422	10.206	10.237	6,9
Laneratze-zentroak	1.489	1.397	2.020	1.124	493	7.828	1.826	-44,4
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	13.029	14.165	12.123	11.533	10.530	12.241	11.421	-4,9
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	6.413	6.311	8.806	6.367	13.295	2.256	3.413	-27,7
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	6.413	6.311	8.806	6.367	13.295	2.256	3.413	-27,7
Eguneko zentroak	6.021	6.385	7.742	7.418	8.803	9.106	6.794	-4,2
Jantoki sozialak	1.894	1.996	1.926	2.462	2.239		2.566	27,8
BAZTERTUAK, GUZTIRA	3.998	4.371	4.743	5.552	4.152	9.106	5.254	17,0
GUZTIRA	11.471	12.025	11.496	11.431	10.428	13.588	10.577	-0,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

Erabiltzaile eta jarduera erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira.

OHARRA: ikusi atsedena- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.



Desgaitasunak eta gaixotasunak artatzeko esparruan, erabiltzaileko gastua 10.780 eurokoa zen eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan, 8.879 eurokoa, berriz, suspertze- eta arreta-zentroetan. Bi kasu horietan, gastua 2012koa (11.761 eta 11.854 euro, hurrenez hurren) baino nabarmen baxuagoa izan da. Hala ere, 2015-2016ko aldian suspertze- eta arreta-zentroetan erabiltzaileko gastuak beherako joeran sakondu duen arren, -% 4,3ko jaitsierarekin, eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan gastua % 6,9 areagotu da.

Zerbitzu horietan, erabiltzaileko gastua handiagoa da Bizkaian suspertze- eta arreta-zentroei dagokienez (9.350 euro, Gipuzkoan 7.931 eta Araban 3.779). Arabak du gasturik handiena eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan, 13.422 eurokoa (Bizkaian 10.237 eta Gipuzkoan 10.206). Azken zentro mota horretan, gastuaren gorakada nabarmena izan da 2015-2016ko aldian lurralde guztietan (Arabian 2015ean 13.001 euroko gastua zuten, Bizkaian 9.984koa eta Gipuzkoan 8.700ekoa).

Erabiltzaileko gastua askoz ere baxuagoa da zerbitzu hauetan: egoitzakoak ez diren adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzuetan (7.965 euro), bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan (7.418 euro) eta adingabe eta familientzako eguneko arreta-zerbitzuan (6.367 euro). Atsedeen-zerbitzuetan gastua 2015-2016 bitartean % 7,1 berreskuratu den bitartean, beste bi zentro motetan jaitsiera esanguratsuak izan dira 2015-2016ko aldian (-% 4,2 bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan eta -% 27,7 familientzako eguneko arreta-zerbitzuan), 2012 eta 2015 artean erabiltzaileko gastua nabarmen igo ondoren.

Arabak bere gastu diferentzialari eutsi dio 2016an adingabeentzako eguneko arretan, 13.295 euro erabiltzaileko (Bizkaian 3.413 eta Gipuzkoan 2.256); baina Gipuzkoak erabiltzaileko gastu handiagoa du bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan: 9.106 euro (8.803 Araban eta 6.794 Bizkaian). Alabaina, Bizkaiak egiten du gastu handiena atsedeen-zerbitzuetan, 11.149 euro erabiltzaileko, alegia (Arabian 6.084 euro).

Erabiltzaileko gastua askoz ere baxuagoa da egoitzakoak ez diren beste zentro batzuetan, esate baterako gaixotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako laneratze-zentroetan, adineko pertsonentzako beste zentro batzuetan eta jantokietan. Azken kasu horretan, erabiltzaileko batez besteko gastua 1.905 eurokoa da adineko pertsonen kasuan eta 2.462 eurokoa bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan (2.239 Araban eta 2.566 Bizkaian). Deigarria da, baita ere, azken multzo horretan erabiltzaileko gastua zenbat igo den 2015-2016ko aldian, EAE osoan % 27,8ko areagotzea izan baita, eta Araban area handiagoa: 2015ean 1.624 euroko gastua egiten zen, eta 2016an 2.239 eurokoa.

45. taulan azaltzen da zer ekarpen egiten duten erabiltzaileek gizarte-zerbitzuetako sektorean, egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu nagusiak mantentzeko. Ikus daiteke, adibidez, 2016an batez besteko kuota 2.196 eurokoa izan zela erabiltzaileko, 2015eko 2.234 euroak baino -% 1,7 gutxiago. Lurraldeko batez besteko ekarpenetan alde handiak daude: ekarpenik handiena Gipuzkoan dugu, 3.050 euro, eta atzetik daude Arabako 2.247 euroak eta Bizkaiko 1.588 euroak.

2016an, adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan egin dute ekarpenik handiena erabiltzaileek, hain zuzen ere, 3.687 eurokoa (2015ean baino % 3,4 gehiago). Zenbateko hori 2013ko 3.706 euroen azpitik badago ere, bilakaera gorakoa izan da 2014ko 3.458 euroekin eta 2012ko 3.333 euroekin alderatuta. Ekarpenik handiena Arabari dagokio (4.881 euro), Gipuzkoako 4.151 euroen eta Bizkaiko 2.668 euroen gainetik.

45. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren zentroak. 2013-2016
Erabiltzaileko batez besteko kuota

Zentro/Zerbitzu mota	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAEko
	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota 2016	2016ko batez besteko kuota	2016ko batez besteko kuota	2015/2016 aldiko bariazioa ehunekotan
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	1.219	1.305	1.362	2.449	1.268		4.448	79,8
Eguneko laguntza-zentroak	3.706	3.458	3.567	3.687	4.881	4.151	2.668	3,4
Jantokiak	1.332	1.437	1.456	1.474	1.474			1,2
Egoitzakoak ez diren zentroak	1.266	1.476	1.362	1.404	867	208	1.891	3,0
ADINEKOAK, GUZTIRA	3.377	3.183	3.262	3.402	3.455	4.132	2.677	4,3
Eguneko laguntza-zentroak	1.414	1.808	1.610	1.237	1.436	1.725	823	-23,2
Suspertze- eta arreta-zentroak	462	331	445	472	0	495	463	5,9
Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	609	880	886	488	0	0	488	-44,9
Laneratze-zentroak	0	0	0	0	0	0	0	0,0
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	1.000	1.288	1.213	837	389	1.505	604	-31,0
Adingabeentzako/familiarentzako eguneko arreta	0	0	0	0	0	0	0	0,0
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	0	0	0	0	0	0	0	0,0
Eguneko zentroak	1.376	1.193	992	2.614		1.518	2.650	163,4
Jantoki sozialak	103	118	154	395	395			157,1
BAZTERTUAK, GUZTIRA	682	294	393	1.402	395	1.518	2.650	256,6
GUZTIRA	2.247	2.151	2.234	2.196	2.247	3.050	1.588	-1,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

Erabiltzaile eta jardura erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira.

OHARRA: ikusi atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.

Ekarpenak batez besteko mailak gainditzen ditu atsedeen- eta babes-zerbitzuetan (2.449 euro) eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan (2.614 euro). Kasu batean zein bestean, areagotze handiak izan dira 2015-2016 urteen artean, 2015ean ekarpen horiek 1.362 eta 992 eurokoak baitziren, hurrenez hurren.

Erabiltzaile bakoitzeko kuota 1.404 eta 1.474 euro bitartekoa da adinekoentzako egoitzakoak ez diren gainerako zerbitzuetan, eta kuota hori areagotzen ari da, 2015-2016ko aldian % 1,2 eta % 3 arteko areagotzeak izan baitira.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, berriz, erabiltzaileek 1.237 euro ordaintzen dituzte, batez beste. 2012tik 2014ra 1.298 eurotik 1.808 eurora igo ondoren, orduz geroztik beherako doikuntza bat izan da eta 2016an 2012an zegoenaren azpiko zenbatekoetara iritsi dira. Zehazki, 2016-2016ko aldian -% 23,2 jaitsi da erabiltzaileek egin beharreko ekarpena. Eguneko zentro horietan alde handiak daude lurralde historiko batetik bestera, ordea: Gipuzkoan batez besteko kuota 1.725 eurokoa da, Araban 1.436 eurokoa eta Bizkaian 823 eurokoa.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentroetan eta zentro okupazionalak, berriz, erabiltzaileko kuota 488 eurokoa da; arlo honetan ere beherakada argia izan da 2015-2016 biurtekoan, -% 44,9koa, hain zuzen ere. Kolektibo horrentzako suspertze- eta arreta-zentroetan kuota antzekoa da, 472 eurokoa, baina kasu honetan zenbatekoa igo egin da 2014az geroztik. Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen ez dute inolako ekarpenik egiten, ordea, laneratzeko zentroak baliatzeko orduan.



Azkenik, erabiltzaileen kuota areagotzeko joera da ezaugarri nagusia bazterkeria-egoeran dauden pertsonontzako jantokien dinamikan. 2012-2015 aldian bistakoa zen dagoeneko, baina 2015-2016ko aldian areagotu egin da, % 157,1eko igoerarekin. Horrela, 2013tik 2015era, kuotak 103 eurotik 154 eurora igo baziren, 2016an batez besteko ekarpena 395 eurora iritsi da.

46. taulan jasotzen dira 2016ko abenduaren 15ean egoitzakoak ez ziren zentroetan lanean ari ziren berezko langileen datu nagusiak. Datuei erreparatuz berresten da 2016an, eta LOB kontuan hartuta, 100 erabiltzaileko 13,6 langile zeudela euskal zentro eta egoitzetan. Erabiltzaileko langileen kopuruan nolabaiteko egonkortasuna dago, baina beherako joeran, 2015-2016 artean - % 1,0ko jaitsiera izan baita, 2013-2015 aldian izandako igoerarekin kontrastean (ratioa 13,2tik 13,8ra igo zen orduan).

Lurraldeka begiratuta, LOB erako lanpostuen okupazio altuena Gipuzkoan dago, 16,8 langilerekin; atzetik ditu Bizkaia (13,2) eta Araba (10,3).

Okupazio-maila altuenak desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretan, eguneko laguntza-zentroetan eta suspertze- eta arreta-zentroetan aurki daitezke (26,5 eta 22,8 LOB langile 100 erabiltzaileko). Datuek gorako joera islatzen dute, gainera, % 1,1 eta % 2,3 bitarteko igoerak izan baitira 2015eko adierazleekiko. Eguneko laguntza-zentroetako langileen adierazleak Araban eta Bizkaian antzekoak badira ere (29,2 eta 28,4, hurrenez hurren, eta 23,6 Gipuzkoan), Bizkaian beste bi lurraldeetan baino altuagoak dira suspertze- eta arreta-zentroetan (24,4 Bizkaian, 19,4 Gipuzkoan eta 10,9 Araban).

**46. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren zentroak. 2013-2016
LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko**

Zentro/zerbitzu mota	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAEko 2015/2016 aldiko bariazioa ehunekotan
	langileak/ erabiltzaile	langileak/ erabiltzaile	langileak/ erabiltzaile	langileak/ erabiltzaile	2016ko langileak/ erabiltzaile	2016ko langileak/ erabiltzaile	2016ko langileak/ erabiltzaile	
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	3,3	2,8	3,1	3,5	5,6		0,0	13,3
Eguneko laguntza-zentroak	10,5	10,3	10,7	10,3	14,6	14,9	3,5	-3,3
Jantokiak	0,0	0,2	0,1	0,0	0,0			-100,0
Egoitzakoak ez diren zentroak	7,2	7,3	11,5	9,1	12,3	0,0	7,8	-21,3
ADINEKOAK, GUZTIRA	9,4	9,2	9,6	9,2	9,6	14,8	3,6	-3,5
Eguneko laguntza-zentroak	25,5	25,5	25,9	26,5	29,2	23,6	28,4	2,3
Suspertze- eta arreta-zentroak	19,7	21,5	22,5	22,8	10,9	19,4	24,4	1,1
Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	15,7	16,4	15,0	15,1	18,3	15,7	13,7	1,0
Laneratze-zentroak	2,6	1,9	2,9	1,7	1,0	5,7	2,7	-40,2
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	18,7	19,7	19,3	18,5	13,1	19,6	19,6	-4,1
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	5,6	5,6	5,8	5,4	5,0	0,0	7,1	-7,5
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	5,6	5,6	5,8	5,4	5,0	0,0	7,1	-7,5
Eguneko zentroak	12,2	12,5	14,8	12,7	9,4	9,7	14,0	-13,8
Jantoki sozialak	1,8	1,9	2,0	2,6	3,5		2,1	30,2
BAZTERTUAK, GUZTIRA	7,1	7,6	8,2	8,9	5,2	9,7	9,7	9,0
GUZTIRA	13,2	13,5	13,8	13,6	10,3	16,8	13,2	-1,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

Erabiltzaile eta jarduera erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira.

LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

OHARRA: ikusi atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.

Oro har, 2013. urteaz geroztik izan den egonkortasunari jarraiki, 100 erabiltzaileko LOB erako 15,1 langile zeuden desgaitasun edo gaixotasunen bat zuten pertsonentzako eguneko zentroetan eta zentro okupazionalan, eta 12,7 bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan (bigarren multzo horretan beherakada nabarmena izan da 2015-2016ko aldian, 2013 eta 2014 urteetan ohikoak ziren zifretara itzuli arte). Lehen kasuan, Araban gainerako lurraldeetan baino langile gehiago daude (18,3; Gipuzkoan, berriz, 15,7 eta Bizkaian 13,7); bigarren kasuan, Bizkaia gailentzen da (14 langile; Gipuzkoan, berriz, 9,7 eta Araban 9,4).

Aztertutako adierazlea zertxobait baxuagoa da adineko pertsonentzako eguneko zentroetan eta egoitzakoak ez diren gainerako zentroetan (100 erabiltzaileko LOB erako 10,3 eta 9,1 langile 2016an); izan ere, 2015-2016ko aldian langileen kopuruak behera egin du. Eguneko zentroetan, Arabako eta Gipuzkoako datuak antzekoak dira (14,6 eta 14,9), Bizkaikoak baino nabarmen altuagoak (3,5).

Adingabe eta familien eguneko arreta-zerbitzuan ere murriztu da adierazlea 2015-2016 biurtekoan, 100 erabiltzaileko LOB erako 5,4 langile baitzeuden 2016an; 2013-2015 aldian, berriz, 5,6 eta 5,8 bitartean.

Gainerako zerbitzuetan (adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzuak, jantokiak eta desgaitasun edo gaixotasun bat dutenentzako laneratze-zentroak), langileriaren pisua oso txikia da eta, oro har, 100 erabiltzaileko LOB erako 1,7 eta 3,5 langile baino ez daude (adineko pertsonentzako jantokietan izan ezik; bertan, 100 erabiltzaileko LOB erako langileen kopurua hutsa da ia).

47. taulan, egoitzakoak ez ziren zentro eta zerbitzuetako berezko langileek jasotzen duten batez besteko soldatari buruzko datuak agertzen dira (LOB arabera neurtuta). Taulan egiazta daitekeen bezala, 2016an, batez besteko soldata 39.476 eurokoa zen. % 2,7ko areagotzea izan da 2015eko batez bestekotik (38.454 euro), baina 2014ko 40.145 euroko batez besteko ordainsaria baino txikiagoa da.

2016an, batez besteko ordainsaririk altuenak izan dituzte, batetik, egoitzakoak ez diren adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzuetako langileek (51.932 euro) eta, bestetik, desgaitasun nahiz gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentro eta zentro okupazionalen langileek (48.687 euro). Horrez gain, egoitzakoak ez diren zerbitzuen sektoreko batez besteko orokorretik hurbil daude eguneko laguntza-zentroetako ordainsariak (38.779 euro adineko pertsonen kasuan eta 37.761 euro desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen kasuan).

Zerbitzu horiek guztiek partekatzen duten ezaugarrietako bat da ordainsaria askoz ere altuagoa dela Araban, 50.000 eurotik gorakoa beti; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 40.000 eurotik beherakoak dira, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten eguneko zentroen eta zentro okupazionalen salbuespen bakarrarekin (44.212 Bizkaian, 48.225 Gipuzkoan eta 59.340 Araban).

Desgaitasun nahiz gaixotasunen bat duten pertsonentzako laneratzeko zentroetan, batez besteko ordainsaria 37.723 eurokoa da; beste behin, zenbatekoa altuagoa da Araban (43.749 euro; Bizkaian 35.723 eta Gipuzkoan 21.245). Ordainsariak altuagoak dira Araban, halaber, baztertutako pertsonentzako jantokietako langileentzat (39.453 euro), EAEn batez besteko soldata 37.358 eurokoa dela aintzat hartuta.

Eguneko zentroetan antzekoak zenbatekoak antzekoak dira: 36.514 euro batez besteko EAEn, baina kasu honetan Gipuzkoan dituzte ordainsaririk altuenak (43.239 euro; Bizkaian 35.460 eta Araban 33.128).



Haur, gazte eta familientzako eguneko arreta-zentroetan, langileek 30.574 euro kobratzen dituzte batez beste. Azkenik, 30.000 euroen azpitik daude ordainsariak adinekoentzako beste egoitzazentro batzuetan (27.421 euro) eta desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako suspertze- eta arreta- zentroetan (29.724 euro).

**47. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren zentroak. 2013-2016
Langileko (LOB) batez besteko soldata**

Zentro/zerbitzu mota	2013	2014	2015	2016	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAEko
	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria 2016	2016ko batez besteko ordainsaria	2016ko batez besteko ordainsaria	2015/2016 aldiko bariazioa ehunekotan
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	49.173	49.842	53.943	51.932	51.932			-3,7
Eguneko laguntza-zentroak	36.983	36.805	36.559	38.779	53.085	33.500	32.399	6,1
Jantokiak		25.638	27.326					
Egoitzakoak ez diren zentroak	28.106	26.852	20.517	27.421	27.844		26.961	33,7
ADINEKOAK, GUZTIRA	36.875	36.662	36.097	38.579	51.770	33.500	31.888	6,9
Eguneko laguntza-zentroak	38.723	39.361	39.048	37.761	61.579	38.025	34.338	-3,3
Suspertze- eta arreta-zentroak	31.756	30.529	30.224	29.724	33.400	35.210	27.930	-1,7
Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak	44.855	50.759	45.462	48.697	59.340	48.225	44.212	7,1
Laneratze-zentroak	32.487	36.992	32.862	37.723	43.749	21.245	35.723	14,8
DESGAITUAK/GAIXOAK, GUZTIRA	40.070	42.554	40.147	40.335	59.386	41.241	35.871	0,5
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	30.679	30.782	31.687	30.574	26.279		32.355	-3,5
ADINGABEAK/FAMILIAK, GUZTIRA	30.679	30.782	31.687	30.574	26.279		32.355	-3,5
Eguneko zentroak	31.835	33.354	33.699	36.514	33.128	43.239	35.460	8,4
Jantoki sozialak	32.900	36.027	33.252	37.358	39.453		35.710	12,3
BAZTERTUAK, GUZTIRA	31.966	33.656	33.644	36.605	36.155	43.239	35.480	8,8
GUZTIRA	38.410	40.145	38.454	39.476	54.057	38.549	35.487	2,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarretzeko Gastuaren Estatistika.

Erabiltzaile eta jarduera erregularra duten zentroi dagozkien adierazleak kalkulatu dira.

LOB: lanaldi osoaren balioa (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

OHARRA: ikusi atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean.

2015-2016 aldiko dinamikan alde esanguratsu batzuk ondoriozta daitezke ordainsarien bilakaerari dagokionez. Alde batetik, zentro edo zerbitzu garrantzitsuenak aintzat hartuta, LOB erako langileen batez besteko ordainsariak % 6tik gora igo direla ikus daiteke honako zentro eta zerbitzu hauetan: adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentroetan edo laneratze zentroetan, eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro mota desberdinetan.

LOB erako langileen batez besteko ordainsaria, ordea, murriztu egin da 2015-2016 artean beste hauetan: desgaitasun edo gaixotasunen bat duen pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan edo berreskuratze- eta arreta-zentroetan, eta haur, gazte eta familientzako eguneko arreta-zentroetan. Jaitsiera horiek -% 1,7 eta -% 3,7 bitartekoak izan dira.



KONTZEPTUEN ETA DEFINIZIOEN ERANSKINA

ALDERDI OROKORRAK

Gizarte-zerbitzuak eta prestazio sozialak

Gizarte zerbitzuak (erdigunea)

Gizarte-zerbitzuen erdiguneak hauek hartzen ditu:

- a) Gizarte-zerbitzuen egitura orokorreko zerbitzuak, edo gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituzten erakunde publikoetako zerbitzu nagusiak.
- b) Gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoko zerbitzuak: oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-urgentzietako zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuetako zerbitzu tekniko espezializatuak.
- c) Egoitzako edo egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu guztiak, honako kolektibo hauei gizarte-arreta ematera bideratuta daudenak: adineko pertsonak, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonak, adingabeak, gazteak eta familiak, arrisku-egoeran dauden emakumeak (genero-indarkeria, tratu txarrak edo beste gizarte-arazo batzuk direla eta), eta bazterkeria-egoeran dauden beste pertsona batzuk.
- d) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen zuzenduriko arreta-programa espezializatuak: etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza.
- e) Familiei eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei arreta emateko programa espezializatuak: genero-indarkeria edo tratu txarren arazoak dituzten pertsonen arreta emateko zerbitzuak (SATEVI Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua barne), familientzako harrera, adopzioa eta familian esku hatzeko programa guztiak (familian esku hartzeko programak, haur eta nerabeentzako gizarte-informazioaren telefonoa, familia-bitartekaritza eta Familia Topaguneak).
- f) Mendekotasun-kasuetarako prestazio ekonomikoak.
- g) Gizarte-zerbitzuen erdiguneko beste prestazio espezializatu batzuk, genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonentzako prestazio ekonomikoak barne.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen kontzeptu hori bat etorri ohi da praktikan gizarte-zerbitzuen zorroaren egitura osoarekin, nahiz eta modu absolutuan hala izan beharrik ez dagoen. Ildo horretatik, ez da ahaztu behar txosten honetan erabilitako kontzeptua estatistikoa dela, eta, ondorioz, denboran irauteko xedea duela. Funtsean zorroaren egituratik eratortzen den kontzeptu politiko-administratiboarekin bat badator ere, egitura honen definizioa izaera estatistikoa ez duten eta denboran gehiago alda daitezkeen erabakien mende dago.

Txosten honetan eta honi lotutako agiri estatistikoetan erabiltzen den gizarte-zerbitzuen kontzeptu estatistikoa gizarte-zerbitzuen erdigunearen baliokidea da.

Gizarte-prestazioak

Gizarte-prestazioek gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituzten prestazio ekonomiko guztiak hartzen dituzte barne, baita beste zerbitzu batzuek kudeatzen dituzten arren Gizarte Laguntzaren eratze-eta estatutu-kontzeptuaren barruan sar daitezkeen jarduketan berezko elementuren bat duten prestazioak ere. Kanpo gelditzen dira gizarte-zerbitzuen erdigunearen barruan kokatzen diren prestazioak (mendekotasun-prestazioak eta tratu txarren edo genero-indarkeriaren biktimetzako prestazio ekonomikoak), GLLak salbu.

Honako prestazio hauek hartu dira aintzat::

- a) Estatuko lege orokorretan zehazten diren baina Euskadin kudeatzen diren prestazio ekonomikoak: LISMI (Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legea) prestazioak eta kotizatu gabeko prestazioak (KGP). Oso antzekoak direnez, kotizatu gabeko prestazioetan Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioak ere sartu dira.
- b) Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazioak: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL).
- c) Familiei laguntzeko familia-prestazioak: familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak, eta laneko eta familiako bizitza uztartzeko prestazioak.
- d) Beste prestazio ekonomiko batzuk, orain arte adierazi ez diren gizarte-urgentzia eta -larrialdien arloko gainerako laguntzak barne.

Aztertutako prestazioek, funtsean, adierazitako prestazio publikoak barne hartzen badituzte ere, erakunde pribatuek kudeatzen dituzten era horretako prestazioak ere sartu dira.

Zentroa edo zerbitzua

Kokapen independente eta identifikagarria duen unitatea, azpiegitura materiala duena; bertan gizarte-ekintzaren esparruan artatzen den biztanleriaren sektore edo azpisektore bati edo gehiagori arreta emateko jarduketak gauzatzen dira.

Artatutako biztanleria mota. Hurbilketa orokorra

Oro har, zentroak eta zerbitzuak artatzen duten kolektibo nagusiaren arabera sailkatzen dira, honako irizpide hau oinarri hartuta:

Adinekoak

Erretiroa hartzeko adina gainditu duten pertsonentzako zentroak. Adin hori izan ez arren antzeko profilak dituzten pertsonak ere artatzen dituzte, argi eta garbi lan-merkatutik kanpo gelditu direlako edo zahartzearen ondorioz euren gaitasun psikiko eta fisikoak murriztu egin direlako.

Desgaituak/gaixoak

Zahartzearekin zerikusirik ez duen gutxitasun edo desgaitasun fisiko, psikiko edo sensorial baten edo antzeko ondorioak izan ditzakeen gaixotasun kroniko baten ondorioz gizarteratzeko aukera murriztuak dituzten pertsonen zuzendutako zentroak, batez ere buruko gaixotasunen esparruan.

Gaixotasun/desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroez eta egoitzakoak ez diren zentroez gain, esparru honetan sartzen dira pertsona heldu ezinduen tutoretza-zerbitzua eta Tutoretza Fundazioak, baita arreta goiztiarreko esku-hartze sozialaren zerbitzua ere.



Adingabeak/gazteak/familiak

18 urtetik behera dituzten eta beharrizan-egoeran dauden, familia-bizitza egoki edo arduratsurik ez duten, helduengandik jokabide gatazkatsuak jasan dituzten eta familia-giro desegokietan agertzen diren beste arazo batzuk pairatzen dituzten gazteentzako zentroak. Hemen sartzen dira familia osoari arreta eskaintzen dieten zentroak.

Haur, gazte eta familientzako egoitza-zentroez eta egoitzakoak ez diren zentroez gain, arreta honetan sartu dira Familia Topaguneak, familientzako bitartekaritza-zerbitzuak eta haur eta gazteentzako gizarte-informaziorako telefonoa.

Emakumeak

Beharrizan-egoeran dauden emakumeei zuzenduriko zentroak, batez ere egoera are gehiago larriagotzen duten baldintzak dituzten emakumeei zuzendurikoak, besteak beste familia-kargak dituzten eta bakarrik dauden emakumeak eta genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeak.

Baztertuak

Bazterkeria-egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen zuzenduriko zentroak. Pertsona horiek pixkanaka sustraiak eta loturak apurtu dituzte, eta, ondorioz, norbanakoaren dimentsio sozial eta pertsonala eratzen duten elementuak galdu dituzte. Honako hauek artatzen dituzte era honetako zerbitzuek: iragaitzako bidaiariak, kartzelan dauden edo egon diren pertsonak, alkoholak edo drogek eragindako gizarte-arazoak dituzten pertsonak, gutxiengo etnikoetako kideak direla-eta gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonak eta bazterkeria-egoeran egoteko arriskua duten beste talde batzuk.

Adierazitako sailkapena zentro eta zerbitzu espezializatuei aplikatzen zaie. Biztanleria osoari zuzenduriko jarduketak, besteak beste gizarte-zerbitzuen egitura orokorrari edo espezifikoiari dagozkionak, ez dira irizpide horien arabera ordenatzen.

Artatutako biztanleria mota. Mendekotasuna babestea

Zenbait kasutan, batez ere gastuari eta finantzaketari loturiko alderdiei dagokienez, mendekotasunari, adineko pertsonen arretari eta gaixotasun nahiz desgaitasun bat duten pertsonen arretari dagozkien arazoak elkarrekin lantzen dira. Kasu horretan, honako zentro, zerbitzu edo programa hauek sartzen dira:

- a) Adinekoentzako zentroak eta zerbitzuak.
- b) Desgaitasun/gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak.
- c) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen zuzenduriko arreta-programa espezializatuak: etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza.
- d) Mendekotasun-kasuetarako prestazio ekonomikoak.

Artatutako biztanleria mota. Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babestea

Zenbait kasutan, batez ere gastuari eta finantzaketari loturiko alderdiei dagokienez, haurrak, nerabe eta gazteak, familiak eta emakumeak babestetik eratorritako arazoak elkarrekin lantzen dira. Kasu horretan, honako zentro, zerbitzu edo programa hauek sartzen dira:

- a) Haur, gazte, familia eta emakumeei zuzenduriko zentroak eta zerbitzuak.
- b) Genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonak artatzeko programak, harrera- eta adopzio-programak eta familian esku hartzeko beste jarduketak batzuk.
- c) Genero-indarkeria edo tratu txarren biktimenezko prestazio ekonomikoa.

Egoitza-zentro eta -zerbitzuak

Zentro hauetan etengabeko arreta eta laguntza integrala eskaintzen da, egoitza- eta mantenu-zerbitzuen bidez, baita beste zerbitzu batzuen bidez ere.

Talde honetan sartzen dira egoitza-zerbitzua eskaintzen duten zentro hauek guztiak: harrera- eta urgentzia-zentroak, egoitzak, etxebizitza komunitarioak, apartamentuak, ostatuak, gaueko zentroak, neguko zentroak, suspertze-zentroak barnetegi-erregimenean, etxe funtzionalak, eta atsedena- eta babes-zerbitzuak.

Artatzen diren pertsonen arabera, egoitza-zentroak honako talde edo azpitalde hauetan bana daitezke:

Adinekoak

- Egoitza-zentroak

Honako egoitza-zentro mota hauek hartzen ditu barne, hala egonaldi labur nola luzeetarako, adineko pertsona guztientzat:

- Egoitza-zentroak, zentzurik zurrunenean. Egoitza-zerbitzuak
- Tutoretzapeko apartamentuak
- Etxebizitza komunitarioak
- Bestelako egoitza-zentro eta -zerbitzuak

- Atsedena- eta babes-zerbitzuak

Batez ere egoitza-izaera duten aldi baterako zerbitzuak eskaintzen dituzten plazak hartzen dituzte barne, adineko pertsonak zaintzen dituztenei atsedena eta babesa eskaintzeko.



Desgaituak/gaixoak:

- Egoitza-zentroak

Honako egoitza-zentro mota hauek hartzen ditu barne, hala egonaldi labur nola luzeetarako, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsona guztientzat:

- Egoitza-zentroak, zentzurik zurrunenean. Egoitza-zerbitzuak
 - Tutoretzapeko apartamentuak
 - Egonaldi laburretarako pisuak eta zentroak
- Atsedena- eta babes-zerbitzuak

Batez ere egoitza-izaera duten aldi baterako zerbitzuak eskaintzen dituzten plazak hartzen dituzte barne, desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituztenei atsedena eta babesa eskaintzeko.

Adingabeak/familiak

- Egoitza-zentroak

Adingabeentzako eta babesgabetasun-egoeran dauden gazteentzako egoitza-zentro hauek hartzen ditu barne, baita legea haustearen ondorioz kontrolpean dauden adingabeentzako egoitza-zentro hauek ere:

- Adingabe edo gazteentzako zentroak:
 - Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe edo gazteentzako egoitza-zentroak.
 - Jokabide-arazoak dituzten edo legea hautsi duten adingabe eta gazteentzako zentroak.
 - Gazteentzako bestelako egoitza-zentroak.

Urgentzietako egoitza-zerbitzuak eta familiei zuzendurikoak ere hemen sartzen dira.

Emakumeak

Egonaldi labur eta luzeetarako egoitza- eta etxebizitza-zerbitzuak hartzen ditu barne, baita beharizan-egoeran dauden emakumeentzako, familia-kargak dituzten emakumeentzako eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako urgentziako harrera-zentroak ere.

- Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (genero-indarkeriaren biktima ez direnentzat).

Gizarte-beharizan egoeran dauden, familia-kargak eduki eta bakarrik dauden, prostituzioari loturiko arazoak dituzten edo antzeko gizarte-arazoak dituzten emakumeentzako etxebizitza-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta epe laburrerako etxebizitzak) hartzen ditu barne.

- Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (genero-indarkeriaren biktima direnentzat).

Genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako etxebizitza-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta epe laburrerako etxebizitzak) hartzen ditu barne.

Baztertuak

Epe labur nahiz luzerako egoitza-zerbitzuak eta etxebizitzak hartzen ditu barne.

- Etxebizitzak eta egoitza-zentroak.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako honako egoitza-zentro hauek (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta egonaldi laburretarako zentroak) hartzen ditu barne:

- Preso dauden edo egon diren pertsonentzako etxebizitzak.
 - GIB duten pertsonentzako etxebizitzak.
 - Mendekotasun-arazoak dituzten eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitzak, tutoretzapeko pisuak eta komunitate terapeutikoak.
 - Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako egoitzak eta tutoretzapeko pisuak.
 - Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako harrera-zentroak, harrera-pisuak eta urgentzia-zentroak.
 - Etorikinentzako etxebizitzak.
- Gaueko harrera-zentroak.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera eskaintzen duten honako egoitza-zentro hauek (ostatuak, pisuak, harrera-zentroak eta egonaldi laburretarako zentroak) hartzen ditu barne:

- Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako ostatuak.
- Adikzioak dituzten pertsonentzako gaueko zentroak.
- Bestelako bazterkeria-egoeraren batean dauden pertsonentzako gaueko zentroak, etorkinentzat barne.
- Neguko zentroak.

Atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapen garrantzitsua

Atsedeen- eta babes-zerbitzuei dagokienez, beharrezkoa da adieraztea atsedeen-zerbitzu gehienak egoitza-arretaren sare orokorraren bidez eskaintzen direla, bai adineko pertsonen kasuan, bai desgaitasunen/gaixotasunen bat duten pertsonen kasuan. Hori dela eta, datuek ez dute atsedeen- eta babes-zerbitzuen eskaintza osoa islatzen, baizik eta soilik zerbitzu horretan berezitzen diren zentroyen datuak.

Eguneko arretarako zentro eta zerbitzuak (egoitzakoak ez direnak)

Zentro hauek eguneko arreta espezializatua eskaintzen diete gizarte-beharrizanak dituzten pertsoneri. Talde honetan sartzen dira eguneko arreta eskaintzen duten zentro hauek guztiak: eguneko laguntza-zentroak, jantokiak, suspertze- eta arreta-zentroak, zentro okupazionalak, gizarteratze- eta laneratze-zentroak eta atsedeen- eta babes-zerbitzuak.

Artatzen diren pertsonen arabera, egoitza-zentroak honako talde edo azpitalde hauetan bana daitezke:



Adinekoak

Egoitza-zentroek, eguneko laguntza-zentroek, atseden- eta babes-zentroek eta jantokiak eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Egoitza-zentroak

Adinekoentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Atseden- eta babes-zerbitzuak

Adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonak atsedean hartzeko eta haiei babes emateko egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko laguntza-zentroak

Egunean zehar adineko pertsonak artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne.

- Jantokiak

Adinekoentzako jantoki sozialak hartzen dituzte barne.

- Egoitzakoak ez diren zentroak

Adinekoentzako gainerako laguntza-zentro guztiak hartzen dituzte barne.

Desgaituak/gaixoak:

Egoitza-zentroek, eguneko laguntza-zentroek, atsedean- eta babes-zentroek, zentro okupazionalak, eta suspertze- eta arreta-zentroek eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Egoitza-zentroak

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Atsedean- eta babes-zerbitzua

Desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonak atsedean hartzeko eta haiei babes emateko egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko laguntza-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egunean zehar artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne (laguntza-helburuekin).

- Suspertze- eta arreta-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egunean zehar artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne (suspertzeko eta arreta berezia emateko helburuekin).

- Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak

Aurreko kategorietan sartzen ez diren eguneko zentroak hartzen ditu barne, egoitza-egiturekin loturarik ez duten eguneko atsedeen-zentroak eta desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentro okupazionalak barne. Zentro mistoen kasuan (okupazionalak eta enpleguan berezitzen diren zentroak), gizarte-zerbitzuen testuingurua aztertzerakoan, izaera okupazionala duten eta egoitzakoak ez diren plazak bakarrik hartu dira kontuan.

- Laneratze-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako gizareratze- eta laneratze- zentroak hartzen dituzte barne, zentro okupazionalak izan ezik.

Adingabeak/familiak

Egoitza-zentroek eta eguneko zentroek eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Adingabe/familien egoitza-zentroak

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe, gazte eta familientzako eguneko zentroak hartzen dituzte barne.

Baztertuak

Etxebizitzek, egoitza-zentroek, eguneko zentroek, zentro okupazionalak, gizareratze- eta laneratze- zentroek eta jantoki sozialek eskaintzen dituzten arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Etxebizitzak eta egoitza-zentroak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko zentroak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro guztiak hartzen ditu barne, eguneko laguntza-zentroak eta zentro okupazionalak barne.

- Jantoki sozialak

Bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako jantoki sozialak hartzen dituzte barne.

Erabiltzaileak

Erabiltzaileak dira erreferentziako egunean (abenduak 15) zentroak eskaintzen dituen prestazioak eta zerbitzuak zuzenean jasotzen ari ziren pertsonak.



SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN PLAZEI BURUZKO ALDERDIAK

Plazak

Egoitzakoak

Estatistikan aztertzen den urteko abenduaren 31n erabilgarri zegoen ohe kopurua, horiek okupatuta egon hala ez. Harrera-zentroetan, egoitza-zentroetan eta egoitzako suspertze-zentroetan biltzen dira.

Egoitzakoak ez direnak

Egoitzakoak ez diren zentroetan dagoen plaza kopurua, edo egoitzakoak ez diren zentroetan egoitzakoak ez diren zerbitzuak emateko erabiltzen direnak.

Plazei buruzko zehaztapena

Plazen banaketa artatutako biztanleria motaren arabera aztertzen dugunean, kontuan hartu beharra dago kasu batzuetan arreta mistoa izan daitekeela, hau da, biztanleria talde bati baino gehiagori zuzen dakiokoela. Arreta mistoa eskaintzen duten zentroetan, baina, artatutako biztanleriari buruzko informazioa ez da xehatuta agertzen; izan ere, GZEZEren inkestan biztanleria mota bat baino ezin da adierazi. Hori esanguratsua da adineko pertsonentzako egoitza-plazen kasuan; izan ere, arreta-sare horretan askotan desgaitasun/gaixotasunen bat duten pertsonentzako plazak ere egon ohi dira. Hala ere, plaza horiek adinekoentzako plaza gisa sailkatzen dira, zentro horien xede nagusia adinekoei zerbitzua ematea baita.

Plazen titulartasuna

Egoitzako plazak eta egoitzakoak ez direnak sektore publikoak duen inplikazioaren arabera bereizten dira, bai titulartasunari dagokionez, bai finantzaketari dagokionez. Hona hemen aztertu diren kategoriak:

Publikoak

Administrazio publikoen (Europako administrazioa, Estatuko administrazio orokorra eta Gizarte Segurantza, Erkidegoko administrazioa, foru-administrazioa, udal-administrazioak eta mankomunitateak) titulartasunpeko zentroei dagozkien plazak.

Itunpekoak

Titulartasun publikoa ez duten baina zati batean edo osorik sektore publikoak finantzatzen dituen zentroetako plazak.

Bazterkeriaren esparruko itunpeko plazei buruzko zehaztapen garrantzitsua:

Itunpeko plaza hauei dagokienez, gogoan hartu beharra dago bazterkeriaren arretaren esparruan interpretazio-arazoak daudela itunpeko plazak zein diren zehazteko. Hori horrela da esparru honetan Administrazioek ez dituztelako itunpeko plazak aipatzen, baizik eta hitzarmenak; horren ondorioz, datuak biltzerakoan, elkarrizketari batzuek itunpeko plazak aipatu dituzte, baina beste batzuek ez (pribatuak). Hasiera batean, emandako datuek elkarrizketari horiek emandako informazio zuzena dute oinarri.

Hala ere, beharrezkoa da adieraztea bazterkeriaren esparruan jokabide horrek gutxietsi egiten duela ekintza publikoaren benetako pisua. Ildo horretatik, erakunde edo elkarte pribatuek bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden biztanleei eskaintzen dizkieten arreta-baliabide asko % 100ean finantzatuta daude, eta administrazioa da erabiltzailea sare horretan sartu behar dela erabakitzen duena (hala ere, batzuetan egoera mistoak egoten dira, eta erakundeek ere erabiltzaileak sarean sartzeari buruzko erabakiak hartzen dituzte). Kasu horietan, pribatu gisa sailkatutako plaza ugari egiatan itunpeko plazatzat har daitezke.

Ondorioz, beharrezkoa da egoera hori kontuan hartzea itunpeko jarduketak bazterkeriaren arretaren esparruan duen benetako eragina aztertzerakoan.

Pribatuak

Sektore pribatuak oso-osorik finantzatzen dituen plazak (irabazi-asmorik gabeko jardueraren esparrua, elkarteak, elkarteen federazioak, fundazio pribatuak, ongintzako establezimenduak eta irabazi-asmorik gabeko gainerako erakundeak; guztiz pribatua den esparruan, berriz, pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak, lan-sozietate anonimoak, ondasun-erkidegoak, kooperatibak eta esparru honetan sar daitezkeen gainerako erakundeak).

GASTUARI BURUZKO ALDERDIAK

Gastu arrunta

Operazio arruntetara bideratutako gastua da. Informazioa eurotan eman da, berariaz bestela adierazitako kasuetan izan ezik. Hurbilketak erreferentzia egiten dio aztertutako urteko aldiari dagokion gastu nominalari, salbu eta beste erreferentzia bat zehazten denean (esate baterako, urte zehatz bati dagokion balio baliokidearen bitartez zenbatetsitako gastu arrunta, Eustatek ezarritako inflazioaren bariazioa kontuan hartuta).

Gastu arruntak honako kontzeptu hauek hartzen ditu barne:

Erosketak

Kapitala areagotzea ez dakarten ondasun arrunten gastuak, horien iraupena urtebete baino gutxiagokoa bada, ezin badira inbentarioan sartu eta errepikatu egiten badira.

Kanpoko zerbitzuak

Konponketa eta kontserbazioari loturiko gastuak, profesional independenteen zerbitzuak, hornidurak, garraioak, aseguruen sariak, banku-zerbitzuak eta abar.

Langileen gastuak

Soldatak eta ordainsariak, Gizarte Segurantza eta langileen beste gastu batzuk.

Beste batzuk

Zergak, finantza-gastuak, amortizaziorako zuzkidurak, izangaien bariazioak, higiezinek eragindako galerak eta ezohiko gastuak.

Familiei egindako transferentziak

Kontrapartidarik gabeko eragiketa arruntak finantzatzea xede duten kredituak, pertsona fisikoei emanak, beharizan-egoerak konpontzera bideratutako programen bitartez.

Emitza

Eustatek ezarritako metodologiaren arabera, gastu arruntak aztertutako zentro edo zerbitzuak erreferentziako urtean izandako emitza ere barne hartzen du, defizit edo superabit terminoetan.



Erakunde publikoen edo zerbitzu publiko orokorren kasuan, arreta zehatz bati lotuta ez daudenean, defizit edo superabit hori gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean integratuta dauden zentro eta zerbitzuei esleitzen zaie. Hori dela eta, Egitura eta Emaidza Orokorra epigrafearen azpian ageri da, batez ere finantzaketari buruzko atalean. Hurbilketa horrek azaltzen du, bestalde, diru-sarreraren dinamikak baldintzatutako urteen arteko zenbait alditan gorabehera handiak egotea egitura orokorrari dagokion gastuan.

Gastu arruntaren adierazleak

Hauek dira gastu arruntaren adierazleak:

Gastuaren ehunekoa BPGd-aren gainean

Ehuneko horrek gastu arrunta irudikatzen du, Eustatek aztertu den lurralde-esparrurako zenbatetsitako BPGd-aren gainean. Ehuneko hori aldatu egin daiteke eragiketa batetik bestera, Eustatek aldian-aldian egiten dituen balioa eguneratzeko prozesuen mende baitago.

Gastua biztanleko

Kontuan hartutako gastu arrunta, zati Eustatek aztertu den lurralde-esparrurako ezarritako biztanleria.

Adierazle horiek urteka kalkulatzen dira.

FINANTZAKETARI BURUZKO ALDERDIAK

Finantzaketa: administrazio-jatorria

Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-prestazioen gastuaren finantzaketak, finantzaketa horren administrazio-jatorriaren arabera, honako administrazio hauek hartzen ditu aintzat:

Erkidegoz gaindikoa

Europako Administrazioaren, Estatuko Administrazio Orokorren eta Gizarte Segurantzaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Erkidegokoa

Erkidegoko Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Foru Aldundikoa

Foru Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Udalekoa

Udal Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne, baita Mankomunitateenak ere.

Pribatua

Erakundeek nahiz pertsonak egindako finantza-ekarpen pribatuak hartzen ditu barne, bereziki zentro, zerbitzu eta programetako erabiltzaileek egiten dituztenak.

Finantzaketa: izaera

Gizarte-zerbitzu eta gizarte-prestazioen arloko gastuen finantzaketak honako partida hauek hartzen ditu kontuan, diru-sarreraren izaeraren arabera:

Salmentak

Salmentek zentroa, zerbitzua edo programa ez beste iturri pribatu batzuetatik datozen diru-sarrerak biltzen dituzte, bukatutako produktuen salmentatik eratorritakoak.

Erabiltzaileen ekarpenak (prestazioak)

Prestazioek familiek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-sarrerak biltzen dituzte; ekarpen horren truke, zentroak zenbait zerbitzu eskaintzen dizkie (erabiltzaileen kuotak eta erabiltzaileei dagozkien beste diru-sarrera batzuk).

Diru-sarrera sozialak

Diru-sarrera sozialak familiengandik datoz, erabiltzaileen ekarpenak ez beste kontzeptu batzuegatik. Diru-biltzeak, partikularren emaitzak eta bazkide ongileen ekarpenak hartzen ditu barne.

Diru-laguntzak eta hitzarmenak

Diru-laguntzak onuradunak trukean ezer emateko beharrik gabe esleitzen diren ekarpenak dira; horien helburua da gutxieneko errentagarritasuna bermatzea edo ustiaketaaren defizita konpentsatzea.

Itunek sinatutako hitzarmenetatik eratorritako diru-sarrerak hartzen dituzte barne. Oro har, hitzarmenak Administrazioarekin sinatzen dira, itunpeko erakunde edo zentroak zerbitzuren bat ematearen truke.

Erakundeari egindako ekarpenak

Beste bide batzuetatik estaltzen ez den defizita konpentsatzera bideratutako ekarpenak biltzen ditu. Administrazio publikoaren mendeko zentroetan, ekarpen hori aurrekontuaren bidez egiten da, oro har.

Diru-sarrera finantzarioak

Zentro, zerbitzu eta programen diru-sarrera finantzarioak hartzen ditu barne.

Beste diru-sarrera batzuk

Aurreko kontzeptuetan sartu ez diren diru-sarrerak hartzen ditu barne, besteak beste alokairuetatik, higiezinek sortutako irabazietatik edo ezohiko diru-sarreretatik datozenak.

Finantzaketa-adierazleak

Erabiltzaileen parte-hartzea finantzaketan

EHuneko honek erabiltzaileek zentro edo zerbitzuaren finantzaketa osoari egin dioten ekarpena irudikatzen du. Kuotak eta erabiltzaileek egindako gainerako ekarpenak hartzen dira barne.



LANGILEEI BURUZKO ALDERDIAK

Langile motak, zentroarekin duten loturaren arabera

Zentroarekin duten loturaren arabera, langileak era honetan sailkatuta daude:

Berezko langileak

Berezko langileak dira enpresarekin duten kontratu-harremana gorabehera erreferentziako aldian lan bat egin dutenak, lan hori diru bidezko ordainsariaren bitartez ordainduta edo ordainsaririk jaso gabe.

Ondorio horietarako, GZEZEK erreferentziako urteko abenduaren 15ean zegoen egoerari buruzko informazioa eman du, baina baita urteko batez besteko langileei buruzko informazioa ere.

Langileen kategoria horrek ez ditu azpikontratatuak langileak barne hartzen.

Azpikontratatuak langileak

Langileen kategoria honetan beste enpresa baten mende dauden eta beste enpresa horrengandik ordainsaria eskuratzen duten langileak sartzen dira, baita erabiltzaileei zerbitzua zuzenean ematen dieten langileak ere (arreta zuzenerako langile azpikontratatuak).

Kasu honetan, GZEZEK ematen duen informazioak urteko langile kopuru osoari egiten dio erreferentzia.

Langile boluntarioak

Langile boluntarioak euren erabakiz denbora tarte bat laguntza-lanak egiteko erabiltzen duten pertsonak dira, lan horren truke kontratu-harreman baten bitartez kontraprestaziorik edo ordainsaririk jaso gabe. Hala, ordaindu gabeko borondatezko lankidetzak da.

Azpikontratatuak langileen kasuan bezalaxe, GZEZEK ematen duen informazioak urteko langile kopuru osoari egiten dio erreferentzia.

Langileak, kualifikazioaren arabera

GZEZEren arabera, abenduaren 15ean, berezko langileak honako irizpide hauen arabera sailkatzen ziren:

Administrazioa eta orokorrak

Bi langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Zuzendaritzako eta administrazioko langileak: zuzendaritza eta kudeaketa, administrazioko langile teknikoak, administrazio-langileak eta laguntzaileak.
- b) Gainerako langile orokorrak (zerbitzuko langileak): langile urgazleak eta mantentze-lanetakoak, ostalaritza-sukaldekoak, garbiketakoak eta beste zerbitzu orokor batzuk ematen dituztenak.

Gizarte-lana

Gizarte-lanean aritzen diren teknikariak hartzen ditu barne.

Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk

Langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Hezitzaileak: gizarte-hezitzaileak eta irakasleak, baita psikologian edo pedagogian adituak diren langileak ere.
- b) Langile sanitarioak: medikuak, erizainak edo fisioterapeutak, terapia okupazionalan jarduten dutenak eta droga-mendekotasunak prebenitzeko lanetan aritzen diren teknikariak.
- c) Beste teknikari batzuk: gizarte- eta kultura-animazioan adituak diren langileak.

Zaintzako langile laguntzaileak

Bi langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Klinikako eta geriatriako laguntzaileak.
- b) Zerbitzu pertsonalak ematen dituzten langileak (zaintzak, etxeko laguntza eta abar).

Monitoreak, langilezainak eta tailerreko buruak

Monitoreak, langilezainak eta tailerreko buruak hartzen ditu barne.

EZB langile-erabiltzaileak

Desgaitasunen bat duten eta gizarteratzeko eta laneratzeko enplegu-zentro berezietan lan egiten duten pertsonak.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen kasuan, jarduera okupazionalak eta enplegu-zentro berezietako berezko jarduerak konbinatzen dituzten zentro mistoen kasuan baino ezin dira agertu. Azken mota honetako plazak ez dira, baina, aintzat hartu gizarte-zerbitzuen erdigune horri buruzko txostenean.

Langileei buruzko datuak: orokorrak eta LOB

Langileei buruzko informazioa modu orokorrean edo lanaldi osoaren baliokidea (LOB) terminoaren arabera eman da. Azken kasu horretan, langileei buruzko informazioa lanaldi osoa kontuan hartuta estandarizatu da, lanaldi osoa urtean 1.600 ordu edo astean 35 ordu direla ulertuz.



KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Zentro edo zerbitzuen okupazio-adierazlea

Okupazio-adierazlea edo -ehunekoa erreferentzia-urteko abenduaren 15ean zeuden erabiltzaileen eta aztertu diren zentro edo zerbitzuetan zeuden plaza guztien arteko harreman portzentuala da.

Gastu arrunta erabiltzaileko

Adierazle horrek termino absolutuetan lotzen ditu aztertu diren zentro eta zerbitzuei dagokien gastu arrunt osoa eta zentro edo zerbitzu horiek erreferentziako urteko abenduaren 15erako artatuak zituzten erabiltzaile guztiak.

Erabiltzaileko batez besteko kuota

Adierazle horrek termino absolutuetan lotzen ditu erabiltzaileek kuoten bitartez egin duten ekarpenaren zenbatekoa eta erreferentziako urteko abenduaren 15erako aztertutako zentro edo zerbitzuek izandako erabiltzaile kopuru osoa.

LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko

Adierazle horrek erreferentziako urteko abenduaren 15ean aztertu diren zentro eta zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileak eta egun horretan zeuden erabiltzaile guztiak lotzen ditu, bider ehun egin ondoren.

Adierazle hori egiteko, berezko langileak lanaldi osoaren baliokidea (LOB) aintzat hartuz kalkulatu dira.

Langileko (LOB) batez besteko soldata

Adierazle horrek elkarrekin lotzen ditu erreferentziako urteko abenduaren 15ean aztertu diren zentro eta zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileak eta egun horretan zeuden erabiltzaile guztiak.

Adierazle hori egiteko, berezko langileak lanaldi osoaren baliokidea (LOB) aintzat hartuz kalkulatu dira.

Batez besteko ordainsariari dagokionez, aztertu diren zentro eta zerbitzuetako langileei egotz dakizkiekeen gastu guztiak hartu dira aintzat, baita enplegatzaileak eskudirutan eta espezetan ordaindutako guztia ere, aztertu den aldian egindako lanaren kontrapartida gisa. Soldaten ordainsariak honela banakatzen dira: eskudirutan eta espezetan ordaindutako soldata eta ordainsariak, enplegatzaileak egindako edo enplegatzaileari egotzi zaizkion gizarte-kotizazioak eta enplegatzaileak langileei ordaindu behar dizkien gainerako gastuak.

LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK

Udalergi motak

Hau da txosten honetan erabili den udalgerrien multzokatzea:

Gasteiz

Gasteiz hartzen du barne.

Arabako beste udalergi nagusi batzuk

Amurrio eta Laudio hartzen ditu barne.

Arabako gainerakoak

Arabako lurralde historikoko gainerako udalgerriak hartzen ditu barne (baita Arabako esleitu gabeko erregistroak ere).

Donostia

Donostia hartzen du barne.

Gipuzkoako beste udalergi nagusi batzuk

Eibar, Errenteria eta Irun hartzen ditu barne.

Gipuzkoako gainerakoak

Gipuzkoako lurralde historikoko gainerako udalgerriak hartzen ditu barne (baita Arabako esleitu gabeko erregistroak ere).

Bilbo

Bilbo hartzen du barne.

Bizkaiko beste udalergi nagusi batzuk

Barakaldo, Basauri, Durango, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao hartzen ditu barne.

Bizkaiko gainerako udalgerriak

Bizkaiko lurralde historikoko gainerako udalgerriak hartzen ditu barne (baita Bizkaiko esleitu gabeko erregistroak ere).